

Eusko Jaurlaritzak,
2017-2020 Legegintzaldian,
**giza eskubideen eta
bizikidetzaren**
arloan sortutako
dokumentuen bilduma

-
1. Proiektu orokorra
 2. Iragana argitzea
 3. Biktimak
 4. Memoria
 5. Espetxe-politika
 6. Hezkuntza

7. Erlijio-aniztasuna

8. Asiloa eta migrazio zaurgarria
 9. Nazioarterako ekarpena
 10. Eranskina. ETAren armagabetzea eta desegitea
-

Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritzaren Idazkaritza Nagusia

2020ko uztaila



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzaren
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Aurkibidea

Bilduma honen aurkezpen orokorra.	4
Liburu honen aurkezpena.	6
1. dokumentua. Lege-aurreproiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzkoa.	9
2. dokumentua. Eusko Jaurlaritzaren Jarduera-Programa bizikidetza sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan.	21
3. dokumentua. ADOS aholku-batzordea, Legegintzaldi honetan egindako lan-planak eta jardueren balantzea.	61
4. dokumentua. Anitzak. Kultura- eta erlijio-aniztasuneko Euskadiko herriz herriko gidak.	83
5. dokumentua. Ermuko kultura- eta erlijio-aniztasunari buruzko tokiko gida.	101

Bilduma honen aurkezpen orokorra

2011ko urriaren 20an, IX. Legegintzaldiko (2008-2012) azken urtean, ETak “jarduera armatuaren behin betiko amaiera” iragarri zuen. Urtebete geroago, hauteskunde autonomikoak egin ziren eta Iñigo Urkullu Renteria buru zuen lehen gobernuari bide eman zioten (X. Legegintzaldia: 2012-2016). Hamarkaden ondoren lehen aldiz, euskal politikak eta gizarteak indarkeriaren eta terrorismoaren mehatxurik gabeko Legealdiari ekin zioten.

Une hartan, Lehendakariak hartutako lehen erabakietako bat Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusi berri bat sortzea izan zen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakariatzari atxikia eta haren mende zuzenean. Helburu nagusia indarkeriaren amaiera ordenatua lortzen laguntzea eta *Gizartea Elkartzea* zen.

2016ko irailaren 25ean izan ziren berriro EAEko hauteskundeak. Urte hartako urriaren 20an, Eusko Legebiltzarrak hasiera eman zion XI. Legegintzaldiari (2016-2020). 2016ko azaroaren 23an, Iñigo Urkullu Renteria izendatu zuten Lehendakari, bigarren agintaldian.

Aurreko Legegintzaldiko Bakegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusiari dagokionez, Lehendakariak egitura horri eutsi zion, baina aldaketa batzuk eginda izenari eta funtzioei dagokienez. Horrela, Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia izena hartu zuen. Hirugarren esparru hori sartu zuen, *lankidetzarena*, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia haren barruan sartu zelako. Idazkaritza horri atxikita geratu zen, halaber, errefuxiatuen krisi humanitarioari eman beharreko erantzunaren koordinazioa.

Horrela, XI. Legegintzaldian Idazkaritzak bere barne-egituran Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza, *Gogora* Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutuko Zuzendaritza eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Zuzendaritza izan ditu.

XI. Legegintzaldian, aurrekoan bezala, Idazkaritzak Legegintzaldiko plan estrategiko bat izan du: 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana. *Gogora* Institutuak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak sail-plan mailako bi jardueraprogramaren bidez antolatu dute beren egitekoa.

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017ko apirilaren 4an aurkeztu zen, eta urte bereko urriaren 10ean onartu zen behin betiko. Aurreikuspenetatik 16 ekimen eta horietatik eratorritako programa eta jarduerak ugari ateratu dira.

Liburu-bilduma honek hamar liburutan biltzen ditu 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren garapenaren esparruan Legegintzaldi honetan sortutako dokumentu nagusiak. Horien egitura, izenburuak kontuan hartuta, honako hau da: (1) Proiektu orokorra, (2) Iragana argitzea, (3) Biktimak, (4) Memoria, (5) Espetxe-politika, (6) Hezkuntza, (7) Erlijio-aniztasuna eta (8) Asilo eta migrazio zaurgarria, (9) Nazioarteko ekarpena, eta (10) Eranskina: ETaren armatzea eta desagitea.

Zazpigarren liburu honek aniztasunaren kudeaketa positiboan oinarria duten jarduketaren sektorial batzuei buruzko dokumentuak biltzen ditu.

Giza eskubideen agenda Covid-19aren ostean

2016an amaitu zen Legegintzaldiaren eta 2020an amaitu denaren artean, beste aldaketa esanguratsu bat egon zen Eusko Jaurlaritzaren arlo horren izendapenarekin lotuta, baina kontzeptuzko funts garrantzitsu batekin. “Bakearen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatetik “giza eskubideen” eta “bizikidetzaren” Idazkaritza izatera igaro zen. Aldaketa horren atzean 2016aren amaieran adierazitako egoeraren diagnostiko hau zegoen:

“Bakea, terrorismoak eta indarkeriak markatutako garai baten amaierari lotua, atzean geratzen ari zen agenda giza ikusten zen sozialki. Egiteke zegoen agenda bat zen, iraganari lotua. Giza eskubideekin lotutako bizikidetzaren formulazioa, egiteke zeuden erronkak ahaztu gabe, mundu aldakor eta ziurgabetasunez inguratutako baten erronketara hobeto egokitzea zen. Giza eskubideen eta orainari eta etorkizunari lotutako bizikidetzaren agenda azaleratu zen”.

Diagnostiko hura zehatza izan zen. Euskal XI. Legegintzaldiko denbora, arlo horretan, funtsezko bi egitate-ren ondorioz igaroko da historiara:

- Alde batetik, ETAre armagabetzea 2017ko apirilaren 8an, eta behin betiko desagitea 2018ko maiatzaren 3an. Hori guztia iraganaren ondorio eta zeinu anakroniko gisa; izan ere, bidegabea izateaz gain, onartezina eta jasanezina zen gure garaiko euskal eta europar gizartean.
- Bestalde, euskal gizartean giza eskubideekin, berdintasunarekin, justiziarekin, ingurumenarekin, migrazioekin, errefuxiatuekin, askatasunarekin eta abarrekin lotutako kezka eta ezinegon sozialen agenda berri bat finkatzea.

2020an, ETAre amaierari lotutako egiteke dauden zereginen agenda bat geratzen da, batez ere hiru eremutan: biktimen arloko politika publikoak, memoriari eta ETari buruzko hausnarketa kritiko eta partekatua, eta adostasuneko eta bizikidetzarako espetxe-politika.

Dena den, giza eskubideen euskal agenda gero eta gehiago da giza eskubideen agenda globala. Iraganari lotutako tokiko agendatik giza eskubideen agenda globalarekin erabat bat egiteko trantsizioari buruzko hausnarketa horrek XII. Legegintzaldiaren hasiera markatzen du (2020-2024).

Aipatu bezala, 2016ko amaierako diagnostiko hark azpimarratzen zuen beharrezkoa zela “mundu aldakor eta ziurgabetasunez inguratuaren erronketara egokitzea”. Ordura arte ezagututako ezerk ezin zuen hobeto sinbolizatu aldaketa eta ziurgabetasuna, 2020aren hasieran planeta osoan agertu zen Covid-19 pandemiak baino. XI. Legegintzaldia ere historiara pasako da, azken aldia pandemia honen ondorioengatik monopolizatuta egon delako.

Tokiko eta planetako bizipen hark indartu eta berretsi baino ez du egin Euskadin giza eskubideen agenda globala errotzea. Munduaren errealtateari beste begirada bat emateko eskatzea gogoeta kontzeptuala baldin bazen, pandemiaren ondoren errealtatearen agindua da orain. Paradigma-aldaketa baten aurrean gaude, eta oraindik ez dakigu zer irismen eta ondorio dituen.

Galdera berri batzuk eginda daude. Ez, ordea, erantzun guztiak. Idazkaritza honen jarduera-eremuan bi galdera garrantzitsu daude: batetik, nola adieraziko dira giza eskubideen urraketa- eta urrakortasun-modu berriak?; eta, bestetik, nola planteatu beharko dira giza eskubideen defentsarako eta sustapenerako politika publikoak pandemiaren atzean zehaztutako errealtate berrian?

Covid-19ren ondorioei buruzko eztabaida batzuek giza eskubideen balio hierarkikoki gorenaren gaineko lehia sakona iragartzen dute. Iritzi eta eragin globaleko korrante boteretsuek beren balioaren mespretxua defendatzen dute, edo, edozein kasutan, indibidualismo materialista baten ardatz ideologikoari lotutako beste balio batzuen mende egotea.

Ikuspegi ideologiko horrek gutxietsi egiten du komunitatearen zentzua eta guztion ongia “onkeria” antzu eta are kaltegarri gisa bilatzen du, eta zenbait balio lehenesten ditu, hala nola lokalismoa, “salba dadila ahal duena”, segurtasuna, protekzionismoa edo merkatuaren lidergoa, politikaren aurrean, besteak beste.

Giza eskubideen defentsa eta, ondorioz, elkartasun-betebeharra dira datozen hamarkadetako zeregin nagusia. Jokoan duguna da ea munduaren grabitate-zentroak elkartasunaren ardatzera jotzen duen edo, aitzitik, indibidualismoaren ardatzean sakontzen duen, bai herritarren kontzientzian duen proiektzioan, bai tokiko, naziko edo nazioarteko politikaren hainbat eremutan duen islapenean.

Covid-19ren ondoren, are arrazoi gehiagorekin, beharrezkoa izango da elkartasunaren, berdintasunaren, ez baztertzearen eta giza eskubideen tokiko agenda globalean sakontzen jarraitzea. 2030 Agendaren Garapen Jasangarriko Helburuak, Eusko Jaurlaritza bere ekintza osoan konprometituta daudenak, abiapuntu bat dira ziklo berri honetan. Horixe da, hain zuzen ere, XI. Legegintzaldia amaitzen eta XII. Legegintzaldia hasten deneko zalantzen eta erreferentzien ikuspegia.

Liburu honen aurkezpena

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak erlijioen arteko bizikidetzaren jarduera-eremu nagusietako bat ezartzen du. Planean ardatz hori XXI. mendearen hasieran bizikidetzak eta giza eskubideek gure gizartean dauzkaten erronken artean jotzen da.

Gizarte moderno eta garatu guztiak gizarte desberdin eta anitzak dira. Askatasunaren ondorio naturala da aniztasuna. Librea ez den herrialde bat bakarrik izan daiteke homogenea eta berdina. Kultura-, erlijio-, hizkuntza- eta etnia-aniztasuna edo beste edozein motatako aniztasuna askatasunaren eta herritarren osatasunaren sinonimoa da. Oparotasunaren sinonimoa ere bada.

Mendebaldeko gizarte oparoenak gizarte anitz eta berritzaileak dira, baita kulturaren eta erlijioaren arloan ere. Euskadi gizarte anitz eta konplexua da eta gero eta nortasun eta aniztasun gehiago dago gure gizartean.

Europako gizarterik aurreratuenak –euskal gizartea, tartean– kulturen eta erlijioen arteko bizikidetzarako espazio politikoak dira gaur egun. Desberdintasunak eta nortasunen aniztasuna errespetuz barneratzea erronka bat da, baina aukera-iturria da aldi berean. Bizikidetzan anitz eta harmoniatsurako helburua irmoak diren printzipio etikoak eta gure gizartea eratu duten balio demokratikoak oinarri hartuta bakarrik lor daiteke.

Mundu mailan giza eskubideei buruzko nazioarteko itun eta hitzarmen guztietan aitortutako giza eskubideetako bat da erlijioa aukeratzeko askatasuna. Askatasun horrek barne hartzen du askatasun osoz edozein erlijio praktikatzeko eskubidea, bakarrik zein taldean, eta baita inongo erlijio edo sinesmenik ez praktikatzeko eskubidea ere.

Horixe da Eusko Jaurlaritzaren jarrera esparru honetan. Herritar guztiek dute beren sinesmenengatik edo erlijio bateko kide izan zein ez izateagatik diskriminaziorik ez jasateko eskubidea, eta baita beren kontzientzia-askatasuna baliatzekoa ere, muga bakarra gainerako pertsonen eskubideekiko errespetuak markatutakoa izanik.

1. Dokumentu bezala “Lege-aurreproiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzkoa” sartu da. Bere helburua aniztasunean oinarritutako bizikidetzak eta gure gizartean erlijio askatasunerako eskubidea babestea da. Euskal gizarteak, Europako beste gizarte garatu batzuek bezala, gero eta erlijio aniztasun handiagoa du, itzulezina ziurrenik. Erlijio-askatasuna erabiltzeak kultu-gune eta -zentro normalizatuak izateko aukera adierazten du. Lege honek arautze-esparru bat eskaintzen du kultu-aretoak ireki eta erabiltzeko, erlijio-askatasunerako oinarritzko eskubidea bermatzeko, diskriminaziorik egin gabe.

2. Dokumentuak “Eusko Jaurilaritzaren Jarduera-Programa bizikidetza sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan” dokumentua biltzen du. Bere helburua prebentzioaren, erantzunaren eta integrazioaren arloetan abiarazten diren ekimenak eta proiektuak harmonizatzea da, partekatutako oinarriak eta helburuak aintzat hartuta. Horrez gain, badaude beste xede batzuk ere: bikoiztasunak saihestea, ahaleginak eta baliabideak optimizatzea, prestatzen diren ekintzak erraztea eta ekintza berriak ezartzea.

Plan honen ezaugarrietako bat Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko Aholku Batzordea sortzeko proposamena da. ADOS Batzordea da, eta 2018ko apirilaren 14an aurkeztu zen jendaurrean, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakaria buru izan zuen ekitaldi batean. ADOS Aholku Batzordearen xedea da komunitate islamikoen bizikidetza integratua sustatzea eta sendotzea euskal gizartean, haren parte gisa. **3. Dokumentuak** ADOS Aholku Batzordearen lan-plangintzak eta Legegintzaldi honetako jardueren balantzea jasotzen ditu.


2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak, Aniztasunaren kudeaketa positiboa, 7. ekime-nean, dokumentu-eredu bat prestatzeko aurreikuspena jasotzen du, udalerrri edo eskualde bakoitzeko kultura- eta erlijio-aniztasunaren ezagutzari eta pedagogiari buruzko tokiko gidak egiteko. **4. Dokumentuak** tresna horiek egiteko oinarritzko ereduak aurkezten du, EAEko udalerrietan erreplika daitekeen orientazioa emateko. Gida horien bidez, gure inguruneke migrazio-jatorriko aniztasuna eta kultura-aniztasuna ikusarazi nahi dira. Hartzaileak gure herrietako eta hirietako adin nagusiko bizilagunak izango dira.

Oinarri horren gainean, adibide gisa, hiru euskal udalerriri dagozkien hiru argitalpen prestatu dira, lurralde historiko bakoitzeko bana. Argitalpen horiek immigrazioak eskaintzen digun kultura- eta erlijio-aniztasunaren giza eta gizarte-islur hurbiltzen diete herri horietako herritar guztiei. “Anitzak - Euskadiko udalerrietako kultura- eta erlijio-aniztasunari buruzko tokiko gidak” bezala izendatzen dira. **5. Dokumentuak** Ermuko tokiko gida erreproduzitzen du.

Aniztasuna errealitate bat da. Etorkizunean, migrazioek gure eguneroko egoeraren parte izaten jarraituko duten gizarteak izango gara. Testuinguru horretan, garrantzitsua da erakundeek mekanismoak sortzea herritarrek elkar ezagutzeko eta aitortzeko. Helburua aniztasunarekiko begirada positiboa eta demokratikoa sustatzea da eta gizarte-kohesioa eta tokiko bizikidetza bultzatzea ere.

Gure printzipio politikoen artean oinarritzkoena giza eskubideak eta pertsona guztien duintasuna errespetatzea da, arraza, generoa, jatorria, sinesmenak edo beste edozein inguruabar pertsonal edo sozial bereizi gabe. Pertsonen duintasunaren, bizitzaren eta kontzientzia- eta erlijio-askatasunaren balio gorena da.





1

● dokumentua

Lege-aurreproiektua, Euskal
Autonomia Erkidegoko
kultu-lekuei edo -zentroei eta
erlijio-aniztasunari buruzkoa

Lege-aurreproiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-lekuei edo -zentroei eta erlijio-aniztasunari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Antolamendu juridiko demokratiko guztiek, Giza Eskubideen Nazioarteko Araubideak bezalaxe, pertsona orok duen erlijio- eta kultu-askatasuna aitortzen dute, oinarritzko eskubidetzat hartuta eta berme juridiko handienarekin. Erlijio-askatasuna 1978ko Konstituzioaren 16. artikuluan ere aitortzen da, eta Erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bidez eta Estatuak elizekin eta erlijio-erakundeekin egindako lankidetzat-hitzarmenen bidez garatu da. Europa mailan, berriz, gogoan izan behar da eskubide horri zer-nolako babesa ematen dioten Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikulua eta Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunaren 10. eta 22. artikuluek.

Era berean, azken hamarkadetan, erlijio-fenomenoek aldaketa handiak izan dituzte gure inguruko gizarteetan. Oro har, esan daiteke erlijioaren bilakaera hori sinesmen-aniztasunari edo kideztza-sentimenduen aniztasunari zor zaiola, bai eta gure gizarteetako zati garrantzitsu bati eragiten dioten sekularizazio-prozesuei ere. Euskal gizartean zehazki, erlijio-aniztasuna ez da erabateko berritasuna, baina gero eta garrantzi handiagoa du sozialki, eta, hori dela eta, gero eta beharrezkoagoa da aniztasun horren kudeaketa publiko egokia egitea. Euskal Autonomia Erkidegoa, funtsean, nahikoa homogeneoa izan da zenbait mendez, erlijio-adierazpenei dagokionez; gaur egun, paisaia dibertsifikatua eta askotarikoa dugu, bai zenbait erlijio-tradizio daudelako, bai erlijioak modu desberdinetan antolatuta daudelako.

Euskal gizartearen erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, eta hori hainbat faktore sozialen ondorio da. Azkenaldian gertatu diren migrazio-mugimenduek eragin dute Euskal Autonomia Erkidegoan dauden erlijio-tradizioak ugaritzea edo lehendik zeudenak finkatzea. Horrez gain, beste prozesu sozial batzuk ere kontuan hartu behar dira; hala, esaterako, bereizitako taldeen arteko gizarte-elkarreraginerako aukera handiagoa dago, komunikazio edo elkarreragin modu berriek, teknologiaren eta komunikazioen alorreko aurrerapenak eta bizi-esperientzien gizarte-erkaketa handiagoak eraginda. Azken batean, Europako beste gizarte garatu batzuetan bezala, euskal gizartean ere erlijio-aniztasuna gero eta handiagoa da, eta fenomeno hori, segur aski, behin betikoa da eta ez du atzera bueltarik.

Hala eta guztiz ere, indarrean dagoen ordenamendu juridikoak ez die arau-tresna nahikorik ematen erakunde publikoei, askotariko errealitate berri horrek gizartearen jardunean sorrarazi dituen arazo eta eskarrietako asko kudeatzeko. Arau-zehaztasunik edo kudeaketa politikoko printzipiorik ez hori, besteak beste, kultu-lekuen edo -zentroen gaian islatzen da, erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubideak baliatzeko parametro beharrezkoak baitira askotan, haren alderdi ageriko edo kolektiboari dagokionez. Erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren bigarren artikulua bermatzen du elizek, konfesioek eta erlijio-elkarteek erlijio-xedez kultu- edo bilkura-lekuak ezartzeko duten eskubidea, oinarritzko askatasun hari datzekion zati gisa. Ildo horretatik, Estatuko legeriak kultu-leku edo -zentro gisa definitzen ditu soil-soilik oititz egiteko, erlijio-heziketa emateko edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren eraiki-

nak edo lokalak. Kultu-lekutzat edo -zentrotzat hartzeko ez da aski legez ezarritako helburuak betetzea; horrez gain, helburu horiek betetzen direla egiaztatzen duen ziurtagiria ere behar da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 EAEko Legeak arau zehatzak ezartzen ditu kultu-lekuak edo -zentroak antolatzeko eta irekitzeko. Lege horrek aurreikuspen lotesle bat du hirigintza-diseinuaren ardura duen administrazioarentzat: sistema orokorren sarean erreserba bat ezartzea ezinbestean, ekipamendu kolektibo pribatueterako, besteak beste, erlijio-zentroentzat (54.2e artikulua). Era berean, legearen arabera, tokiko sistemen zuzkidura-sareak izan beharko dituen elementuen artean daude erabilera erlijiosorako "ekipamendu pribatuak (57.2.e artikulua), bat datozenak, bestalde, lege horretan (79. artikulua) hiri-lurzoru finkatugaberako zein lurzoru urbanizagarriko aurreikusitako tokiko sistemen estandarrekin, kasu bietan bizitegi-erabilera duen lurzoruetan.

Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen zabalak ditu hirigintza gaietan, bai eta erlijio-profila izan dezaketen beste gai batzuetan ere, hala nola osasuna, gizarte-laguntza, hezkuntza, komunikabideak, ingurumena edo ondare historiko-kulturala. Autonomia Estatutuaren 9.2 artikulua adierazten du EAEko botere publikoek konpromisoa dutela herritarren oinarritzko eskubideen eta betebeharren erabilera egokia zaintzeko eta bermatzeko; beraz, behar diren neurriak hartu behar dituzte pertsonen eta giza taldeen askatasuna eta berdintasuna zinezko eta benetakoak izateko baldintzak eragiteko eta oztopoak kentzeko. Erlijio-esparruko berdintasun eta askatasun hori gauzatzea lortzen da Konstituzio Auzitegiak "laikotasun positiboa" izendatu duena praktikatzat eta bermatuz; arlo horretan ardura berbera dute botere publiko guztiek, Estatuko, autonomia-erkidegoetako, foru-mailako nahiz tokiko izan. Bestalde, 1978ko Konstituzioaren 16. artikulua agintzen du, agindu edo obligazio bidez agindu ere, botere publiko guztiek lankidetzan aritu behar dutela erlijio-konfesio guztiekin.

Honenbestez, EAEko botere publikoek neurri positiboak hartu behar dituzte —neurri arauemaileak barne—, beren lurraldean oinarritzko eskubideak betetzen direla bermatzeko, eta eskubide horien barruan sartzen da, noski, erlijio-askatasuna. Neurri horiek guztiz bat etorri behar dute bereizkeriarik ezaren printzipioarekin, eta antolamendu juridikoaren printzipio operatiboak errespetatu behar dituzte; horien artean, batik bat, segurtasun juridikoa.

Erlijio-askatasuna baliatzeko eskubidea modurik publikoen, zehatzen eta argienean islatzen da erlijio-aniztasunari erantzuten dioten eta tokiko errealitate sozioerlijioso bakoitzaren arabera irekita dauden leku edo zentro normalizatuetan. Horrek guztiak justifikatzen du erlijio-aniztasuna eta erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubidea babesten dituen araudia onartu beharra, Euskal Autonomia Estatutuaren irakurketa eguneratuaren ondoriozko betebeharrei modu eraginkorrean erantzun ahal dien araudia, alegia.

Lege honek erlijio-askatasunerako eskubidea babesten du, kultu-lekuak edo zentroak ireki eta erabiltzeari dagokionez, berme juridiko handienak dituen oinarritzko eskubidetzat hartuta.

Horregatik, lehenengo kapituluan ezarrita daude legearen xedea, oinarri dituen printzipioak, aplikazio-eremua eta kultu-lekuen edo -zentroen definizioa.

Legearen bigarren kapituluan, erlijio-xedeetarako titulartasun publikoko ekipamenduaren edo espazioen noizbehinkako erabilera arautzen da, bai eta Hiri-Antolamenduko planen erlijio-erabileren zehaztea ere.

Hirugarren kapituluko artikuluek, berriz, zehatzen dituzte hirigintzako lizentziei, kultu-lekuen edo -zentroen irekiera-komunikazioari, sailkatutako jardueren erregimenaren aplikazioari, beste jarduera-baimen batzuei, kultu-lekuek edo -zentroek bete beharreko baldintza tekniko eta materialei buruzko arauak, bai eta irekitzeko baldintzak ez betetzearen aurkako neurriak ere.

Legearen laugarren kapituluak Euskadiko Erlijioen Kontseiluaren sorrera arautzen du, lehentasunezko esparrua erlijioen elkarbizketa eta elkarbizitza duelarik. Aholkua ematea eta txostenak egitea izango ditu eginkizun erlijio-askatasunaren eta kultu-askatasunaren erabilerari eragin diezaioketen Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoen ekimen eta erabakietan. Erlijioen Euskadiko Kontseilua Euskadiko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboaren eragile sustatzailea izango da. Erakundeen, erlijio-aitorpenen, erakunde akademikoaren eta gizarte zibileko erakundeen elkargune gisa egituratzen da. Elkarriketarako eta adosta-

sunerako foro gisa eratuta dago, eta gure gizartearen aniztasuna babesteko eta sustatzeko diren diagnostikoak jakinaraztea eta jarduerak proposatzea du xede.

Azken batean, legeak erantzun arauemaile koherentea, bideragarria eta gure antolamenduaren printzipioekin bete-betean bat datorrena eman nahi dio oinarrizko eskubide bati estu-estu lotuta dagoen errealitate sozial berri horri, eta, hala, Estatutuaren agindua bete, alegia, gizarte demokratiko eta plural honetan gogotik bultzatzea herritar guztien eta herritarrek beren eskubideak baliatuz osatzen dituzten taldeen berdintasun benetakoa eta eraginkorra lortzeko.

LEHENENGO KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Xedea

Lege honen helburua da bizikidetzaz eta erlijio-aniztasuna babestea, elkarriketarako eta adostasunerako mekanismoak ezartzea erlijio-askatasunaren kudeaketa positiboa eginez, eta, kultu-lekuak edo zentroak ireki eta erabiltzeko dagokionez, erlijio-askatasunaren oinarrizko eskubidea bermatzea pertsonei eta elizei, konfesioei eta erlijio-elkarteei, inolaz ere onartu gabe bereizkeriak egitea elizen, konfesioen eta erlijio-elkarteen artean.

2. artikulua. Printzipioak eta eskubideak

1. Lege honen printzipioak honako hauek dira:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoan erlijio- eta kultu-askatasunaz banaka zein taldean baliatzeko berme eraginkorra ematea. Eskubide horietaz baliatzeko mugak Erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera baino ezin izango dira ezarri.
- b) Euskal gizartean dauden erlijio-elkarte eta -konfesioen arteko tratu-berdintasuna bermatzea, bai kultu-lekuak edo zentroak irekitzeko dagokionez, bai lege honen arabera ezarritako funtzionamendu-kontrolari dagokionez.
- c) Segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzarik hoberenak bermatzea eta ezartzea kultuko eta beste erlijio-erabilera batzuetarako lekuak edo zentroak irekitzeko eta erabiltzeko orduan, indarreko arau-esparruak ezarritakoarekin bat etorrira.
- d) Euskal Autonomia Erkidegoan dauden elizek, konfesioek eta erlijio-elkarrekin berdinean erlijio- eta kultu-askatasunaz baliatzeko lekuak edukitzeko duten eskubidea.

2. Lege honen ondorioetarako, honela ulertuko da erlijio- eta kultu-askatasuna baliatzeko eskubidean gertatzen den zuzeneko edo zeharkako bereizkeria:

- a) Zuzeneko bereizkeria gertatzen da eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte batek, kultu-lekuen edo -zentroen irekierarekin eta funtzionamenduekin lotutako alderdiren batean, tratu desberdina jasotzen duenean beste eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte batek antzeko egoera batean jaso duenaren aldean, baldin eta tratu-desberdintasunak alde hori modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzen duen bidezko helburu bat ez badu eta helburu hori lortzeko erabilitako baliabideak beharrezkoak eta egokiak badira.
- b) Zeharkako bereizkeria gertatzen da udalaren hirigintza-antolamenduko plan batek, lizentzia edo emakida batek edo itxuraz neutroa den irizpide edo praktika batek desabantaila berezi bat eragiten dionean eliza, erlijio-konfesio edo erlijio-elkarte bati beste batzuen aldean, kulturako leku edo zentro

bat edukitzeko eskubidean. Ez dago zeharkako bereizkeriarik jarduketak hura modu objektibo eta arrazoizkoan justifikatzen duen bidezko helburu bat badu eta helburu hori lortzeko erabilitako baliabideak egokiak eta beharrezkoak badira.

3. artikulua. Aplikazio-eremua

1. Lege hau aplikatuko zaie Erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoaren aplikazio-eremuan sartzen diren kultu-lekuei edo -zentroei, bai eta noizean behin erlijio-jardueraren baterako erabiltzen diren gune eta ekipamendu publikoei ere.

2. Lege honen aurreikuspenak ez zaizkie aplikatuko titulartasun publikoko ospitaleetako, laguntza-zentroetako, ikastetxeetako, hilerrietako, beilatokietako eta espetxeetako kultu-lekuei edo -zentroei, ez eta titulartasun pribatuko nahiz titulartasun publikoko beste jarduera nagusietara zuzendutako guneei ere, horiek guztiek dagokien araudiaren arabera arautzen baitira; dena dela, aplikatzeko garaian, lege honen iturburu diren printzipioak hartuko dira aintzat.

3. Lege hau ez zaie aplikatuko Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden kultu-lekuei edo -zentroei ere, Euskal Kultur Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakoaren bidez arautzen direnei..

4. artikulua. Kultu-lekuaren edo -zentroaren definizioa

Kultu-lekutzat edo -zentrotzat hartzen dira jendearentzat zabalik dauden eta nagusiki eta modu iraunkorrean kulturako, erlijio-xedeko bileretarako eta erlijio-heziketa edo erlijio-laguntza emateko erabiltzen diren eraikinak, lokalak edo areto erantsiak, titulartasun publikoa nahiz pribatua dutelarik, baldin eta, Erlijio-askatasunari buruzko uztailaren 5eko 7/1980 Lege Organikoak ezarritakoarekin bat, berariaz halakotzat aitortu baditu dagokion elizak, konfesioak edo erlijio-elkarteak, zeinak nortasun juridikoa eduki behar baitu.

BIGARREN KAPITULUA

ERLIJIO- ETA KULTU-ASKATASUNA HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAREN ESPARRUAN

5. artikulua. Titulartasun publikoko ekipamenduak edo guneak noizean behin erlijio-xedeetarako erabiltzea

1. Noizean behin erlijio-jarduerak gauzatzeko, administrazio publikoek, kasuaren arabera aplikatzekoa zaien araudiarekin bat etorruta, tratu berdina emango diete erlijio-konfesio eta -elkarte guztiei, arlo hauetan:

- a) Ekipamendu eta gune publikoen erabilera pribatiborako lagapenak eta baimenak.
- b) Jabari publikoaren erabilera pribatiboa.
- c) Bide publikoaren aldi baterako okupazioa.
- d) Ondare-ondasunen lagapena.

2. Aurreko zenbakian aipatzen den jabari publikoaren erabilera pribatiboari dagokionez, konfesio batek baino gehiagok erabiltzeko lekuak, lokalak edo eraikinak bideratu ahal izango dituzte udalek, lege honetan aipatzen diren jarduerak noizean behin egiteko, baldin eta jabari publikoko ondasunaren okupazioa instalazio desmuntagarriekin edo ondasun higigarriekin egiten bada.

6. artikulua. Erlijio-erabilerak zehaztea hiri-antolamenduko udal planetan

1. Lege honen helburuak betetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek hiri-antolaketaarako aurrerantzean onartuko dituzten planek kulturako eta erlijio-laguntza emateko lekutzat erabiltzeko erreserbak egin beharko dituzte erlijio-erabilerarako ekipamendu kolektibo pribatuetaarako, dagoen lurzorua kontuan hartuta, eta udal-erri bakoitzean dauden premien arabera.

2. Obligazio hori betetzeko, udalek ezingo dute jardun erlijio- eta kultu-askatasunaren oinarritzko eskubidean bereizkeria zuzeneko nahiz zeharkakorik edo mugatze arbitrarioak eragiten duten irizpideekin; erreserbak egin beharko dituzte erlijio-erabilerarako ekipamendu kolektibo pribatuetaarako, dagoen lurzorua kontuan hartuta, eta udal-erri bakoitzean dauden premien arabera.

3. Nolanahi ere, udalek beren hirigintza-ahalmenak baliatu ahal izango dituzte, erlijio-erabilerarako ekipamendu kolektibo pribatuetaarako erreserbak erabakitzeko, dagoen lurzorua kontuan hartuta eta udal-erri bakoitzean dauden premien arabera, betiere herritarren interes orokorra zainduz eta elkarbizitza sustatuz; horretarako, erlijio-elkarteen erlijio- eta kultu-askatasuna eta pertsona guztien duintasuna eta eskubideak errespetatzen dituzten erabakiak eta neurriak hartuko dituzte.

4. Udalen hirigintza-antolamenduko prozesuetan, nortasun juridikoa egiaztatzen duten elizek, erlijio-konfesioek edo erlijio-elkartek parte hartuko dute kultu-lekuetarako eta erlijio-ekipamenduetarako erreserbatutako guneak zehazteko eta esleitzeko prozeduretan, hirigintza arloko legedian aurreikusitako kasuetan eta moduan.

5. Erlijio-erabileretarako lurzorua zehazteko eta esleitzeko prozeduran, indarrean dagoen hirigintza-araudi autonomikoa aplikatuko da, bai eta dagokion foru-araua eta garatzen diren erregelamenduzko xedapenak eta udal-ordenantzak ere.

HIRUGARREN KAPITULUA

HIRIGINTZA-LIZENTZIAK, KULTU-LEKUAK EDO -ZENTROAK IREKITZEKO KOMUNIKAZIOA, SAILKATUTAKO JARDUEREN ERREGIMENAREN APLIKAZIOA ETA BESTE BAIMEN BATZUK

7. artikulua. Kultu-lekuentzat edo -zentroentzat ezinbestekoak diren hirigintza-lizentziak

Kultu-lekuek edo -zentroek eta gainerako erlijio-ekipamenduek bete beharko dute hirigintza-araudian ezarritako hirigintza-lizentziei buruzko araubide orokorrean ezarritakoa, lokalak irekitzeko zein lokalak eraikitzeko eta egokitzeko obretarako.

8. artikulua. Kultu-leku edo -zentro berri bat irekitzeko komunikazioa

Jendeari irekitako kultu-leku edo -zentro berri bat irekitzeko, komunikazio-araubidea bete beharko da, Tokiko Administrazioaren arrazionalizazioari eta iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak hamaizpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorruta (edo hori gerora garatu edo aldatuko duen arauaren arabera). Kultu-leku edo -zentro bat ireki baino lehen, aldeztu behar da aurretik komunikazio bat aurkeztu behar zaio udalari, Erlijio Erakundearen Erregistroak ematen duen ziurtagiriarekin batera (zeinean egiaztatzen baita elizaren, erlijio-konfesioaren edo erlijio-elkartearen nortasun juridikoa), eta kultu-zentroaren kokapena azaltzen duen ziurtagiriarekin.

9. artikulua. Udalaren esku-hartzea jarduera sailkatuen arloan, kultu-lekuak edo -zentroak eta gainerako erlijio-ekipamenduak irekitzeko

1. Kultu-lekuak edo -zentroak eta gainerako erlijio-ekipamenduak ireki eta funtzionamenduan jartzeko, bete beharko da Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legeak arautzen duen sailkatutako jarduera eta instalazioen araubidea edo araubide hori gerora garatzen edo aldatzen duen araudia.
2. Eusko Jaurlaritzak, erregelamendu bidez, behar diren mekanismoak ezarriko ditu aurreko artikuluan aurreikusitako komunikazioa eta sailkatutako jardueren edo hirigintza-araudiaren ondoriozkoak diren jardueren erregimenetik eratorritako beste prozedura batzuk integratzeko.

10. artikulua. Beste baimen batzuk

Kultu-lekuetan edo -zentroetan gauzatu daitezkeen beste jarduera jakin batzuei dagokienez, aplikatu beharreko sektore-arauetan ezartzen diren baimenak eduki behar dituzte.

11. artikulua. Segurtasunari eta osasungarritasunari buruzko baldintza materialak eta teknikoak, kultu-lekuek edo -zentroek nahitaez bete beharrekoak

1. Jendeari irekitako kultu-lekuek edo -zentroek behar diren baldintza materialak eta teknikoak eduki behar dituzte, indarrean dagoen araudia betez, erabiltzaileen segurtasuna eta instalazioen higiena bermatzeko, bai eta hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko ere.
2. Eusko Jaurlaritzak erregelamendu bat onartuko du jendeari irekitako kultu-lekuek edo zentroek bete behar dituzten segurtasun, osasungarritasun, irisgarritasun, babes akustiko, edukiera eta ebakuazioko gutxieneko baldintza teknikoak eta materialak ezartzeko, bai eta hirugarrenei eragozpenik ez sortzeko ere, aretoen tamaina eta kokapena kontuan hartuta.
3. Baldintza horiek, kasu guztietan, ezarriak izan diren helburuarekiko egokiak eta neurrikoak izan behar dute, eta ezingo dute inola ere eragotzi edo zaildu, era arbitrarioan edo arrazoirik gabe, areto horietan gauzatzen den jarduera.

12. artikulua. Kultu-lekuak edo -zentroak irekitzeko baldintzak ez betetzearen kontrako neurriak

1. Dagokion udalak eskatuko du indarrean dagoen araudian aurreikusitako baldintza tekniko eta material guztiak bete daitezela.
2. Baldintza horiek betetzen ez badira, udalak kultu-zentroaren edo -lekuaren titular den erakunde erlijiosoari, antzemandako gabezia zuzendu dezan, horretarako lege ezarritako epea emango dio, behar diren obren ezaugarrien eta baldintza teknikoaren arabera.
3. Emandako epean eskaria betetzen ez bada, udalak, ebazpen arrazoitu bidez eta eragindako erlijio-entitateari entzun ondoren, kultu-zentroa itxi edo zigilatu ahal izango du, kultu-zentroak hirigintzako lizentzia izan arren edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu arren, baldin eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna edo osasungarritasun publikoa arriskuan jartzen duten gabeziak baditu.
4. Aurreko neurriek, horiek hartzeko arrazoiak mantentzen diren bitartean mantenduko dira.

5. Hala ere, erlijio- eta kultu-askatasunaren erabilera bermatzeko, udalbatzak, ebazpen arrazoitu baten bitartez, establezimendua ixteko neurria ordeztzea erabaki ahal izango du, eta, neurri horren ordeztze, instalazioen zati bat zigilatzea erabaki ahal izango du, baldin eta pertsonen segurtasuna eta osasungarritasuna bermatuta geratzen bada.

6. Agindu hau betetzeko hartzen diren neurriek ez dute zehapen-izaerarik izango, hargatik eragotzi gabe izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak. Neurri horien helburua, soil-soilik, oinarritzko eskubideak babestera eta pertsonen segurtasuna eta osasuna zaintzea izango da, bai eta ingurumena babestea ere.

LAUGARREN KAPITULUA

EUSKADIKO ERLIJOEN KONTSEILUA SORTZEA

13. artikulua. Euskadiko Erlijioen Kontseilua sortzea, kontsulta-organo bezala

1. Euskadiko Erlijioen Kontseilua sortuko da, euskal erakundeek eta erlijio-konfesio eta erlijio-elkarte desberdinen arteko elkarriketa eta erakundeek arteko lankidetzarako organo bezala. Kontseiluaren helburua erlijioen eta kulturen elkarbizitza babestea eta bultzatzea da, oinarritzat hartuta erlijio-aniztasunari eta erlijio guztien eskubideei eta betebeharrak zor zaien errespetua.

2. Euskadiko Erlijioen Kontseiluak aholku-izaera izango du; aholkuak eta irizpenak emango ditu berariaz erlijio-askatasunaren eta kultu-askatasunaren erabilerari eragin diezaioketen Euskal Autonomia Erkidegoko bere publikoen ekimen eta erabakietan.

3. Kontseilu horretan, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiak, udalak eta erlijio-konfesioek ordezkariak izango dituzte, eta lege honen aplikazioan interes kualifikatua duten herritar-elkarteak eta zenbait aditu ere izango dira bertan.

4. Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez zehaztuko dira Euskadiko Erlijioen Kontseiluaren osaera, eginkizunak eta funtzionamendu-arauak. Eraketa horretan, gaikuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeek eta gizonen ordezkariak orekatua sustatuko da.

14. artikulua. Eginkizunak

Euskadiko Erlijioen Kontseiluak honako eginkizun hauek izango ditu, besteak beste:

- a) Euskal instituzioei aholkularitza ematea eta erlijio-askatasuna baliatzeko eta bereizkeria oro saihesteko politikak garatzen laguntzea.
- b) Euskal instituzioei aholkularitza ematea eta haiei laguntzea erlijioen eta kulturen arteko elkarbizitza integratu eta integratzailea sustatzen, zeina erlijioan oinarritutako terrorismo, indarkeria, arrazakeria, xenofobia edo beste inposatze, derrigortze edo bereizkeria mota ororen aurkakoa baita.
- c) Txostenak eta irizpenak egitea, instituzioek edo erlijio-elkarrekin eskatuta.
- d) Kultu-lekuak edo -zentroak irekitzeko prozedura hasi baino lehen, erakundeek eta erlijio-aitorpenek planteatzen dituzten kontsultei buruz aholkatzea.
- e) Udalen hirigintza-plangintzen jarraipena egitea, elizak, konfesioak eta erlijio-komunitateak eta haien beharrak Euskadiko udalerrietan duten presentziaren diagnostikoak eta mapak egiteko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo xedapen gehigarria. Egoitza Santuarekiko eta beste eliza, erlijio-konfesio eta erlijio-elkarte batzuekiko akordioak

Lege honetan ezarritakoak ez ditu eragozten Egoitza Santuarekin izenpetutako akordioak, ez eta Estatuak elizekin, erlijio-konfesioekin eta erlijio-elkarteekin sinatutako lankidetzak-akordioak onartzen dituzten lege-mai-lako arauak ere.

Bigarren xedapen gehigarria. Lizentzia lortzeko egiaztapena

Beren jarduera Euskal Autonomia Erkidegoan gauzatzen duten elizek, erlijio-konfesioek eta -elkarteek Erlijio Erakundeen Erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, hirigintza-lizentzia eskatzeko eta kultu-lekuak edo -zentroak irekitzeko komunikazioa aurkezteko edo 5. artikuluan aipatzen den noizean beingo erabilerarako lagapena edo baimena eskatzeko.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengo xedapen iragankorra. Udalaren hirigintza-antolamenduko planak lege honetara egokitzea

1. Seigarren artikuluan ezartzen den eskakizuna aplikagarri zaie lege hau indarrean jartzen den unean izapidetze-egoeran edo berrikuste-prozesuan dauden eta behin betiko onarpena oraindik jaso ez duten hiri-antolamenduko planei ere.
2. Udal mailako hirigintza-antolamenduko plana 6. artikuluko zehaztapenetara egokituta ez daukaten udalerriek, ahal dela, plana zehaztapen haietara egokitu beharko dute, lege hau indarrean jarri ondoren onartzen den hirigintza-plangintzaren lehenengo berrikuspenean.
3. Udalerriek, edozein kasutan, lege honen 6. artikulura egokitu behar dute beren antolamendu orokorra, indarrean jartzen denetik 8 urteko epean.

Bigarren xedapen iragankorra. Kultu-lekuen edo -zentroen baldintza teknikoak eta materialak egokitzeko aldia

Lege hau indarrean jartzean 11. artikuluan aipatzen diren gutxieneko eskakizun materialak eta teknikoak betetzen ez dituzten kultu-lekuek edo -zentroek erregelamendu bidez ezarriko den epea izango dute egokitzapen horiek egiteko.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetakko lehenengoa. Araudiaren garapena

Eskumena duten organoen ekimenez, Gobernuak emango ditu lege hau garatzeko beharrezkoak diren arauak.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarrean jartzea

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeiei egunera jarriko da indarrean.



2. dokumentua

Eusko Jaurlaritzaren
Jarduera-Programa bizikidetza
sustatzeko Euskadiko
komunitate islamikoekin
lankidetzan

Eusko Jaurlaritzaren

Jarduera-Programa bizikidetza sustatzeko Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan

Nazioarteko terrorismoari, arrazismoari,
xenofobiari eta islamofobiari aurre egiteko tresna:

**giza eskubideen
aldeko konpromiso partekatua**



Sailarteko lantaldea
2018ko apirilaren 10a

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

Atarikoa.

Lehen atala.

Esparru orokorra.

1. Premisak.

- 1.1. Nazioarteko erakundeen ebazpenekin bat egitea.
- 1.2. Mugen eta aukeren esparrua onartzea.
- 1.3. Konplexutasuna eta huts egiteko aukera onartzea.
- 1.4. Gure gizartearen ahulguneak eta indarguneak identifikatzea.

2. Erronka estrategikoa.

3. Helburuak.

- 3.1. Helburu orokorrak.
- 3.2. Helburu espezifikoak.

4. Irizpideak.

- 4.1. Oinarrizko eskubideen eta askatasunen esparrua.
- 4.2. Erlijio-askatasunerako eskubidea.
- 4.3. Arau-esparrua eta nazioarteko estandarrak.
- 4.4. Adostasuna.
- 4.5. Genero-berdintasuna.
- 4.6. Parte-hartzea eta elkarlana.
- 4.7. Jardunaren ardatzak.

5. Euskadiko komunitate islamikoekin akordio estrategikoak egiteko proposamenak.

Bigarren atala.

Lan-plangintza.

I. Jardunaren lehen ardatza.

Euskadi: gizartearen kohesioa eta kulturen eta erlijioen integrazioa.

- I.1. Oinarriak.
- I.2. Jardun-ildoak.
 - I.2.1. Oinarri-akordioak.
 - I.2.2. Proiektuak.

II. Jardunaren bigarren ardatza.

Segurtasuna eta polizia-lanak (prebentzioa eta erantzuna).

- II.1. Oinarriak.
- II.2. Jardun-ildoak.
 - II.2.1. Oinarri-akordioak.
 - II.2.2. Proiektuak.

III. Jardunaren hirugarren ardatza.

Prebentzioa gizartean eta hezkuntzan erradikalizazio biolentoa ez gertatzeko.

- III.1. Oinarriak.
- III.2. Jardun-ildoak.
 - III.2.1. Oinarri-akordioak.
 - III.2.2. Proiektuak.

IV. Jardunaren laugarrena ardatza.

Jarrera politikoa EAEn eta nazioartean.

- IV.1. Oinarriak.
- IV.2. Jardun-ildoak.
 - IV.2.1. Jarrera politikoa EAEn.
 - IV.2.2. Jarrera politikoa nazioartean.

Atarikoa

Eusko Jaurlaritzak erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren mehatxuaren aurrean jarduteko ezarri duen abiaburua finkatzen du 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak. Mehatxu honi arreta bizikidetzaren eta giza eskubideen erronketako bat bezala kokatzen du Planak. Zehazki, horrela adierazten du.

(...) Estrategia zehatz bat behar da, integrala eta zentzuduna, arreta batez ere prebentzioan ipintzen duena eta atentatuaren kausak eta horiek posible egiten dituzten inguruabarrak aztertzen dituena, bai eta ondorioak ere. Horrenbestez, erantzun koordinatuak eman behar dira, bai nazioartean, bai toki bakoitzean, eta epe laburrerako, ertainerako eta luzerako ekintzak abiarazi beharko dira.

Eusko Jaurlaritzak esparru honetan duen jarrera printzipio demokratikoen, segurtasunaren eta giza eskubideen alde hartutako konpromisoak zehazten du. Bi ildoren arteko loturak deskribatzen du Jaurlaritzaren jarrera zehatza: batetik, denboran zehar iraungo duen dimentsio anitzeko erantzuna eman beharra nazioarteko terrorismoaren egiturazko kausak aztertzeko; bestetik, terrorismo horren ahalmenari aurre egiteko alde anitzeko erantzuna eman beharra (...).

Euskadin, hainbat hamarkadaren ostean, indarkeriaz eta terrorismoaz betetako garai ilun eta traumatiko batetik irten berri gara. Sufrimenduak eta bidegabekeriak utzitako zauri ugari daude oraindik, eta sendatu egin behar dira. Gainera, krisialdi ekonomiko larria bizi dugu, mundua, aldi berean, eraldaketa-prozesu sakon eta zalantza betetako batean dagoela. Horiek guztiek bat egin dute eta egoera sozial berria sortzen ari dira.

Giro aldakor honek eragin zuzena eduki du herritarrek ETAre indarkeriaren amaierako agendaz duten ustean; izan ere, jendearen jarrera azkar "zaharkitu" da. Aldi berean, bai mundu globalizatuan, bai gure esparruan, kezka-agenda berria finkatu da, XXI. mendeko errealitateak eraginda.

Sortzen ari diren eztabaidak dira, aniztasunaren eta elkartasunaren moduko balioen kudeaketarekin zerikusia dutenak, eta iheslariengan, migrazioetan, erlijio- edo kultura-pluraltasunean, bazterkeria eta injustizia berrietan, edo nazioarteko terrorismoaren edo gerraren mehatxuari ematen zaizkion erantzunetan islatzen dira.

Geroz eta kezkagarriagoak diren arazo horiek ezin dira diskurtso irmo baten zoru finkoan ezarri. Lur labainkorretan mugitzen dira; sortu arte eztaba daezintzat genituen printzipioak zalantza jartzen dituzten jarrera-eztabaidak eragin dituzte, eta horrek oinarritzko balioez, eskubideez eta askatasunez uste dugunari eragiten dio.

Horren ildotik, XI. Legegintzaldiaren hasieran Eusko Jaurlaritzak jakinarazi zuen eskubideen gaine-ko ikuspegia bere ekintza guztietan indartzeko asmoa zeukala, modu orokorrean eta sailarteko lanaz baliatuz.

Esparru honetan, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak 2017ko ekainaz geroztik bere gain hartu du xede jakin bat daukan sailarteko lantalde baten koordinazioa: nazioarteko terrorismoaren aurrean Eusko Jaurlaritzak abiaraziko dituen politika sektorialak ildo bakar batetik bideratuko dituen esparru-dokumentua prestatzea. Dokumentuaren helburua da arlo honetan aplikatzen ari diren politika publikoak, eta hemendik aurrera ezartzen direnak, bideratzen, bateratzen eta egokitzen laguntzea.

Lantalde horren sorrera nazioarteko terrorismoaren mehatxuaren larritasunari eta garrantziari lotuta egon da, jakina, bai eta erlijioaren ikuspegitik hartaz baliatzeari eta, batik bat, horrek guztiak gure gizartean bizi diren kultura edo erlijio desberdinetako pertsonengan eduki lezakeen eraginari ere.

Sailarteko lantalde hori ez zen hasi lanean ezerezetik; aitzitik, hainbat organok egindako lana eta garatutako politika publikoak hartu zituen abiaburutzat, besteak beste: Segurtasun Sailak, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Hezkuntza Sailak, Lan eta Justizia Sailak, Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentziak, Kanpo Ekintzako Idazkaritza Nagusiak eta Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak egindakoak.

Horrenbestez, dokumentu honen helburua da prebentzioaren, erantzunaren eta integrazioaren arloetan abiarazten diren ekimenak eta proiektuak harmonizatzea, partekatutako oinarriak eta helburuak aintzat hartuta. Horrez gain, badaude beste xede batzuk ere: bikoiztasunak saihestea, ahaleginak eta baliabideak optimizatzea, prestatzen diren ekintzak erraztea eta ekintza berriak ezartzea.

Dokumentuak bi atal dauzka, ongi bereizita. Lehenean Jarduera-Programaren esparru orokorra eta estrategia azaltzen dira. Puntu hauek lantzen dira: premisak, erronka estrategikoa, helburuak, irizpideak eta akordio estrategikoen proposamenak.

Bigarren atalean lan-plangintza xehatzen da. Egitura jardunaren ardatzen arabera da: lehen ardatza, *Euskadi: gizartearen kohesioa eta kulturen eta erlijioen integrazioa*; bigarrena, *Segurtasuna eta polizia-lanak (prebentzioa eta erantzuna)*; hirugarrena, *Prebentzioa gizartean eta hezkuntzan erradikalizazio biolentoa ez gertatzeko*; laugarrena, *Jarrera politikoa EAEn eta nazioartean*.

Egitura horrek lan-proiektu bat gauzatzeko moduari erantzuten dio, batez ere. Lau ardatzok ez dira loturarik gabeko arloak, baizik eta norabide berean ezarri ondoren elkarri lotuta dauden jardun-esparruak. Adibidez, lehen ardatzaren izenburuan *integrazioa* aipatzen da (kulturena eta erlijioena). Eta beste hiruretan ere badu eragina. Gauza bera gertatzen da *prebentzioa* hitzarekin. Beraz, Programa hau, sailarteko batzorde batek dinamizatuko duena, Eusko Jaurlaritza osoak zeharka eta koordinatuta jarduteko gida da.

Beste alde batetik, Programa idaztean kontuan eduki da ez garela orri zuriaren gainean hasi. Izan ere, EAEko erlijio-entitateek, gizarte zibileko elkarteek eta beste erakunde batzuek urrats baliotsuak eman dituzte jada Programa honetan proposatzen denaren antzeko ildo batetik. Ikuspegi horretatik, Programaren asmoa da tresna baliagarria izatea arlo honetan herritarren, politikarien eta erakundeen sinergia sustatzeko eta lankidetzara iraunkorrean aritzeko.

Gainera, arrazoi beragatik, dokumentu hau elkarriketarako irekitako proposamen gisa aurkeztu zen. Elkarriketa Euskadiko komunitate islamikoekin, beste erlijioekin, foru-aldundiekin, EUDELekin eta Udalekin, Eusko Legebiltzarrekin eta Legebiltzarreko taldeekin eta elkarteekin sarearekin.

Jendaurrean aurkeztu zenetik 2017ko azaroan, lau hileko aldia zabaldu zen ekarpenak eta proposamenak biltzeko. Behin aldi hori amaitutakoan Eusko Jaurlaritzak esparru-dokumentu hau onartu du, jasotako ekarpenei jarraikiz egindako aldaketak sartuta.

Lehen atala

Esparru orokorra

1. Premisak

Jarduera Programa honen esparru orokorra eta estrategia aurkeztu baino lehen kontuan hartu beharreko premisak azaldu behar dira, baldintzak eta mugak ezartzen baitituzte. Hain zuzen ere, lau erreferentziak taxutzen dute Eusko Jaurlaritzaren jarrera estrategikoa erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean jarduteko.

1.1. Nazioarteko erakundeen ebazpenekin bat egitea

Eusko Jaurlaritzaren arlo honetako erreferentzia-esparrua terrorismoaren inguruko nazioarteko akordioek eta ebazpenek finkatzen dute. Horren ildotik, berebiziko garrantzia dute nazioarteko erakundeen lau ebazpen hauek (ildo nagusiak giza eskubideak ardatz hartu beharra eta koordinazioa lehenestea dira):

·Nazio Batuen terrorismoaren aurkako estrategia globala

Batzar Nagusiak Nazio Batuen terrorismoaren aurkako estrategia globala onartu zuen 2006ko irailaren 8an. Horren bidez, Nazio Batuen Erakundeko estatu guztiek baterako ildo estrategiko eta operatiboa hitzartu zuten lehenengoz. Hainbat neurri ezartzen ziren, bai estatuak terrorismoaren mehatxuei aurre egiteko gaitasuna indartzeko neurriak, bai Nazio Batuen ekintzak hobeto koordinatzeko neurriak, besteak beste. Estrategia global horrek eta beraren ondoriozko Jarduera Planak lau zutarrak dituzte:

- Terrorismoaren zabalkundea bultzatzen dituzten inguruabarrei aurre egitea.
- Terrorismoa prebenitzea eta bere aurka borrokatzea.
- Erakundeko estatuak terrorismoa prebenitzeko eta bere aurka borrokatzeko duten gaitasuna lantzea eta Nazio Batuen sistemaren arlo honetako egitekoa indartzea.
- Mundu osoan giza eskubideak eta zuzenbide estatua errespetatzen direla bermatzea, ezinbestekoak baitira terrorismoaren aurka borrokatzeko.

·60/158 Ebazpena, Nazio Batuen Batzar Nagusiarena

2005eko abenduaren 16an Nazio Batuen Batzar Nagusiak 60/158 Ebazpena onartu zuen, terrorismoaren aurkako borrokan giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak babesteari buruzkoa. Ebazpen horretan muga batzuk ezartzen dira, terrorismoaren aurkako borrokan errespetatu beharrekoak zuzenbide estatua gerta ez dadin terrorismoaren biktimak.

·Europar Batasunaren estrategia terrorismoaren aurkako borrokarako

2005eko azaroaren 30ean Europar Batasunak terrorismoaren aurkako borrokarako estrategia zehazten duen erabakia hartu zuen. Erabakiaren abiagunea konpromiso estrategiko hau da: "Terrorismoaren aurka modu globalean borrokatzea, baina giza eskubideak errespetatzen direla eta, aldi berean, Europaren segurtasuna hobetzen dela, herritarrak askatasunean, seguru eta justiziarekin bizi ahal izan daitezen". Estrategia horrek funtsezko lau oinarri dauzka: prebenitzea, babestea, jazartzea eta erantzutea. Helburua terrorismoaren mehatxuari, alderdi guztietan, erantzun globala, integrala eta proportzioskoa ematea da.

·Europar Batasunaren estrategia globala kanpo politikarako eta segurtasunerako

2015eko ekainean Kontseilu Europarrak Batasunaren atzerri-politika eta segurtasun-politikako goi-ordetzariari agindu zion presta zezala estrategia berria. 2016ko ekainean aurkeztu zitzaizen Batasuneko buruzagiei. Estrategia horretan honela zehaztu ziren indarkeria-mehatxuen aurrean jarduteko lehen-tasunak: "Batasunak konpromisoa hartuko du modu praktikoa eta lehentasunarekin lan egiteko bakea lortzeko eta herritarren segurtasuna sustatzeko ikuspegi globalarekin. Ezinbestekoa da aplikatzea 'ikuspegi globala krisiak eta gatazkak kudeatzeko', eta horretarako modu koherentean baliatu behar dira Batasunak eskura dituen politika guztiak. Nolanahi ere, 'ikuspegi global' horren adiera eta irismena are gehiago zabalduko dira. Batasunak gatazka-zikloaren fase guztietan jardungo du: prebentzioan azkar jardungo du, krisiei ardurarekin eta erabakimenarekin erantzungo die, egonkortasunaren alde egingo du eta desmobilizazioa eragotziko du beste krisi bat agertzen denean. Batasunak gobernantzaren maila guztietan jardungo du: Siriakoa eta Libiakoa moduko gatazkek hainbat ondorio-esparru dituzte

(tokikoak, nazionalak, erregionalak, mundu osokoak), eta denei heldu behar zaie. Azkenik, Batasunak ezin ditu bere kabuz konpondu halako gatazkak. Bake iraunkorra lortuko bada, ezinbestekoa da akordio orokorrak erdiestea, oinarrietan nazioarteko lotura eta lotura erregional zabal, sakon eta iraunkorrak dituztenak. Batasunak lotura horiek aldeztu eta bultzatuko ditu”.

1.2. Mugen eta aukeren esparrua onartzea

Eskualde edo nazio bakoitzean egin daitekeen lanaz harago heldu behar da; horregatik, ezinbestekoa da nazioarteko terrorismoaren mehatxuari nazioartean erantzutea. Nazioarteko terrorismoari erantzun eraginkorra eta integrala emango bazaio, honako gai hauek lehentasunekoak dira, besteak beste:

- erabaki egokiak hartzea erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren mehatxupean dauden herrialde guztietako polizia- eta inteligentzia-zerbitzuak eraginkortasunarekin koordinatu ahal izateko;
- egitura terroristei dauden tokietan aurre egitea, haien hornidura-baliabideak eta finantza-iturriak deuseztatzea, eta propaganda eragozteak;
- neurri egokiak ezartzea terrorismoa finantzatzen duten herrialdeak horretan ez aritzera behartzeko, eta komunitate islamikoaren barrutik erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoari aurre egiten dioten mugimenduei laguntzeko;
- gatazka bortitz berrien piztea saihesteko eta daudenei amaiera emateko beharrezko borondate politikoa aktibatzea eta baita Mediterraneoaren inguruko herrialde batzuen egonkortasuna eta demokrazia lortzeko ahaleginak sustatzea, eta beste batzuen autoritarismorako joeren kontra egitea ere.

Nazioarteko terrorismoa fenomeno konplexua eta globala da. Horrenbestez, Euskadiko gobernauk horri erantzuteko daukan ahalmena bere lurralde-esparruaren eta eskumenen menpean dago. Eusko Jaurlaritzak bat egin dezake nazioarteko politika jakin batzuekin, baina esku hartzeko ahala mugatuta dauka, ezinbestean.

Dena den, horrek ez du esan nahi ezin duela ezer egin. Ez daukagu honen aurrean pasibo egotarik. Guk geurea eman dezakegu. Guztia ez dago gure esku, baina gure esku dagoen guztia egin dezakegu. EAEko erakundeek eta euskal gizarteak beren baliabideak eta beren eskumenak, ahalak eta aukerak har ditzakete oinarritzat, eta horrela jokatu behar dute.

Eusko Jaurlaritzak lau eremutan egin dezake bere ekarpena: EAEko gizarteko kultura eta erlijio guztien integrazioa; polizia-erantzuna Euskadin; erradikalizazio biolentoaren prebentzioa gure eremuan; euskal ekarpena nazioarteko ahaleginetara.

1.3. Konplexutasuna eta huts egiteko aukera onartzea

Herritarren ikuspuntutik kezkarik handiena da azken urteotan izan direnak bezalako atentatu izugarri gehiago ez gertatzea. Inork ez du nahi halakorik gertatzea, ez bere inguruan, ez munduko beste inon. Fenomenoa zabalagoa eta konplexuagoa bada ere, herritarren kezka nagusi hau prozesuaren azken urratsean sortzen da: badaude pertsona batzuk, ezen gertu baitaude kalean indar-ekintza izugarriak aurrera eramateko babesik gabe dauden pertsonen kontra.

Nazioarteko terrorismoaren jardun-sistemako ekintza horiek oso konplexuak dira. Xedea ez da buruzagien aurka borrokatzea (seguruenik hemendik oso urrun daude, gainera), baizik eta erasoak egiten dituztenak berak neutralizatzea, eta horiek normalean ez dira egoten buruzagiekin lotuta aztarna eta arrasto antzemangarriak uzten dituzten ohiko antolakuntza-egituren bidez. Batzuetan, buruzagien eta erasotzaileen arteko lotura hau baino ez da izaten: interneten egindako aldarrikapen bati modu inplizitu eta izenik eman gabe atxikitzea.

Erasotzaileak gazteak izan ohi dira, denetarikoa. Asko familian edo bizitzan izandako hondamendi edo frustrazio baten eraginpean daude, edo ez dute inolako itxaropenik bizitzan, eta ondorioz oso zaurgarriak dira eta erraz manipulatu ahal izaten dituzte. Beste batzuek, aldiz, ez dute arazo handirik eduki-

tzen, eta badaude kezka sozialak, politikoak edo erlijiosoak edukitzen dituztenak ere, azkenean “kausa handiagoei” bat egitera bultzatzen dituztenak.

Arrazoa zeinahi ere den, batzuek zein besteek nortasuna eratzen dien xede “goren” eta erabateko bati heltzen diote. Erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoak “aukera” ematen die eguneroko bizimodu narrasa edo dituzten kezka kritikoak goratzeko “balio” absolutuen bidez: zerua irabaztea, erlijioa aitzakiatzat hartuta borroka batean laguntzea, nor izatea, ongiaren alde aritzea gaizkiaren kontrako borroka bidezkoan, eta, batik bat, nortasun jakin bati atxikitzea.

Gazte hauekako batzuk heldu berri diren etorkinak izaten dira, baina beste batzuk, aldiz, gure artean jaio eta hezitakoak, eta eguneroko bizitzaren parametroen arabera gizartean ondo integratuta bizi dira. Batzuek nolabaiteko erlijio-prestakuntza izaten dute eta, berriz, beste batzuek batere ez. Dazkagun datuen arabera, gazte bat atentatu lazgarria egiteko prest egon arteko erradikalizazio-prozesua oso laburra izan daiteke: hilabete batzuk baino ez, eta are aste batzuk bakarrik.

Gainera, fenomeno hau oso minoritarioa da: komunitatean bizi diren milaka gazteetatik bakar batzuk baino ez dira erortzen sareetan. 2017ko abuztuan Katalunian izan ziren atentatueta etorrita, erasotzaileak hamar bat gazte erradikalizatu izan baziren, musulmanen komunitatea 500.000 pertsonatik gorakoa da, eta gehienak normaltasunez bizi dira Kataluniako gizartean.

Horregatik guztiagatik, gazte horien erradikalizazio-prozesuak oso zailak dira detektatzen, are ondo ezagutzen dituzten beren inguruko pertsonentzat ere. Aurka egin beharreko errealitatearen konplexutasuna onartzea nahitaezko lehen urratsa da demagogia saihesteko eta formula magiko faltuen xarmaren atzaparretan ez erortzeko.

Beraz, arazoa zein konplexua den jakinik eta gogoan edukita zein kezkaturik dauden herritarrek, galdera hau sortzen zaigu: honelako terrorismoaren aurkako politikek berma dezakete sekula gehiago ez dela gertatuko beste atentaturik? Tamalez, erantzuna ezezkoa da, argi eta garbi. Ez dago erabateko segurtasunik.

Ezin da bermatu prebentziorako eta erantzunerako estrategiarik hoberenak eta eraginkorrenak ezarri arren, nonbait, aste batzuetan Internet bidez edo manipulazailerik baten eraginez erradikalizatutako bi gazte ez direnik izango gauza auto bat edo aiztoa erabiltzeko jendea hiltzeko.

Politika eraginkorrek ezartzea har dezakegu xedetzat, baina ez dago estrategia hutsezinik. Hutssezintasunik ez dagoela onartzea nahitaezko bigarren urratsa da bete ezin den itxaropenik ez sortzeko. Beraz, ezin da ziurtatu egiten den lanak huts egingo ez duenik, batez ere aurre egiten zaion errealitatea oso konplexua delako. Errealitatea ezagutzea, eta nolakoa den onartzea, oinarritzko premisak dira.

1.4. Gure gizarteen ahulguneak eta indarguneak identifikatzea

Dokumentu honetarako, bereizketa bat egin behar dugu premisa nagusiak identifikatzean: nazioarteko terrorismoak atentatu bortitzekin helburu espezifikoak lortu nahi ditu, batetik, eta helburu estrategikoak, bestetik. Helburu espezifikoak dira: min egitea, izua sortzea, gizartea zatitzea, egonkortasuna arraitzea, gizartea ahultzea, ahalik eta oihartzun eta eragin mediatiko handiena lortzea, finantzabideak erakartzea, erasotzaile gehiago errekrutatzea... Onartu beharra dago indarkeria-ekintza izugarriek helburu horiek guztiak lortzen dituztela, denbora laburrerako bada ere.

Helburu estrategikoak sakonagoak dira. Nazioarteko terrorismo honek pluralismoa hondatu nahi du, hots, gure elkarbizitzaren funtsa bera. Horren bidez bere proiektu politiko totalitarioa inposatu nahi du, erlijioa aitzakiatzat hartuta indarkeria justifikatzeko: teokrazia ortodoxoa. Terroristen helburu estrategikoa da denok batera bakean bizitzen ez uztea. Nahi dute gure aniztasunak zatiketarik ekar ditzala, zatiketarik horiek ondoren liskar bihurtzea, eta azkenik indarkeria eta hondamendia hedatzea. Horixe uste dute dela gure gizarteak zartzatzeko erabil dezaketen ahulgunea, gure Akilesekin orpoa.

Alessandro Baricco bere *Homero, Iliada* (2005, Anagrama) liburuaren epilogoan hausnarketa egiten du gerrak gizateriaren historian nagusitzeko izan duen euskarri nagusiaz. Gizakiarentzat, mendeetan zehar, gerra garrantzi handiko gertakaria izan dela dio. Eguneroko bizitza gogaikarria eta xede motzekoa zela, gerrak balio absolutuak eskaintzen zituen: ohorea, noblezia, ausardia, abertzaletasuna, heroismoa, eskuzabaltasuna, bizitza norbaitengatik edo zerbaitengatik emateko prestutasuna... Gerraren

aitzakia sublimazioa izan da. Bakeak ere, Bariccoren ustez, bere sublimazio etikoa behar du, mendeetan zehar “gerra noblea” ideiak eduki duen indar berekoa, alegia.

Antzeko zerbait gertatzen ari da gaur egun. Erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoak legitimazio kolektiboa lortu nahi du balio absolutu batzuen sublimazioaren bitartez. Sublimazio erlijioso eta transzendentea da, helburutzat duena jarraitzaileei sinestaraztea egiten diren izugarrikeriak erlijioa aitzakiatzat hartuta helburu politikoak dituela; bi xederekin: Islamaren kontraktatzat jotzen dituzten herrialde musulmanetako erregimen politikoak eraistea eta Mendebaldeko zibilizazioa, gaitz absolututzat dutena, azpiratzea. Izan litekeen doilorkeriarik zitalena on absolutuaren eta gaitz absolutuaren arteko borrokaren aitzakiaz baliatuz justifikatzeko egindako saio ugarietan azkena baino ez da.

Bada, geure buruari galdetu behar diogu zein den gure sublimazio teorikoa mehatxu horri aurre egiteko. Zein den erreferentziatzat har dezakegun goren balioa, indarra emango diguna eta nazioarteko terrorismoak erdietsi nahi duen hondamendia eragotziko duena. Eusko Jaurlaritzaren erantzuna da gure erreferentzia-ardatza, gure funtsezko indargunea, erlijio eta kultura asko biltzen dituen elkarbizitza-esparru baten sublimazio etikoa dela, oinarritzat gizakiaren duintasuna, giza eskubideak eta, batik bat, pluralismoa errespetatzea dauzkan esparrua, alegia.

Goren-gorenean ezarri behar dugu funtsezko ideia hau: *elkarrekin eta bakean bizitzea*. Erabaki irmoa hartu dugu elkarrekin eta bakean bizitzeko. Erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren helburua indarrez gailentzea da, gure proiektu askotarikoa hautsiz eta gure arteko gatazkak eta indarkeria piztuz. Horregatik, haren aliatu nagusia islamofobia da, harrigarria badirudi ere.

Indargune honen oinarri nagusia da, hain zuzen, “musulmanen beren konpromiso sendoa, haiek dutelako interesik handiena terrorismoaren aurkako borrokan eta haren gaitzespenean”. Ildo horretan, mugarri aipagarrienetako bat da mundu osoko 130 eruditutako musulmanek 2014ko irailaren 19an Daesh-i igorri zioten gutuna (www.lettertobaghdadi.com). Gutun horretan, bada, esan zuten ez zela zilegi indarkeria erabiltzea Islamaren izenean. (Aurreko paragrafo horretan eta hurrengo hiru paragrafoetan, Euskadiko komunitate islamikoetako kideek dokumentu honi egindako ekarpenak daude jasota).

“Koranaren testuak ezin dira erabili indarkeriaren erabilera edo terrorismoa legitimatzeko. Koranaren balioak gizarte heldu eta zibilizatu bateko kideen artean errespetua, tolerantzia eta bizikidetzatza sustatzeko oinarri dira”.

“Koranak indarkeria, erradikalismoa edo terrorismoa goratzeko edo bultzatzeko saiakera oro gaitzesten du, bai eta arrazismoa, xenofobia eta bazterkeria goratzeko keinu oro ere”.

“Halaber, Koranean jasota daude, batetik, inposaketa edo debeku ororen gaitzespena erlijioaren, sinesmenen edo ideien arloan, eta, bestetik, gizarte zibilizatu batean elkarrekin bizi diren askotariko printzipio eta balio erlijioso, politiko eta ideologikoen aldeko tolerantzia”.

“Islamaren oinarri eta irakaspenek berretsi egiten dituzte bakearen eta bizikidetzaren printzipio eta balioak, bere manu etiko, moral eta espiritualen bitartez, hain zuzen. Printzipio eta balio horiek defendatzeak esan nahi du justiziaren, bizikidetzaren, senidetasunaren, berdintasunaren eta gizaki ororekiko errespetuaren alde lan egitea. Eta horiek defendatzen ez dituenik badago, horrek esan nahi du ez duela bat egiten Islamaren etikarekin edo ez duela ulertu oraindik”.

Elkarrekin eta bakean bizitzea; ideia horrek batzen gaitu. Elkarrekin eta bakean bizitzeko erabaki irmo hori nazioarteko terrorismoaren asmoak galarazten dituen babesa da. Terrorismoak kolpatu nahi gaituen arloan bertan bil ditzakegu geure indarrak, eta horixe egin behar dugu. Bakearen, justiziaren eta gizakiaren duintasunaren eta horren askotariko adierazpenen aldeko konpromiso etikoa, gure lehentasun gorenera sublimatuta, kemena ematen digun babesa da. Erabaki hori erlijioaz eta politikaz harago heltzen da.

Apustu eraginkorra da pluralismoan oinarritutako bizi-proiektua defendatzea, sustatzea eta partekatzea. Elkarrekin eta bakean bizitzeko erabakia mehatxu larri baten aurreko defentsa-estrategia baino zerbait gehiago da. XXI. mendean gizateriak dituen beharrianak asetzeko gauza den aurrerapen sozial eta politikoaren aldeko erronka batean txertatzen da.

Javier Gomák oraintsu adierazi duen bezala *Jot Down*-en (2014-03-03), XIX. eta XX. mendeetako aurrerakuntzarik handiena “askatasun indibiduala zabaltzea” izan da. Eta horri gehitzen dio gaur egun garrantzitsua ez dela aske izatea, besterik gabe, baizik eta “aske izatea denok batera”.

Eta horrek ondorio hau dakar: “jarrera positiboarekin onartzea askatasunak badauzkala muga batzuk”.

“Aske izatea denok batera” eta “bakean bizitzea” (*“Euskadi: bien común, auzolana”*) adierazpideek funtsezko premisa bat islatzen dute. Eusko Jaurlaritzak nazioarteko terrorismoari aurre egiteko eta bakea, bizikidetzeta eta giza eskubideak (maila guztietan) bultzatzeko ezartzen dituen politika publikoak antolatzen eta egituratzen dituen ardatz nagusiaren osagaiak dira. Premisa hau dokumentu honen zeharkako ardatza da.

2. Erronka estrategikoa

Eusko Jaurlaritzak erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren mehatxuaren aurrean jarduteko daukan estrategian kontuan eduki da badirela muga batzuk (eskumeneko lurralde-esparrua), arazoa oso konplexua dela, prebentziorako eta erantzunerako estrategiek huts egin dezaketela eta gure gizartearen ahulguneak eta indargune nagusiak ezagunak direla.

Mugak eta aurrebaldintzak gogoan hartuta, estrategia honen funtsezko gakoa gure indargune nagusia garatzea da: aniztasunaren estrategikotasuna. Gako hori honako eremu hauetan islatu behar da: integrazio sozial, politiko eta ekonomikoa, gizarteko kultura eta erlijio guztien artean; polizia-erantzuna; erradikalizazio biolentoaren prebentzioa (gizartean eta hezkuntzan); Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jarrera eta ekarpena.

Euskadiko komunitate islamikoak euskal gizartearen osagai dira. Gure gizartea denetarikoa dela erakusten dute. Elkarrengana bilduta egiten diogu aurre mehatxu honi, denok ukitzen gaituelako eta elkarrekin eta bakean bizi nahi dugulako, hau da, elkarrekin bizi nahi dugulako aske. Gizarte bereko herritarrak gara denok. Hauxe da abiapuntu nagusia. Hauxe da Jarduera Programa hau eta bertan ezartzen den estrategia eraikitzeke erabili den paradigma.

Beraz, Eusko Jaurlaritzak erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren mehatxuaren aurrean daukan erronka estrategikoa da ahalik eta lankidetzeta handiena lortzea honako bi norabide hauetan:

- barrura begira, Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzea bultzatzea;
- kanpora begira, polizia-koordinazioa eta nazioarteko koordinazioa sustatzea eremu guztietan.

Erronka estrategikoa horren definizioaren oinarria uste sendo hau da: bi lankidetzeta-ardatz horiek (barrurakoa eta kanporakoa) uztartzea dela erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoari aurre egiteko lana ahalik eta eraginkorrena izateko modurik onena.

3. Helburuak

Premisa horiek eta lehen azaldutako zeharkako erronka estrategikoa oinarritzat hartuta, Jarduera Programa honek helburu nagusi hauek dauzka:

3.1. Helburu orokorrak

- Gure gizarteko kideen erabateko integrazioa babestea eta bultzatzea, kohesioa, elkarbizitza eta aniztasunaren errespetua hobetzeko.
- Erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean izan litekeen babesik handiena ezartzea.

3.2. Helburu espezifikoak

- Euskadiko komunitate islamikoekin akordio estrategikoak egiteko programa sustatzea; akordioen xedeak gizarte integrazioa eta erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren kontrako polizia-lana eta prebentzioa izango dira.
- Polizia- eta inteligentzia-lanak koordinatzea prebentzioaren, ikerketaren, informazioaren eta interbentzioaren arloetan, bai Estatuan, bai Europan, bai nazioartean.

- Erradikalizazio biolentoaren prebentzioaren arloan (gizartean eta hezkuntzan) lan egiteko plana prestatzea.
- Nazioarteko terrorismoaren aurka nazioartean egiten diren ahaleginetan laguntzea, bai eta politika diplomatikoekin eta prebentzio-politikekin eta lankidetzako eta laguntza humanitarioko politikekin ere.

4. Irizpideak

Eusko Jaurlaritzak arlo honetan jarduteko ezarri duen esparrua hainbat irizpide gidarik finkatzen dute (irizpideok jardunaren definizioa osatzen dute).

4.1. Oinarrizko eskubideen eta askatasunen esparrua

Programa hau lotuta dago aniztasunaren errespetua, adierazpen-askatasuna eta kontzientzia-askatasuna oinarritzat dituen funtsezko eskubideen eta askatasunen esparruarekin. Esparru horren helburua, hain zuzen, elkarbizitza integratuko gizarte ireki eta toleranteak eraikitzea da.

4.2. Erlijio-askatasunerako eskubidea

Programa honek bere gain hartzen du erlijio-askatasunerako oinarrizko eskubidea eta bere alde egiten du. Espainiako Konstituzioaren 16. artikuluan ezarrita dago eskubide hori, eta Erlijio-askatasunaren 7/1980 Lege Organikoan dago garatuta. Konpromiso horrek berekin dakar erlijioa aitzakiatzat hartzen duen indarkeria terroristaren aurka eta haren apologia edo goramenaren aurka borrokatzea, bai eta islamofobia, xenofobia eta arrazakeria mota guztien aurka ere.

4.3. Arau-esparrua eta nazioarteko estandarrak

Programa hau kudeatzeko irizpide gidaria honako hauei lotzea izango da: indarreko arau-esparruari, nazioarteko zuzenbidera ondoena moldatzen diren erabakiei eta Nazio Batuen gidalerroei.

4.4. Adostea

Programa hau bultzatzeko eta garatzeko asmoarekin, Eusko Jaurlaritzak ahaleginak egingo ditu zeharkako adostasunak lortzeko, gure gizarteko arlo guztietan (politika, erakundeak, erlijioak...) nagusi den aniztasuna islatze aldera.

4.5. Genero-berdintasuna

Programa honetan generoa oinarrizko irizpide gidaria da. Eskubide-berdintasunaren printzipioaren defentsa beti edukiko da kontuan Programa hau garatzeko eta bertan ezartzen diren ekintzak egiteko.

4.6. Parte hartzea eta elkarlana

Programako ekintzak gauzatzen direnean herritarrek parte hartzeko bideak ezarriko dira, beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea sustatuko da, eta Eusko Jaurlaritzako sailek elkarrekin lan egitea bultzatuko da.

4.7. Jardunaren ardatzak

Jarduera Programa honetako lanen programan lau jardun-ardatz ezartzen dira. Ardatz horietako ekintzak proiektuen bidez gauzatuko dira. Gainera, Programak hainbat eranskin edukiko ditu. Lau ardatz horiek dokumentu honen bigarren atalean azaltzen dira; hauek dira:

- Euskadi: gizartearen kohesioa eta kulturen eta erlijioen integrazioa.
- Segurtasuna eta polizia-lanak (prebentzioa eta erantzuna).

-Prebentzioa gizartean eta hezkuntzan erradikalizazio biolentoa ez gertatzeko.

-Jarrera politikoa, EAEn eta nazioartean.

Eusko Jaurlaritzak sailarteko lantaldea sortuko du; talde horren helburua Jarduera Programa honen kudeaketa suspertzea eta bultzatzea izango da, lanak koordinatuta eta ikuspegi orokorrarekin.

5. Euskadiko komunitate islamikoekin akordio estrategikoak egiteko proposamenak

Gurera etorrira, Eusko Jaurlaritzak Jarduera Programa honetan bere gain hartzen duen zeharkako erronka estrategikoari heltzeko ezinbestekoa da Euskadiko komunitate islamikoekin lan egitea. Eskuz esku egin behar dugu, erlijioa aitzakiatzat hartzen dituen terrorismoaren aurrean, bai denetarikoa xenofobia, islamofobia eta arrazakeria guztien aurrean.

Erronka horri helduko badiogu, apustu handia egin beharko dugu: elkarlanerako gizarte-azpiegitura bat sortu beharko dugu. Elkarrekin lan egitea da estrategiarik eraginkorrena segurtasuna bermatzeko eta integrazioa lortzeko. Horrela, gure gizartearen indargune nagusia babestu eta finkatuko dugu: elkarrekin eta bakean bizitzea.

Programa honen esparru orokorraren eta estrategiaren barruan, Eusko Jaurlaritzak uste du gutxienez sei adostasun-proposamen sartu behar direla Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan egin behar diren akordio estrategikoen lehen programan.

Jakina, proposamen hauek irekita daude eta hobetu eta osatu egin daitezke, bai Legebiltzarreko eztabaietan eta gizarte-agenteeekin hitz eginez, bai Euskadiko komunitate islamikoekin berekin lan eginez. Eremu-ka sailkatu ditugu; hona:

Eremua	Akordio-proposamenak
Kohesioa eta gizarte-integrazioa	1. ADOS Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aritzeko Aholku Batzordea sortzea. 2. Euskadiko Erlijioen Kontseilua sortzea.
Segurtasuna	3. Erradikalizazio biolentoaren identifikazio goiztiarrerako foroa sortzea. 4. Adierazpena terrorismoari aurre egiteko ahalik eta ondoen koordinatzeko, polizia-lana ahalik eta eraginkorrena izateko, eta indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta islamofobiari aurre egiteko ahalik eta jenderik gehien mobilizatzeko estrategiaren alde.
Prebentzioa gizartean eta hezkuntzan	5. Gizalegez akordioa erlijioen eremura hedatzea. 6. Gazteen eta baterako balioen sarea sortzea.

Proposatzen diren sei akordio hauen edukia dokumentu honen bigarren atalean laburbilduko da. Jardun-esparru bakoitzean ekintza osagarriak gehituko zaizkie akordio-proposamen horiei.

Bigarren atala

Lan-plangintza

Lan-plangintza honen lau ardatzetako bakoitzean bi atal daude: oinarriak eta jardun-ildoak. Oinarriak dira eremu bakoitzean jarduteko abiaburu kontzeptualak. Jarduera-ildoetan beste bereizketa bat egin da: batetik eremu bakoitzeko oinarri-akordioak daude eta bestetik akordio horiek gauzatzeko egingo diren proiektuak. Gainera, proiektu bakoitzean ekintza nagusiak xehatuko dira.

I. Jardunaren lehen ardatza

Euskadi: gizartearen
kohesioa eta kulturen
eta erlijioen integrazioa

I.1. Oinarriak

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren bigarren ataleko testu batzuetan bizikidetzaren eta giza eskubideen inguruko hainbat gairen oinarriak eta abiaburuak zehazten dira. Horietako bat da Lehendakariak 2015eko martxoaren 20an, Lehendakartzaren egoitzan, egin zen erlijio arteko jardunaldi batean egin zuen adierazpena. Hauxe izan zen izenburua: “Erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzaren aurrean, aniztasunaren balioak”. Orduan esana guztiz baliagarria da egungo egoerarako; adierazpen horrek lehen jardun-ardatz honen oinarriak zehazten ditu.

I.1.1. Aniztasuna

Gizarte moderno eta garatu guztiak gizarte desberdin eta anitzak dira. Askatasunaren ondorio naturala da aniztasuna. Librea ez den herrialde bat bakarrik izan daiteke homogeneoa eta berdina.

Kultura-, erlijio-, hizkuntza- eta etnia-aniztasuna edo beste edozein motatako aniztasuna askatasunaren eta herritarren osasunaren sinonimoa da. Oparotasunaren sinonimoa ere bada. Mendealdeko gizarte oparoenak gizarte anitz eta berritzaileak dira, baita kulturaren eta erlijioaren arloan ere.

Euskadi gizarte anitz eta konplexua izan da beti. Gero eta nortasun eta aniztasun gehiago dago gure gizartean eta hori aberastasunaren, aukeren, lehiakortasunaren eta berrikuntzaren seinale da.

I.1.2. Bizikidetzaren

Europako gizarterik aurreratuenak –euskal gizarteak, tartean– kulturen eta erlijioen arteko bizikidetzarako espazio politikoak dira gaur egun. Desberdintasunak eta nortasunen aniztasuna errespetuz barneartzea erronka bat da, baina aukera-iturria da aldi berean.

Bizikidetzaren anitz eta harmoniatsurako helburua irmoak diren printzipio etikoak eta gure gizarteak eratu duten balio demokratikoak oinarri hartuta bakarrik lor daiteke.

I.1.3. Giza eskubideak

Giza eskubideekiko eta pertsonen duintasunarekiko errespetua, arraza, generoa, sinesmena edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozial bereizi gabe, gure printzipio politikorik oinarritzakoa da.

Pertsonen duintasunaren eta beren bizitzaren eta kontzientzia-askatasunaren balio gorenak terrorismoa, indarkeria edo giza eskubideak urratzeko beste modu baten erabilera edo justifikazioa guztiz gaitzestera garamatza, ustezko aitzakia politikoa, soziala, kultural edo erlijiosoa edozein delarik ere.

Mundu mailan giza eskubideei buruzko nazioarteko itun eta hitzarmen guztietan aitortutako giza eskubideetako bat da erlijioa aukeratzeko askatasuna. Askatasun horrek barne hartzen du askatasun osoz edozein erlijio praktikatzeko eskubidea, bakarrik zein taldean, eta baita inongo erlijio edo sinesmenik ez praktikatzeko eskubidea ere.

Aukera biak dira legezkoak gizarte demokratiko batean. Pertsona guztiek izan behar dute aukera bat edo bestea hautatzeko eta jendaurrean erakusteko askatasuna, muga bakarrik gainerako pertsonen eskubideekiko eta ordena publiko demokratikoarekiko errespetutik eratorritakoak izanik.

Botere publikoek hori guztia posible izateko baldintza egokiak sustatu behar dituzte eta pertsona bati zein taldeei eskubide horiek erabiltzen uzten ez dien oztopo oro desagerrarazi behar dute.

I.1.4. Biktimak

Pertsona guztien giza eskubideen aldeko defentsa elkartasunari eta giza eskubideen urraketen biktimetikiko enpatia lotuta dago oinarri-oinarrian. Indarkeria mota oro da gaitzesgarria, biktimei konponbiderik gabeko min bidegabea eragiten dielako.

Gizarte demokratiko bat biktimen alde egon behar da beti. Berebizikoa litzateke sentiberatasun horri eustea, biktimek egia jakiteko, justizia egiteko eta ordaina emateko duten eskubidea erabili ahal izateko. Eta bereziki, biktima gehiago eragitea ekiditeko, bide demokratiko guztiak erabiliz.

I.1.5. Kontrabaliok

Azken urteotan Europako beste gizarte batzuetan bizi izandako gertaera bereziek bi kontrabaliok utzi dituzte agerian eta guk aurre egin behar diegu. Alde batetik, ustez erlijioak eragindako indarkeriazko fanatismoa; bestetik, arrazakeria, erlijio talde jakin batzuekiko jazarpena edo diskriminazioa eta bereziki, islamofobia.

Biak doaz giza eskubideen aurka, ustez etnikoa edo erlijiosoa den etiketa baten balioa jartzen baitute pertsona guztien giza duintasunaren gainetik. Kontrabaliok horietan, aurreiritzia, ezjakintasuna eta oldar-kortasuna jartzen dira arrazoimenaren eta gizatasunaren gainetik.

I.1.6. Balioak

Printzipio etiko eta demokratikoekin batera, balioak dira kontrabaliok horiei aurre egiteko eta bizikidetzak ekarritako erronkan aurrera egiteko tresnak. Hiru balio edo helburu azpimarratu beharko genituzke ahaletan horretan: segurtasuna, elkartasuna eta hezkuntza.

I.1.6.1. Segurtasuna

Europako eta nazioarteko gobernu eta instituzioen egitekoa da segurtasunaren arloko neurriak koordinatzea. Neurri horiek, giza eskubideekiko eta oinarritzko askatasunekiko errespetua oinarri hartuta, indarkeria, terrorismoa edo pertsona edo taldeen pertsekuzioa prebenitu eta ekiditeko balio beharko lukete. Askatasuna eta segurtasuna ez daude kontrajarrita; aitzitik, balio bakar bat osatzen dute eta horrez gain, gizarte demokratiko eta aurreratua eraikitze tresna bakarra osatzen dute.

I.1.6.2. Elkartasuna

Gizarteak eta erakunde publikoak berdintasunean eta elkartasunean oinarrituta dauden eta integratzaileak, kohesioa eta justizia xede dituzten politika publikoak bultzatu behar ditugu. Politika publiko horiek hezkuntzaren, osasunaren edo oinarritzko gizarte-prestazioen unibertsaltasunaren alde egin behar dute irrimo, eskubideen, betebeharren eta aukeren berdintasuna ahalbidetzen duen gizarte kohesionatu bat izan dezagun. Elkartasuna berebizikoa da gizarte inklusiboa eta anitza izan dadin –bai kulturaren aldetik eta bai erlijioaren aldetik–, baina baita gizarte eraginkorra izan dadin ere. Gizarte eraginkorra diogunean, aniztasun horrek eskaintzen dizkigun baliabideak areagotzen dituela eta epe luzera errentagarriagoa eta lehiagarriagoa izan daitekeela esan nahi dugu.

I.1.6.3. Hezkuntza

Baliorik estrategikoa da gizartearen hezkuntzarena eta prestakuntzarena da. Aniztasuna kontuan hartzen duten bizikidetzaren eta integratzailearen aldeko hezkuntza, giza duintasunarekiko errespetuari lehentasuna ematean oinarrituta dagoena. Proiektu erlijioso, moral edo ideologiko bakar bat ere ezin da oinarritu giza eskubideen aurkako erasoan, eta ezin du eraso hori justifikatu. Pertsona ororen giza duintasuna pertsona horren etiketa etniko, erlijioso edo politikoa baino garrantzitsuagoa da. Gure hezkuntza-proiektua funtsezkoa den ideia horren inguruan eta aurrera egin nahi duen gizarte aske eta demokratiko ororen oinarri den sinesmen-askatasunaren inguruan egituratu behar da.

I.1.7. Konpromisoa

Eusko Jaurlaritzak pertsonen konpromisoa berretsi du, eta baita Euskadiko aniztasun erlijiosoari eta sinesmen desberdineko pertsonen arteko –eta horien eta sinestunak ez direnen arteko– bizikidetza harmoniatuari eman beharreko babesa ere.

Horixe da Eusko Jaurlaritzaren jarrera esparru honetan. Aipatu ditugun printzipio etikoetan eta balio demokratiko horietan oinarritzen dira Jaurlaritzaren segurtasunerako, elkartasunerako, hezkuntzarako eta

bizikidetzarako politika publikoak. Herritar guztiek dute beren sinesmenengatik edo erlijio bateko kide izan zein ez izateagatik diskriminaziorik ez jasateko eskubidea, eta baita beren kontzientzia-askatasuna baliatzekoa ere, muga bakarra gainerako pertsonen eskubideekiko errespetuak markatutakoa izanik.

I.1.8. Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana eta Euskadiko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostena

Konpromiso hori bi testu hauetan islatzen da: Euskadiko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostena (2015eko abendua) eta 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana. Bi-biak funtsezko erreferentziak dira gizartearen kohesioa eta erlijioen eta kulturen elkarbizitza oinarri dituen jardun-ardatz honetan.

I.2. Jardun-ildoak

Azaldutako oinarriak abiaburutzat hartuta, gizartearen kohesioaren eta erlijioen integrazioaren arloetan jarduteko esparruan bi ildo nagusi ezartzen dira: batetik, kohesioaren eta integrazioaren helburuak bultzatzen dituzten bi oinarri-akordioak; bestetik, akordio horiek gauzatzeko egingo diren proiektuak.

I.2.1. Oinarri-akordioak

1. akordioa. ADOS Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aritzeko Aholku Batzordea sortzea

“ADOS Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aritzeko Aholku Batzordea” eratuko da. Kide antitzeko organoa da, eta bere egitekoa da Eusko Jaurlaritzak eta EAEko erakundeek Euskadiko komunitate islamikoekin dituzten harremanen harira garatzen dituzten politika publikoetan parte hartu, lankidetzan aritu eta horien gainean aholku ematea.

Batzorde horren helburua da Euskadiko musulmanen egoeraren berri ematea Erkidegoko erakundeei eta komunitate islamikoaren eta EAEko erakundeen arteko lankidetzarako bideak ezartzea. Bi alderdiak bat datoz batzordearen lanaren oinarria zein izan behar duen finkatzerakoan: Euskadin islam tolerantzia, irekia eta erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoaren legitimazioaren kontrakoa sustatzea. Ildo horretan, ADOS Aholku Batzordearen zeregina izango da komunitate islamikoak euskal gizartearen modu integratuan bizi daitezen sustatzea eta indartzea, gizarte honen parte direla ulertuta.

Hauek izango dira, zehazki, ADOS Aholku Batzordearen helburuak:

- Eusko Jaurlaritzari aholku ematea eta Eusko Jaurlaritzak erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoari aurre egiteko abiarazi duen jarduera-plana garatzen parte hartzea;
- Eusko Jaurlaritzari aholku ematea eta hari laguntzea ezaugarri hauek dituen islama sustatzen: euskal gizartearen errotua, irekia, tolerantzia eta erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoaren legitimazioaren kontrakoa;
- Eusko Jaurlaritzari aholku ematea eta hari laguntzea Euskadiko komunitate islamikoaren premia eta kezkei erantzuteko, eta hori guztia euskal gizartearen hobeto integra daitezen lortzeko;
- Noranzko biko komunikazio naturala bideratzen laguntzea, bai Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko komunitate islamikoaren artean, bai komunitate horien eta EAEko erakundeen artean.

ADOS Aholku Batzordea Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiari atxikita dago, baina ez da idazkaritza horren egitura organikoaren parte.

Osoko bilkuretan eta batzordeetan lan egingo du. Osoko bilkuretan, bada, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako, EUDELeko eta Euskadiko komunitate islamikoetako ordezkariak parte hartuko dute. Zehazki, honela egongo da osatuta batzordea:

- Giza Eskubide, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko ordezkari bat. Ordezkar hori batzordeburua izango da, eta batzordeburuari dagozkion zereginak izango ditu.

- Segurtasun Saileko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordekidea izango da.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordekidea izango da.
- Hezkuntza Saileko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordekidea izango da.
- Justizia Saileko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordekidea izango da.
- Foru-aldundietako hiru ordezkari. Ordezkari horiek batzordekideak izango dira.
- EUDELeko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordekidea izango da.
- Euskadiko komunitate islamikoetako zortzi ordezkari. Ordezkari horiek batzordekideak izango dira, eta haien artean hautatuko da batzordeburuordea.

Eusko Jaurlaritzako sailtako, foru-aldundietako eta EUDELeko ordezkari gisa jardungo duten batzordekideak erakunde bakoitzaren funtzionamendu-arauen arabera izendatuko dira.

Euskadiko komunitate islamikoetako ordezkari gisa jardungo duten batzordekideak Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak hautatu eta izendatuko ditu.

2. akordioa. Euskadiko Erlijioen Kontseilua sortzea

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planean agertzen denaren harira, Euskadiko Erlijioen Kontseilua sortuko da. Kontseilu horretan Euskadiko gizartearen argiro errotuta dauden erlijioek edukiko dute ordezkaritza. Kontseiluaren helburua erlijioen eta kulturen elkarbizitza babestea eta bultzatzea da, oinarritzat hartuta erlijio-aniztasunari eta erlijio guztien eskubideei eta betebeharrei zor zaien errespetua.

Kontseilu hau lehentasunezko esparrua izango da elkarbizitza xede duen erlijioen arteko elkarbiziketarako. Haren egiteko nagusietako bat erlijioa aitzakiatzat hartzen duten terrorismo-ekintza guztien aurrean eta xenofobia, islamofobia eta arrazakeria adierazpen guztien aurrean erantzuteko erreferente modura jokatzeko izango da. Eusko Jaurlaritzak kontseiluaren helburuak, egitekoak, kideak eta funtzionamendua zehaztuko ditu lehen proposamen-dokumentuan. Dokumentu hori oinarria izango da Kontseilua sortzeko beharrezkoak diren elkarbiziketa eta akordioa gerta daitezen.

1.2.2. Proiektuak

Lehen ardatzaren xedea askotariko herritarrek elkarrekin bizitzeko estrategia ezartzea da. Plan honen erronka estrategiko nagusia gauzatzen saiatzen da: “Aske izatea denok batera”, “elkarrekin eta bakean bizitzea”. Oinarri honen gainean hiru proiektu eratu dira: gizarte-kohesioa; kulturen eta erlijioen integrazioa; giza eskubideen kultura.

1. proiektua. Gizarte-kohesioa

Proiektu honen xedea da gizarte-kohesioaren baterako helburuaren inguruko politika, erakunde eta baliabide propioak harmonizatzea, kultura eta erlijioa ere aintzat hartuz. Proiektu honetan honako ekintza hauek antolatu dira:

- Gizarte-politiken unibertsaltasuna.** Lehen ekintza zeharkakoa da; honetan datza: Eusko Jaurlaritzak osasunean, hezkuntzan, mendekotasunaren arretan eta oinarritzko gizarte-prestazioetan ezartzen dituen politika publikoak iraunaraztea, zaintzea eta babestea. Konpromiso honen funtsa uste sendo hau da: denok eskubide, betebehar eta aukera berak edukitzea da biderik hoberena gizarte-kohesioa eta kulturen eta erlijioen integrazioa bultzatzeko.
- Sentsibilizazio- eta hedapen-jarduketak sustatzea.** Eusko Jaurlaritzak gizarte-politiken inguruko sentsibilizaziorako jarduketak eta haien berri hedatzeko jarduketak egingo ditu edo beste batzuen lagunduko die. Jarduketa honek bi helburu dauzka: batetik, diferenteak direnei buruzko aurreiritziak, esamesak eta estereotipoak ezabatzea; bestetik, kultura edo erlijio desberdinetako pertsona, familia eta taldeak elkarrekin ondo bizitzeko harreman-eredu positiboak bultzatzea.
- Sinergia erakunde espezializatuekin.** Kohesioari eta integrazioei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak bi egiteko erantsiko dizkio Programa honen kudeaketaren ardura edukiko duen sailarteko organoari:

Ikuspegi - Immigrazioaren Euskal Behatokiaren ikerketa-jarduera, azterlan espezifikoak egiteko, eta Biltzen - Integrazioarako eta Kulturen arteko Bizikidetzarako Euskal Zerbitzuaren bitartekaritza eta prestakuntzako jarduerak, kulturen arteko bitartekaritza-lanak edo arlo horretako bitartekariak trebatzeko plan espezifikoak egiteko beharrezkotzat jotzen diren eremuetan.

2. proiektua. Erlijioen arteko elkarbizitza

• **Gurtza Aretoen Legea.** Eusko Jaurlaritzak Gurtza Aretoen Legearen izapideak eta onarpena bultzatuko ditu, aurreko legealdiko lege-proiektua oinarritzat hartuta. Lege-proiektu hura erlijio guztien ordezkariekin hitz egin eta adostasunetara iritsi ondoren idatzi zen (2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana).

• **Elkarrizketen agenda.** Eusko Jaurlaritzak elkarrizketa eta baterako lanen agenda bat proposatuko du ADOS Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aitzeko Aholku Batzordean. Agenda horren oinarritzat hartuko da Euskadiko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txosteneko 3. puntua (Proposamenak).

• **Mapa soziologikoa.** Eusko Jaurlaritzak erlijioen ezarpenaren mapa soziologikoa egingo du (2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana).

• **Erregistro-liburua.** Eusko Jaurlaritzak erlijio-entitateen, gurtza-aretoen eta horien guztien erreferentziazko pertsonen zerrenda edo erregistro-liburua egingo du (2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana).

3. proiektua. Giza eskubideen kultura

• **Aniztasuna sustatzea.** Eusko Jaurlaritzak herritarren eta elkarteen inplikazioa sustatuko du; horretarako, aniztasunaren sustapena sartuko du giza eskubideen diru-laguntzen deialdietan, eta arrazakeriaren eta gorroto-delituen prebentzioa ere bai (2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana).

• **Erantzuteko protokoloa.** Eusko Jaurlaritzak erlijioa aitzakiatzat hartzen duten terrorismo-ekintza guztien aurrean eta indarkeria xenofobo, islamofobo eta arrazista guztien aurrean denok batera erantzuteko eta mobilizatzeko protokoloa onartzea proposatuko du ADOS Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aitzeko Aholku Batzordean eta Euskadiko Erlijioen Kontseiluan (2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana).

II. Jardunaren bigarren ardatza

Segurtasuna
eta polizia-lanak
(prebentzioa eta erantzuna)

II.1. Oinarriak

Duela hamarkada batzuetatik hona terrorismoa eten gabe agertu da Europako bizitza politikoan eta sozialean. Indarrean gorabeherak izan baditu ere, terrorismoak zuzenean mehatxatu izan ditu herritarren bizitza eta segurtasuna. Oraintsu nazioarteko terrorismoak Europa astindu du bere indarkeria-ekintzekin, eta horren ondorioz berariazko arau-esparrua ezarri da Estatuan zein nazioartean mehatxua prebenitzeko eta erasoei aurre egiteko.

Adibidez, 2005ean, “Europar Batasunaren estrategia terrorismoaren aurkako borrokarako” izeneko dokumentua argitaratu zen, eta Batasuneko kideek bere gain hartu zuten. Lehen urratsa izan zen. Estrategia horrek funtsezko lau oinarri dauzka: prebenitzea, babestea, jazartzea eta erantzutea. Helburua terrorismoaren mehatxuari, alderdi guztietan, erantzun globala, integrala eta proportziozkoa ematea da.

Lau oinarri horien bitartez terrorismoari sortzetik beretik egin nahi zaio aurre, inolako arriskurik gerta ez dadin, jomuga izan daitezkeen babesak hobetzeko, ikertzeko ahala sendotzeko, terrorista-taldeak deuseztatzeko eta, azkenik, gerta litezkeen eraso terroristen ondorioak kudeatzeko tresnak egokitzeko.

Beste alde batetik, azken urteotan Espainiako estatuak hainbat ekimen abiarazi ditu prebentzio-ekintzen planak ezartzeko, bai herritarren segurtasuna hobetzeko terrorismoaren mehatxuaren aurrean, bai gizarte-bizitzarako ezinbestekoak diren funtsezko zerbitzuak babesteko. Ekimen horien ondorioz, 2005. urtean, Madrilan 2004ko martxoaren 11n izan ziren atentatuaren ondoren, Segurtasuneko Estatu Idazkaritzak Terrorismoaren Prebentzio eta Babeserako I. Plana onartu zuen.

Espainiako estatuak bere egin ditu Europar Batasunaren strategiaren oinarriak eta terrorismoaren aurkako borrokaren lau ildo estrategikoak finkatzeko erabili ditu, bai Nazioarteko Terrorismoaren eta Erradikalizazioaren aurkako Estrategia Integralean (2012), bai Nazio Segurtasunaren Estrategian (2013). Geroago, 2015eko urtarilaren 30ean, Erradikalizazio Biolentoaren aurka Borrokatzeko Nazio Plan Estrategikoa onartu zen, eta hura osatzeko 3/2015 Jarraibidea eman zuen Segurtasuneko Estatu Idazkaritzak (horren bidez Terrorismoaren Prebentzio eta Babeserako Plana eguneratzen zen).

Halaber, Euskadi ere ez da gelditzen Europar Batasunaren printzipio eta balioetan oinarritutako segurtasun-eredutik kanpo: giza eskubideen eta oinarritzko askatasunen errespetua, zuzenbide-estatua, demokrazia, elkarriketa, tolerantzia, gardentasuna eta elkartasuna. Horiek guztiak, esan bezala, aintzat hartzen dira Ertzaintzaren Plan Estrategikoaren xedean, eta Segurtasun sailburuordearen 78. Jarraibidean eta haren balioen adierazpenean aipatzen dira.

Hauxe da Europar Batasunaren konpromiso estrategikoa:

Terrorismoaren aurka modu globalean borrokatzea, baina giza eskubideak errespetatzen direla eta, aldi berean, Europaren segurtasuna hobetzen dela, herritarrek askatasunean, seguru eta justiziarik bizi ahal izan daitezen.

Euskadik hori guztia aintzat hartzen du esparru honetan Ertzaintzak duen Plan Estrategikoan.

II.2. Jardun-ildoak

Ertzaintzaren ekintza-estrategian bi jardun-ildo nagusi daude: akordioak eta proiektuak. Alde batetik, polizia-estrategiaren oinarri-akordioak daude, estrategia hori Jarduera Programa honetako beste hiru jardun-esparruekin lotzen dituztenak, zeharka. Bestetik, proiektuak ditugu.

II.2.1. Oinarri-akordioak

3. akordioa. Erradikalizazio-prozesuen identifikazio goiztiarrerako foroa

ADOS Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aritzeko Aholku Batzordean aurkeztea erradikalizazio-prozesuen identifikazio goiztiarrerako eta prozesu horiei erantzun pedagogikoa emateko foroa sortzeko proposamena. Foro hori Ertzaintzak dinamizatuko du; Euskadiko komunitate islamikoetako kideak eta Eusko Jaurlaritzako hezkuntza-adituak ariko dira han. Foroaren xedea izango da lehentasunezko lan-esparruak (tutoretzapeko zentroak eta espetxeak, batez ere), erradikalizazio-adierazleak, erradikalizazio-agenteen profilak, arrisku-loturak eta ekintza pedagogikoetarako estrategiak ezartzea. Akordio horren oinarriak Euskal Bilgune Islamiarrarekin egindako ekimena eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera abian jarritako programa pilotua izango dira.

4. akordioa. Adierazpena terrorismoari aurre egiteko ahalik eta ondoen koordinatzeko, polizia-lana ahalik eta eraginkorra izateko, eta indarkeriaren, arrazakeriaren, xenofobiaren eta islamofobiari aurre egiteko ahalik eta jenderik gehien mobilizatzeko estrategiaren alde

Euskadiko Erlijioen Kontseiluan proposamen bat aurkeztea terrorismoari aurre egiteko ahalik eta ondoen koordinatzeko, polizia-lana ahalik eta eraginkorra izateko eta ahalik eta jenderik gehien mobilizatzeko strategiaren aldeko adierazpena onartzeko eta erlijioa aitzakiatzat hartzen duten terrorismo-ekintza guztien aurrean eta xenofobia, islamofobia eta arrazakeria adierazpen guztien aurreko erantzunean erreferente modura aritzeko.

II.2.2. Proiektuak

Polizia-estrategiaren xehetasunez ezin da hitz egin, haren eraginkortasuna arriskuan jar liteke eta. Hala ere, Europar Batasunaren terrorismoaren aurkako borrokarako strategiaren oinarriak onartzen ditugunez gero, erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoaren aurrean jarduteko Ertzaintzak egin duen planaren helburu nagusietako batzuk aipa ditzakegu.

4. proiektua. Prebenitzea

Inor terrorista ez bihurtzea da xedea. Estrategia honen funtsa erradikalizazioaren kontra borrokatzea da, arreta prozesu hori errazten duten inguruabarretan ipiniz. Horretarako, Europar Batasunak dio jomuga nagusiak honako hauek izan beharko lirakeela: desberdintasunak eta bereizkeria ezabatzea, kulturen arteko elkarriketa sustatzea eta epe luzerako integrazioa bultzatzea. Prebentzioaren esparruan helburu hauek lortzeko lan egin behar du Ertzaintzak:

- Diagnosticoa.** Errealitatearen eta erlijioa aitzakiatzat hartzen duen erradikalizazioaren fenomenoaren diagnosticoa eguneratuta edukitzea.
- Prestakuntza.** Berariazko prestakuntza-prozesua ezartzea, fenomeno honekin lan egin behar duten ertzain guztiek beren egitekoen arabera ezagutza eduki dezaten.
- Lankidetzak.** Lankidetzan aritzea Euskadiko, Estatuko eta nazioarteko beste polizia-kidego batzuekin, bai eta segurtasun pribatuarekin ere, eta orain arteko lankidetzak areagotzea, informazioa, ezagutzak eta esperientziak trukatzeko eta baterako datu-baseak lantzeko.
- Trukea** Terroristen sorterrietako inteligentzia-zerbitzuekin eta haien jo-puntuan dauden herrialdeetakoekin harremanetan izatea eta harremanok gehitzea, informazioa elkarri emateko azkar eta modu seguruan.
- Detekzioa.** Erradikalizazio-adierazleak detektatzeko lanak egitea prozesu hori gerta daitekeen eremu guztietan, erradikalizazioa erabat gauzatu aurretik esku hartu ahal izateko.
- Gorroto-delituak.** Gorroto-delituen prebentzioan eta haien kontrako borrokan lan egiten jarraitzea. Delitu horiek xenofobia, islamofobia eta arrazakeria modura ere agertzen dira, besteak beste.

5. proiektua. Babestea

Xedea herritarrak eta azpiegiturak babestea da, eta, horrez gainera, balizko erasoak gertatzeko arriskuak murriztea eta, atentaturen bat gertatuz gero, eragina ahalik eta gehien murriztea ere bai. Hori lortzeko honako helburu hauek erdietsi behar dira:

- Araudia.** Terrorismoaren mehatxuaren prebentziorako eta babeserako jarraibidea eten gabe egokitzea eta polizia-zerbitzu bakoitzari aktibatzen den arrisku-mailaren arabera esleitzea egitekoak eta eginkizunak.
- Balorazioa.** Euskadik jasaten duen terrorismo-mehatxua etengabe ebaluatzea.
- Identifikazioa.** Azpiegitura estrategikoak identifikatzen eta babesten jarraitzea, eta Espainiako Gobernuak Euskadiko egoeraz egiten duen analisia Ertzaintzarenarekin osatzea.

6. proiektua. Jazartzea

Terrorismoaren aurka zuzenean esku hartzea da egitekoa. Helburu hauek ezartzen dira (ezin da xehetasunik eman, jakina):

•**Atxilotzea.** Terroristak jazartzea, ikertzea eta atxilotzea.

•**Neutralizatzea.** Terroristen finantza-iturriak eta gainerako laguntza-baliabide guztiak eragozte.

7. proiektua. Erantzutea

Atentatuak gertatzeko arriskua murriztu daiteke, baina guztiz ezabatu ez. Horregatik, prest eduki behar da erasoak gertatzen denean erantzuteko modua. Hori lortzeko honako helburu hauek landuko dira (hauek ere ezin dira zehaztu, esan gabe doa):

•**Protokoloa.** Atentatu terroristen ondoren erantzuteko protokoloa eguneratuta edukitzea, jardun-prozedura eraginkorra izan dadin eta informazioa (operatiboa eta poliziala) beste polizia-zerbitzu batzuekin berehala koordinatu ahal izateko.

•**Biktimak.** Egunean edukitzea biktimenganako elkartasunerako protokoloa, atentaturen bat gertatzen bada, Ertzaintzak biktimekin eta beren senitartekoekin profesionaltasunarekin ez ezik dotoretasunarekin ere joka dezan.

•**Informazioa ematea.** Baliabide egokiak prest edukitzea herritarrei gertatzen denaren berri emateko. Izan ere, herritarrei informazio zehatza eta egiazkoa eman behar zaie, kontuan edukita, aldi berean, ikerketaren beharrianak eta ezinbestekoa den zuhurtzia.

III. Jardunaren hirugarren ardatza

Prebentzioa gizartean
eta hezkuntzan erradikalizazio
biolentoa ez gertatzeko

III.1. Oinarriak

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren bigarren atalean hezkuntza-balioei buruzko puntua dago, esparru honetarako ezin egokiagoa dena. Puntu horren edukia erradikalizazio biolentoaren prebentzioaren arloan (gizartean eta hezkuntzan) egin beharreko lanera moldatu da.

III.1.1. Erradikalizazio biolentoaren arrazoiak kontzientzia pertsonalean

Terrorismora edo arrazakeria, xenofobia edo islamofobia bezalako gorroto-delitueta jo aurreko erradikalizazio biolentorako prozesuetan ohikoa da kontzientzia pertsonalean lehentasuna ematea ezaugarri etniko, erlijioso, politiko edo sozial bati, edo genero edo jatorri etiketa bati, giza duintasunaren balioaren aldean. Etiketa horietan aurreiritziak, ezjakintasuna eta oldarkortasuna arrazoimenari eta gizatasunari gailentzen zaizkie.

Bizikidetzaren hausteko modu berriak dira. Gizalegez Akordioaren hitzaurrean azaltzen den bezala, bizikidetzaren hausten duten arrazoi nagusia gizakiaren kontzientzian dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa edo sektarismoa nagusitzea da. Humus horretatik hartzen ditu erradikalizazio biolentoak behar dituen elikagai ideologikoak eta justifikazioak.

Lau paradigma horiek gizartearen kulturen eta norberaren pentsamoldean txertatuta egon daitezke, diskrezioz. Lauek ere ezaugarri komun bat dute: inposizioa, indarkeria, giza eskubideen urraketa edo etikoak ez diren bideak erabiltzea normalizatzen dituztela.

III.1.1.1. Dogmatismoa

Norbera guztiz zuzen dagoela eta egia osoaren jabe dela pentsatzea dakar. “Segurtasun” uste hau nahitaezkoa da etikoak ez diren bideak legitimatzeko eta bideok erabiltzera ausartzeko. Dogmatismoa norberaren mugen kontzientzia behar bezalakoa ez izatearen ondorioz sortzen eta hazten da.

III.1.1.2. Fatalismoa

Funtsean ikuspegi biktimista da, eta inposizioa ez beste aukerarik ez dagoela pentsarazten du. Indarkeriaren erabilera “beste aukerarik ez dago” eta “besteek okerrago jokatzen dute” esanez justifikatzen da. Zailtasunen erdian dauden aukerak identifikatzeko ezintasuna du oinarrian.

III.1.1.3. Manikeismoa

Arazoak alde aurreko dikotomia batera murrizten ditu, eta horrela kontzientziari jarraikiz hautatzeko ardura eragozten du. Demagogia arriskutsua da: bidea zabaltzen die “denak balio du” moduko adierazpenei eta, gainera, aurkaria “etsai” bihurtzen du. Manikeismoa kontzientzia etikoan gutxi sakontzen denean zabaltzen da.

III.1.1.4. Sektarismoa

Giza eskubideei baino balio handiagoa ematen zaion ideia baten defentsa kolektibo eta zorrotzegia da. Bestea etiketa soil bihurtzen du. Gizatasuna galtzea ekartzen du, eta batzuetan are ergeltzea ere. Giza duintasunaren balio gorena behar bezala barneratuta ez edukitzean oinarritzen da.

Gizartearen eta hezkuntzaren ikuspuntutik, erradikalizazio biolentoaren prebentzioak zuzeneko lotura dauka bizikidetzaren apurtzen duten lau arrazoi horiei ematen zaien erantzunarekin. Hezkuntza da balio demokratiko nagusia, eta estrategikoena ere bai, seguruenik. Beharrezkoa da giza eskubideen erresetua oinarritzat hartzen duen bizikidetzarako kultura eta hezkuntza sustatzea.

III.1.2. Prebentzioa (gizartekoa eta hezkuntzako) kontzientzia pertsonalean

Erradikalizazio biolentoa gertatzen denean (dela erlijioa aitzakiatzat hartzen duena zein xenofobiari, islamofobiari, arrazakeriari edo beste arrazoi bati lotuta), prebentzioaren arloko erantzuna hezkuntza izan behar da: elkarrekin bizitzen eta denetarikoa herritarren artean integratzen irakastea. Bizikidetzaren balioetan hezi behar dira herritarrak, honako mezu hau oinarritzat hartuta: ez dago giza duintasunaren erresetua baino gauza garrantzitsuagorik.

Denok gara gizartearen eta hezkuntzaren eragileak. Bizikidetza hausten duten lau arrazoi horiei, go-roto-delituei lotuta daudenei, hezkuntzaren arloko erantzuna eman behar zaie, Gizalegez akordioan ezartzen dena urrunago eramanez:

III.1.2.1. Mugen pedagogia

Elkarrekin bizitzea norberaren ikuspegiari beti zerbait falta zaiola onartzea da. Ulertu behar dugu inork ez duela inoiz arrazoi osoa, inork ezin duela dena egin, eta ez dagoela modurik egia osoaren jabe izateko. Hezkuntzaren ikuspuntutik, errealitatearen ezinbesteko manu hori ulertuko badugu, gizakion mugak onartzeko heziketa-esperientzia bultzatu behar da. Esperientzia horrek dogmatismotik babesten gaitu eta elkarrizketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.

III.1.2.2. Balio positiboaren pedagogia

Elkarrekin bizitzea zailtasunen artean aukerei heltzen ikastea da. Horretarako funtsezkoa da balio positiboaren heziketa-esperientzia sustatzea. Esperientzia horri esker ikas daiteke beti daudela etsipena eta etikoak ez diren bideetara jotzea baino aukera hobeak. Balio positiboaren heziketak fatalismoa eragozten du eta aniztasuna sustatzen du.

III.1.2.3. Kontzientzia etikoaren pedagogia

Elkarrekin bizitzea da egoera guztietan norberaren ardura etikoari eustea. Horrek berekin dakar norberaren kontzientzia etikoan sakontzeko heziketa-esperientzia sustatzea. Ez gara dogmatismo, amorru, oldarkortasun, beldur eta norberekoikeria bulkada hutsak; aitzitik, hori baino gehiago gara, arrazoibideak baititugu eta zentzu etiko hautatzeko gauza baikara. Kontzientzia etikoaren heziketa-esperientziak manikeismoa eragozten du eta elkartasuna sustatzen du.

III.1.2.4. Giza duintasunaren pedagogia

Bizikidetza da giza duintasunaren errespetua balio gorena dela ulertzea. Halaber, giza duintasunaren eta giza eskubideen heziketa-esperientzia sustatzea ere bada. Gizaki guztiok merezi dugu errespetua, eta denok daukagu eskubideak. Pertsonak etiketa eta norbanako murrizketa guztiak baino gehiago dira. Horren jakitun izatea erabakigarria da bizikidetza zibilizatua lortzeko. Giza duintasunaren heziketa-esperientziak indarkeriara jotzea eragozten du eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.

Ikuspegi estrategikotik begiratuta eta etorkizunean gizarte integratu bat lortzeko, beharrezkoa da bakearen eta bizikidetzaren aldeko kultura sustatzea, aipatu berri ditugun balioen tankerakoak lantzen dituen pedagogia unibertsala barne hartzen duten gizartearen eta hezkuntzaren arloetako proiektuen bitartez.

Hezkuntzaren aldeko apusturik gabe, bakearen eta bizikidetzaren aldeko kulturarik gabe, gizarterako eta kohesiorako politikarik gabe eta epe ertain eta luzerako balioetan inbertitu gabe zaila izango da bizikidetzari agertzen ari zaizkion erronkei erantzun estrategiko eta globala ematea.

III.1.3. Gizalegez Akordioaren proposamena

Gizalegez Akordioan laburbilduta jasotzen da aurreko bi puntuetan ezartzen dena. Akordio hori hezkuntza arloko ia eragile guztiek sinatu zuten 2013ko urriaren 1ean, Donostiako Kursaal Jauregian, egin zen ekitaldi batean. Hona hemen edukia:

Bake-kulturaren sustapenak eta gatazka suntsitzailen, giza eskubideen urraketen eta mota guztietako indarkeria-fenomenoen prebentzioak lotura zuzena dute bizikidetzaren urraketen honako lau arrazoi hauei ematen zaien erantzunarekin: dogmatismoa, fatalismoa, manikeismoa eta sektarismoa. Prebentziozko erantzun hori eratzearen, gizartearen eta hezkuntzaren arloko konpromiso bat garatzea adostu dugu, lau hezkuntza-oinarri alternatiboren bitartez:

- Bizikidetza zera da, gure ikuspegia beti osatugabea dela onartzea. Mugen esperientzia hezigarriak dogmatismoari aurrea hartzen dio eta elkarrizketa eta indarkeriarik eza sustatzen ditu.
- Batuketa. Elkarrekin bizitzea zailtasunen artean aukerei heltzen ikastea da. Balio positiboaren heziketak fatalismoa eragozten du eta aniztasuna sustatzen du.
- Zatiketa. Elkarrekin bizitzea da egoera guztietan norberaren ardura etikoari eustea. Kontzientzia etikoaren esperientzia hezigarriak manikeismoari aurrea hartzen dio eta enpatia eta elkartasuna sustatzen ditu.

·Biderketa. Bizikidetza da giza duintasunaren errespetua balio gorena dela ulertzea. Giza duintasunaren heziketa-esperientziak indarkeriara jotzea eragozten du eta giza eskubideen errespetua sustatzen du.

Aurrera begira eta gure helburuak indarkeriaren prebentzioa, giza eskubideen babes unibertsala eta gizartea elkartzeko bizikidetzaren eta bakearen kultura direla kontuan izanik, gizartearen eta hezkuntzaren arloko zeharkako proiektu integrala sustatzeko konpromisoa hartzen dugu, betiere lau oinarri etiko horiei buruzko adostasuna abiapuntu modura hartuta. Hainbat eremutatik modu osagarrian sustatzea proposatzen dugu, modu sinple, sortzaile, libre eta askotarikoan.

III.1.4. 2017-2020 Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza-programa Osagarria

2017ko ekainaren 29an Eusko Jaurlaritzak 2017-2020 Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza-programa Osagarria aurkeztu zuen. Dokumentu honen helburua da ildo bakar batetik bideratzea giza eskubideen, bizikidetzaren eta lankidetzaren balioen hezkuntzaren inguruko ekimen eta proiektu guztiak, hau da, baterako oinarri eta helburuak bide berean jartzea.

Hau da oraingo legealdiko erronka estrategikoa arlo honetan: giza eskubideei buruzko hezkuntza-proiektua sendotzea, giza duintasunaren irizpide pedagogikoan oinarritua eta bakearekiko, aniztasunarekiko eta elkartasunarekiko konpromisora bideratua, enpatiaren aldeko hautua aintzat hartuta. Helburu nagusia hezkuntza-tresnak sortzea da, bai eta bizikidetzaren arloan konpontzeke dauden edo sortzen ari diren erronkei aurre egiteko elkarrekintzak sortzea ere, gizartean eta hezkuntzaren arloan.

Hori guztia lotuta dago erlijioa aitzakiatzat hartzen duen erradikalizazio biolentoaren eta xenofobiaren, islamofobiaren eta arrazakeriaren prebentziorako (gizartean eta hezkuntzan) bultzatu beharreko ikuspegi kontzeptualarekin eta proiektuekin. Gizalegez Akordioa, alderdi askok bat egindako ekimen bat aipatzearen, Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren gaineko Hezkuntza Programa Osagarriaren funtsezko osagaia da. Horregatik, dokumentu hori erreferentzia nagusia da jardun-ardatz honen garapenerako.

III.2. Jardun-ildoak

Gizarte-hezkuntzako prebentziorako ekintza-estrategian bi jardun-ildo nagusi daude: akordioak eta proiektuak. Lehenbizi, lankidetzaren oinarri duen prebentzio-proiektuari eusten dioten bi oinarri-akordioak azalduko dira. Ondoren, proiektuak aurkeztuko dira.

III.2.1. Oinarri-akordioak

III.2.1.1. Gizalegez akordioa erlijioen eremura hedatzea

Akordioa ADOS Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aritzeko Aholku Batzordean eta Euskadiko Erlijioen Kontseiluan, Gizalegez akordioaren proposamena erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzara hedatzeko. Akordioaren berriazko helburua izango da ez gertatzea ez erlijioa aitzakiatzat hartzen duten terrorismo-ekintzarik ez inolako xenofobia, islamofobia ez arrazakeriarik. Akordio honen kudeaketan, aplikazioan eta garapenean funtsezkoa izango da Hezkuntza Sailaren, Eskola Kontseiluaren eta EAEko hezkuntza-agente guztien lana.

III.2.1.2. Gazteen eta baterako balioen sarea sortzea

Akordioa ADOS Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aritzeko Aholku Batzordean EAEko Gazteriaren Kontseiluarekin batera kultura eta erlijio desberdinetako gazteen sarea sortzeko, kulturen eta erlijioen arteko bizikidetzaren balioak sustatzeko. Sare horren helburu nagusiak izango dira kultura eta erlijio desberdinetako gazteen bizikidetzaren ezagutzea eta sustatzea, denen artean aniztasunaren alde egitea, eta erlijioa aitzakiatzat hartzen duen indarkeriaren eta xenofobia, islamofobia eta arrazakeria adierazpen guztien aurrean erantzutea. Horretarako, azken urteetan bakearen aldeko gizarte-mugimenduetan jardun duten pertsonen esperientzia garrantzitsuak bilduko dira, bai eta guztiaren ildo berean lan egin duten pertsonen esperientziak ere.

III. 2.2. Proiektuak

8. proiektua. Prestakuntza

·**Prestakuntza-modulua.** Modulu bat antolatzea gazteak eta helduak erlijioen eta kulturen arteko elkarbizitzarako prestatzeko eta erradikalizazio biolentoaren prebentziorako (erlijioa aitzakiatzat hartzen duena zein xenofobiari, islamofobiari, arrazakeriari edo beste arrazoren bati lotuta). Modulua honako hauentzat izango da batik bat: hezitzaileak, administrazio publikoetako funtzionarioak eta erlijio-irakaskuntzan ari diren pertsonak.

9. proiektua. Hezkuntza

·**Ikasle etorkinen hezkuntza-arreta.** Eskola inklusiboaren eta kultura artekoaren esparruan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planean (2016-2020) (5. ardatz estrategikoa. Helburuak: 5.1, 5.2, 5.3, 6.1 eta 6.2) proposatzen diren prestakuntza eta ikerketaren arloetako helburuak eta planak eta programak gauzatzea.

·**“Eskola mundura doa” hezkuntza-eredua.** Ekintza hau gauzatzea 2017-2020 Giza Eskubideen, Bizikidetzaren eta Lankidetzaren Hezkuntza-programa Osagarrian ezartzen den bezala. Proiektu honek proposatzen du pertsona desberdinegana hurbiltzeak —ezagutzeko eta esaten dutena entzuteko— hezkuntza-tresna izan behar duela. Horretarako, erlijio desberdinetako pertsonen lekukotzak eta bizipenak zuzenean ezagutzeko aukera emango da.

·**Bizikasi ekimena.** Hezkuntza Sailak Bizikasi ekimena abiaraziko du. Helburu nagusia da ikastetxeak ikaskuntza eta garapen pertsonal eta sozialerako erabiltzea; horrela, eskola-komunitateko kide guztien ezagutzak eta konpromisoak modu iraunkorrean partekatuz, ikastetxeak elkarbizitza positiborako esparruak izatea eta inolako jazarpenik ez gertatzea lortuko da. Besteak beste, ekimen honetan ezartzen da ikastetxeetan prestakuntza ematea irakasleei zein bestelako langileei eta familiei, eta unitate didaktikoak antolatzea tutoretza-saio jakin batzuk egiteko Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan eta DBHko 1. eta 2. mailetan.

10. proiektua. Dibulgazioa

·**Aniztasunaren gidak.** Udalerrri edo eskualde bakoitzeko kulturen eta erlijioen aniztasunaren ezagutzarako eta pedagogiarako tokiko gidaliburuak egiteko eredu-dokumentua prestatzea (2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana).

·**Jardunaldi espezializatuak.** Eskolako elkarbizitzaz eta eskolan gertatzen diren indarkeria-kasu eta desberdintasunak gainditzeaz hausnartzeko jardunaldiak, topaketak edo mintegiak egitea, gai horietan arrakasta izan duten ekimenak ezagutzeko eta ikerlan zorrotzak eta azterketa eta eztabaida publikoak bultzatzeko.

11. proiektua. Ekintza espezifikoak

·**Hezkuntza-argitalpena.** ADOS Euskadiko Komunitate Islamikoekin Lankidetzan aritzeko Aholku Batzordearekin elkarlanean, erradikalizazio biolentoaren prebentziorako hezkuntza-dokumentua prestatzea eta argitaratzea, meskitetan banatzeko.

·**Hezkuntza-eredua tutoretzapeko zentroetan jarduteko.** Erakundeen tutoretzapeko etxeetan bizi diren adingabeen eta gazteen erradikalizazio biolentoaren prebentziorako hezkuntza-modulua prestatzea Lan eta Justizia Sailarekin lankidetzan.

·**Hezkuntza-eredua espetxeetan jarduteko.** EAEko espetxeetan dauden pertsonen erradikalizazio biolentoaren prebentziorako hezkuntza-modulua prestatzea Lan eta Justizia Sailarekin lankidetzan.

IV. Jardunaren laugarren ardatza

Jarrera
politikoa, EAEn
eta nazioartean

IV.1. Oinarriak

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren bigarren ataleko testuetan, XXI. mendearen hasieran mundu osoan agertzen ari diren erronketako batzuei aurre egiteko abiaburuak zehazten dira. Dokumentu horietako baten gaia terrorismoaren mehatxua da. Hauxe da izenburua: *“Nazioarteko terrorismoaren aurrean, demokraziaren balioak”*.

Abiaturat hauxe hartzen du: printzipio demokratikoen, segurtasunaren eta giza eskubideen konpromisoa. Bi ildoren arteko loturak deskribatzen du Jaurkitzearen jarrera: batetik, denboran zehar iraungo duen dimentsio anitzeko erantzuna eman beharra nazioarteko terrorismoaren egiturazko kausak azterteko; bestetik, terrorismo horren ahalmenari aurre egiteko alde anitzeko erantzuna eman beharra.

Dokumentu horrek modu egokian zehazten ditu Eusko Jaurkitzeak bere jarrera politikoa finkatzeko eta bere ekarpena, EAEn zein nazioartean, egiteko erabili dituen oinarriak. Hona testua:

IV.1.1. Nazioarteko terrorismoari lotuta dauden egiturazko faktoreen aurrean dimentsio anitzeko erantzuna emateko printzipioak

•Integrazio-printzipioa

Gizartearen eta hezkuntzaren konpromisoa litzateke. Kohesio eta integrazio sozialerako politikak, giza eskubideen arloan hezteko politikak eta erlijioen eta kulturen arteko bizikidetzarako politikak sustatzen jarraitzea du helburu, bai tokiko instituzioetatik eta bai nazioarteko instituzioetatik.

•Lankidetzaren printzipioa

Elkartasunaren konpromisoan sakontzea dakar, lankidetzaren politiken bitartez, batez ere nazioarteko terrorismoak gehien eraso dituen herrialdeetan. Herrialdeen politika horiek diseinatzeko orduan zuzenean parte hartzen dutela bermatu behar duen lankidetzaren ereduak litzateke. Horrela, politikek herrialde horien beharrei erantzun egokia eman, haien potentzialtasuna bultzatuko dute eta herrialdearen berezitasun erlijioso eta kulturala errespetatuko dute.

•Printzipio etikoa

Terrorismoari aurka egiteko, indarkeriaren aurrean etengabe eta modu aktiboan mobilizatzeko eta biktimen enpatia eta ahalik eta hurbiltasun gehien erakusteko konpromiso politiko eta instituzional irmo eta anitza bultzatzea eta mantentzea dakar.

IV.1.2. Nazioarteko terrorismoak jarduteko duen ahalmenaren aurrean erantzun aldeaniztuna emateko printzipioak

•Eraginkortasun-printzipioa

Nazioarteko terrorismoak jarduteko duen ahalmenari eman beharreko erantzunaren ikuspuntutik, poliziaren eta inteligentzia-zerbitzuen erantzuna eraginkorra litzateke epe laburrean. Horrekin batera, ekintza judiziala ere beharrezkoa litzateke. Ekintza horrek legeria kontuan hartuta esetsi behar du terrorismoa eta bereziki, maila politiko eta ekonomikoen arteko lankidetzaren bultzatze behar du nazioartean, terrorismoa posible egiten duten finantzaketa- eta hornikuntza-bideak erasotzeko.

•Proporzionaltasun-printzipioa

Ikuspuntu operatibotik, nazioarteko terrorismoak ez du konponbide militarrik. Izan ere, ez litzateke eraginkorra izango baina horrez gain, printzipio etikoa, giza eskubideen konpromisoa eta terrorismoak kalteetako biztanleei laguntzeko betebeharrak humanitarioa kontuan hartuta, gerrak ez du irtenbide modura balio eta are gutxiago alde bakar batek nahi edo planteatzen badu. Kasu-kasu justifikatutako egoeretan eta Nazio Batuen agindura egokituz, emandako baliabide militarren erabilera nazioarteko terrorismoari erantzuteko estrategia globalaren osagaietako bat izan daiteke.

•Koordinazio-printzipioa

Poliziaren eta inteligentzia zerbitzuen konpromisoa etengabe indartzea esan nahi du, eta baita informazioa emateko eta prebentziorako baliabide guztiak gure inguruko polizia guztiak lankidetzan

aritzeko eta koordinatzeko erabiltzea ere, atentatuak ekiditeko. Konpromiso hori, krisi garaietan eskatzeaz gain, aplikatu eta egonkortu egin behar da denboran zehar.

Beraz, 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planari atxikitako testu horrek Eusko Jaurlaritzaren jarrera finkatzeko oinarriak zehazten ditu. Erakundearen jarreraren eragina erlatiboa da, baina garrantzitsua da inolako ezbairik gabe. Kasu honetan, erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoa behatzeko eta aztertze eta haren aurka jarduteko modua finkatzen du. Jarrera politiko-instituzional honek EAEn zein nazioartean dauzka ondorioak.

IV.2. Jardun-ildoak eta proiektuak

IV.2.1. Jarrera politikoa EAEn

Hiru proiektu prestatu dira Eusko Jaurlaritzak terrorismoaren aurrean daukan jarrera politikoa EAEn gauzatzeko, gai hauek ardatz hartuta: mobilizazioa, biktimak eta gizarte-topaketa.

12. proiektua. Mobilizazioa terrorismoaren aurrean

Eusko Jaurlaritzak mobilizazioa bultzatuko du beti erlijioa aitzakiatzat hartzen duten terrorismo-ekintza guztien aurrean eta xenofobia, islamofobia eta arrazakeria adierazpen guztien aurrean. Mobilizazioen xedea kultura eta erlijio desberdinetako herritarrek elkarrekin erantzutea izango da. Horretarako, Euskadiko Erlijioen Kontseiluan terrorismoaren aurrean erantzuteko eta mobilizatzeko konpromisoaren inguruan lortutako akordioa izango da jarduteko protokoloa. Lehendakaritzak atentatuen aurrean erakunde-erantzuna emateko protokoloa prestatuko du.

13. proiektua. Terrorismoaren biktimekiko konpromisoa hartzea

Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak arreta-zerbitzua emango die Euskadin gertatzen diren atentatuetakiko biktimei eta Euskaditik kanpo gertatzen diren atentatuetakiko euskal biktimei. *Ekainaren 19ko 4/2008 Legea, EAEko Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa*, aipatutako bi kasuetan aplikatuko da. Eusko Jaurlaritzako Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak eta Lan eta Justizia Saileko Biktimari Laguntzeko Zerbitzuarekin lankidetzan elkarrekin lan egingo dute terrorismoaren biktimei elkartasun-arreta eraginkorra emateko protokoloa prestatzeko; horretarako, biktimei berehala laguntzeko bulegoa eratuz.

14. proiektua. Gizarte-topaketa

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planak hainbat ekimen zehazten ditu Eusko Jaurlaritzak erlijioen eta kulturen arteko elkarbizitza dela eta daukan jarrera garatzeko. Hala, bada, 7. ekimenean “aniztasunaren kudeaketa positiboa” garatzen da eta 8. ekimenean “elkartasuna sustatzea”; bizikidetzaren eta giza eskubideen kulturaren sustapenaren barruan, 9. ekimenean “hezakuntza” lantzen da, 10. ekimenean “dibulgazioa” eta 11. ekimenean “parte hartzea”. Horiek guztiak Eusko Jaurlaritzak EAEn bizikidetza integratua eta integratzailea, aniztasunaren errespetuan oinarritua, lortzeko ezarritako proiektuaren barruan daude.

IV.2.2. Jarrera politikoa nazioartean

Eusko Jaurlaritzak erakunde modura nazioartean jarduteko hartu duen jarrera politikoa, bere mugak zein ahalak kontuan hartzen dituena, hiru proiektu hauetan gauzatzen da:

15. proiektua. Kanpo-ekintza

Ildo honen funtsa da euskal gizarteak eta bertako erakundeek nazioarteko terrorismoaren aurrean duten jarrera Eusko Jaurlaritzaren Kanpoko Ekintzarako Euskal Agendaren osagaitzat hartzea. Horren ildotik, Eusko Jaurlaritzak dokumentu honetan aldeztzen diren tesiak babesten eta sustatzen ditu Europan eta nazioartean, eta konpromisoa hartzen du bere esku daukan guztian laguntzeko, batez ere polizien koordinazioan eta inteligentziaren arloan. Horren arabera Eusko Jaurlaritzak modu aktiboan parte hartuko du arlo hauetako Europako eta nazioarteko sareetan.


16. proiektua. Ekintza humanitarioa

Eusko Jaurkitzak arlo honetan hartutako konpromisoari eutsiko dio: bere ekimenez edo Nazio Batuen edo nazioarteko eta Europako beste erakunde batzuen deiei jaramon eginez, gerrek, nazioarteko terrorismoak eta denetarik indarkeriak eragiten dituzten larrialdi humanitarioak arintzeko erabakiak hartuko ditu. Ekintza humanitarioetan honako helburu hauek lehenetsiko dira, besteak beste: oinarritzako ondasunak eta zerbitzuak hornitzea; hezkuntza-egiturak berreraikitzea; indarkeriaren ondorioak murriztea; biktimak babestea. Ekintza-programa hau aplikatzen da Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentzian eta Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren lan-plangintzetan.

17. proiektua. Prebentzioa

Ekintza humanitarioa prebentzioarekin osatu behar da, egoera arintzera mugatu beharrean integrala eta eraldatzailea izan dadin. Ekintza-programa honen xedea da gerrak, nazioarteko terrorismoak edo indarkeriak gehien kolpatzen dituzten tokietan bakearen, justiziaren eta berdintasunaren aldeko proiektuak gauzatzen laguntzea. Proiektuak prebentziokoak izan behar dira, eta laguntza eta lankidetzako politiken bitartez bideratuko dira, zuzenean zein gizarteko edo erakundeetako eragileen bidez. Bi ildo lehenetsiko dira: gatazkak modu baketsuan konpontzea eta eskubide sozialak berreraikitzea. Ekintza-programa hau aplikatzen da Garapenerako Lankidetzarako Euskal Agentzian eta Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren lan-plangintzetan.





3. dokumentua

ADOS aholku-batzordea,
Legegintzaldi honetan egindako
lan-planak eta jardueren balantzea

ADOS aholku-batzordea

Legegintzaldi honetan egindako lan-planak eta jardueren balantzea



2020ko apirila

Giza Eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Sarrera

2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana 2017ko urriaren 10ean onartu zen, Gobernu Kontseiluaren erabaki bidez. Plan horrek Euskadiko giza eskubideen agenda bikoitza jorratzen zuen: *egiteko dauden gauzen agenda*, indarkeriaren amaierarekin lotutakoa, eta *zeregin berrien agenda*, bizikidetzaren erronka berriei lotutakoa. Bigarren horretan sartzen dira, besteak beste, aniztasunaren kudeaketa positiboa, erlijioen arteko bizikidetzaren, arrazakeriari emandako erantzunak, xenofobia, islamofobia, gerra eta nazioarteko terrorismoa.

Lehendakariaren mandatuz, 2017an, sailarteko lantalde batek esparru-dokumentu bat egin zuen, erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoari aurre egiteko jarraitu behar zuen estrategia zehaztu zezan Eusko Jaurlaritzak. Idatzi ondoren, eta ekarpenak jasotzeko lau hilabeteko epea amaitu ostean, 2018ko apirilaren 10ean, Gobernu Kontseiluak “EAEko komunitate islamikoarekin batera bizikidetzaren sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren jarduketaren programa” onartu zuen.

Definizio estrategikoa eginez gero, jarduketaren programak zehazten du funtsezko gakoak erlijioen eta kulturaren arteko aniztasunaren zentzua garatzea dela. Esparru horretan, programaren aurreikuspen nagusietako bat komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko aholku-batzorde bat sortzea da. Batzorde horri balio nagusia ematen dio. 2018ko apirilaren 14an eratu eta jendaurrean aurkeztu zen batzordea.

“EAEko komunitate islamikoak —dio programaren testuak— EAEko gizartearen osagai dira. Gure gizartea denetarikoa dela erakusten dute. Elkarrengana bilduta egiten diogu aurre mehatxu honi (erlijioa aitzakiatzat hartzen duen nazioarteko terrorismoa), denok ukitzen gaituelako eta elkarrekin eta bakean bizi nahi dugulako, hau da, elkarrekin bizi nahi dugulako aske. Gizarte bereko herritarrak gara denok. Horixe da abiapuntu nagusia. Horixe da jarduketaren programa hau eta bertan ezartzen den estrategia eraikitzeko erabili den paradigma”.

ADOS aholku-batzordea kide anitzeko organoa da, Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko erakundearen politika publikoetan parte hartzeko, lankidetzan aritzeko eta aholku emateko EAEko komunitate islamikoekin dituzten harremanetan, bai eta honako arlo hauetan ere: kulturen eta erlijioen arteko kohesioa eta integrazioa, erradikalizazio biolentoaren prebentzioa, erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismo mota ororen eta haren legitimazioaren aurkako borrokan, eta arrazakeria, xenofobia edo islamofobiaren adierazpen ororen aurkako borrokan.

ADOS aholku-batzordearen helburua da komunitate islamikoak EAEko gizartean modu integratuan bizi daitezen sustatzea eta indartzea, gizarte horren parte direla ulertuta.

ADOS aholku-batzordearen erronka estrategikoa, bestalde, honako hau da: Eusko Jaurlaritzaren eta komunitate islamikoaren arteko harremanak bultzatzea, eta honako arlo hauetan laguntzea: kulturen eta erlijioen arteko kohesioa eta integrazioa, erradikalizazio biolentoaren prebentzioa, erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismo mota ororen eta haren legitimazioaren aurkako borrokan, eta arrazakeria, xenofobia edo islamofobiaren adierazpen ororen aurkako borrokan.

Hauek dira, zehazki, ADOS aholku-batzordearen helburuak:

- Eusko Jaurlaritzari aholku ematea eta Eusko Jaurlaritzak EAEko komunitate islamikoarekin batera bizikidetza sustatzeko abiarazi duen jarduketa programa garatzen parte hartzea.
- Eusko Jaurlaritzari aholku ematea eta hari laguntzea ezaugarri hauek dituen islama sustatzen: EAEko gizartean errotua, irekia, tolerantia eta erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoaren legitimazioaren kontrakoa.
- Eusko Jaurlaritzari aholku ematea eta hari laguntzea EAEko komunitate islamikoen premia eta kezkei erantzuteko, eta hori guztia EAEko gizartean hobeto integra daitezen lortzeko.
- Noranzko biko komunikazio naturala bideratzen laguntzea, bai Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko komunitate islamikoen artean, bai komunitate horien eta EAEko erakundeen artean.

ADOS aholku-batzordea Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiari atxikita dago, baina ez da Idazkaritza horren egitura organikoaren parte.

Osoko bilkuretan eta batzordeetan lan egiten du. Osoko bilkuretan, bada, Eusko Jaurlaritzako, foru-aldundietako, EUDELeko eta EAEko komunitate islamikoetako ordezkariak parte hartzen dute. Zehazki, honela dago osatuta batzordea:

- Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordeburua da, eta batzordeburuari dagozkion zereginak ditu.
- Segurtasun Saileko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordekidea da.
- Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordekidea izango da.
- Hezkuntza Saileko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordekidea da.
- Justizia Saileko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordekidea da.
- Foru-aldundietako hiru ordezkari. Ordezkari horiek batzordekideak dira.
- EUDELeko ordezkari bat. Ordezkari hori batzordekidea da.
- EAEko komunitate islamikoetako zortzi ordezkari.

Eusko Jaurlaritzako sailetako, foru-aldundietako eta EUDELeko ordezkari gisa jardungo duten batzordekideak erakunde bakoitzaren funtzionamendu-arauen arabera izendatuko dira.

EAEko komunitate islamikoetako ordezkari gisa jardungo duten batzordekideak Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak hautatu eta izendatuko ditu.

1. ADOS aholku-batzordearen lan-planak eta balantzeak

1.1. Lehen lan-plana

1.1.1. 2018-2019 aldirako lan-agenda

ADOS Batzordearen 2018rako lan-agendak bost ardatz ditu, aholku-organo horren eginkizunak zehazten dituztenak:

1. ardatza. Aldian-aldean, komunitate islamikoen bizikidetza integratuaren egungo errealitateari eta etorkizuneko ikuspegi buruzko diagnostiko eta hausnarketa estrategikoa partekatzea eta eguneratzea EAEko gizartean.

Ekintzak:

- EAEko gizartean komunitate islamikoen bizikidetza integratuaren egungo errealitateari eta etorkizuneko ikuspegi buruzko azterketa akademiko bat egin dadin agintzea. (2018ko lehen seihilekoa)
- Jaso ondoren, hura aztertzea eta balioestea, ondorio estrategikoak ateratzeko. (2019ko lehen seihilekoa)

2. ardatza. Lan-programa bat ezartzea, Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan bizikidetza sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren Jarduera-Programa garatzen laguntzeko, arreta berezia jarritzeko gizarte-kohesioaren, erradikalizazioaren prebentzioaren eta terrorismo, indarkeria, arrazakeria, xenofobia edo islamofobia mota guztien aurkako oposizioaren esparruetan.

Ekintzak:

- Eusko Jaurlaritzaren jarduera programaren aurreikuspenei pixkanaka heltzea. 2018ko bigarren seihilekorako eta 2019ko lehen seihilekorako bultzatzea aurreikusten da:

Prebentzioa	-Erradikalizazioa prebenitzeko jardunaldi batzuk antolatzeak aukera aztertzea, nazioarteko esperientziak ezagutzeko. -Erradikalizazio-prozesuak goiz identifikatzeko foroa sortzeko lehen urratsak egitea.
Hezkuntza	-Erligioen arteko bizikidetzari eta erradikalizazioaren prebentzioari buruzko hezkuntza-dokumentuaren oinarritzko proposamena aztertzea. -Gizalegez Akordioa erlijioen arteko esparrura hedatzeko lehen urratsak egitea.
Bizikidetza	-EAEko Erligioen arteko Kontseiluaren sorrera eta komunitate islamikoek Kontseiluan duten parte-hartzea aztertzea. -Terrorismoaren aurkako strategiari erantzuteko protokolo-proposamena eta hura babesteko adierazpena aztertzea. -Gazteen eta balio partekatuen sarea sortzeko lehen pausoak ematea.

3. ardatza. EAEko gizartean errota, irekia, tolerantzia eta erlijioa aitzakiatzat hartzen duen terrorismoaren legitimazioaren kontrako islamaren instituzionalizazioa bideratutako neurriak eta jarduerak definitzea, proposatzea eta sustatzea.

Ekintzak:

- Lan-batzorde bat eratzea ADOS aholku-batzordearen barruan, EAEko jatorria duen islama sustatzeko proposamenak eta neurriak azter ditzan, bost kezka- eta okupazio-eremuri helduz:

- Meskiten eta komunitate islamikoen autonomia beren doktrinan, edukietan eta finantzaketan.
- Bertako hizkuntzak erabiltzea meskiten eta komunitate islamikoen berezko jardueretan.
- Gardentasuna eta meskitak EAEko gizarteari irekitzea, berezko eremu gisa, eta ez bakarrik atzeritarren erlijio-esparru gisa.
- Imamen hizkuntza-, kultura- eta lege-prestakuntza.
- Gazte musulmanen kezkak meskiten buruz eta beren adinekoren belaunaldiei buruz.

4. ardatza. EAEko komunitate islamikoen beharrak, kezkak eta aldarrikapen nagusiak identifikatzea, eta haiei erantzun positiboa emateko neurriak eta jarduerak definitzea, proposatzea eta sustatzea, EAEko gizartearen hobeto integra daitezen.

Ekintzak:

-Komunitate islamikoen kezka eta aldarrikapen nagusiei buruzko azterlana egiteko mandatua onartzea, oinarritzko musulmanei buruzkoa. Azterlan hori agintzeko abiapuntu bat 3. puntua da. EAEko erlijio aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txosteneko proposamenak. Dokumentu horretan, besteak beste, honako gai hauek identifikatzen dira:

- Administrazio autonomikoaren eta erlijio-konfesioen arteko lankidetzak-hitzarmenak.
- Erlijio-ekitaldietarako eta ekitaldi publikoetarako laguntza instituzionalari buruzko protokoloak.
- Erlijio-erakundearen erregistro-liburua edo -zerrenda, eta erlijio-konfesioen mapa.
- Erlijio gutxituen gaineko estereotipo eta aurreiritzien aurkako ekintzak.
- Lanbide estrategikoen prestakuntza: kazetariak, funtzionarioak, poliziak...
- Gurtza Aretoen Legea. Espazio edo ekipamendu publikoen erabilera.
- Erlijioari lotutako laguntza ospitale eta establezimendu publikoetan.
- Gizarte-ekintzaren esparruko lanetarako baliabide publikoak eskuratzea.
- Jaiegunak eta otoitz egiteko ordutegiak. Jaiegunen egutegia.
- Hileta-errituak eta ehorzketa-partzelak.
- Hiltegiak erabiltzea animaliak data jakinetan hiltzeko.
- Ikastetxeetan eta beste establezimendu publiko batzuetan menu egokituak.
- *Hiyabaren* erabilera ikastetxeetan.
- "Erlijioen historiari" eta erlijio-egitateari buruzko irakasgaia.
- Erlijio minoritarioetako irakasleak eta erlijio-irakasgaia.

5. ardatza. Elkarren arteko komunikazio-, harreman- eta lankidetzak-metodologia definitzea, proposatzea eta sustatzea, bai Eusko Jaurlaritzaren eta EAEko komunitate islamikoen artean, bai horien eta EAEko erakundearen artean.

Ekintzak:

- Komunikatzeko bide bat eta eredu bat adostea ADOS aholku-batzordeak garatzen duen lanaren eta EAEko komunitate islamikoen artean.
- Komunikatzeko bidea eta eredua ebaluatzea, eta pixkanaka hobetzeko eta zabaltzeko aukerak aztertzea.

1.1.2. ADOS aholku-batzordearen lehen lan-planaren balantzea eta betetze-maila

Helburuak	Betetze-maila
Txosten kualitatibo bat egitea komunitate islamikoek bizi duten errealitateari buruz, EAEko gizartean dituzten bizikidetzak-ikuspegiak buruz eta EAEn bizi diren herritar musulmanen kezkei eta aldarrikapenei buruz.	Handia: Azterlana 2018ko ekainetik 2019ko urtarrilera bitartean egin zen. 2019ko urtarrilaren 26an <i>World-Tea</i> egin zen komunitate islamiko desberdinetako kideekin, txostenaren emaitzak aurkezteko eta haiekin eztabaidatzeko.
ADOS aholku-batzordearen barruan lantalde bat eratzea, EAEko gizartean sustraitutako islama sustatzeko proposamenak eta neurriak azter ditzan.	Handia: 2019ko irailean esperientzia pilotu bat jarri zen martxan EAEko hiru meskitatan, EAEko errealitatean hobeto integratzeko helburuarekin. Meskita horiek 5 esparrutan probatuko dituzte neurriak: hizkuntza, autonomia, generoa, gazteria eta diskurtso soziala.
Komunikatzeko bide bat bultzatzea ADOS aholku-batzordeak garatzen duen lanaren eta EAEko komunitate islamikoen artean.	Handia: ADOS aholku-batzordeak egin zuen lehen bileran bertan erabaki zen komunikazio bidea Facebook izango zela. 2020ko martxoan webgune bat sortzea erabaki zen, eta ekainean aurkeztu da.
Erradikalizazioa prebenitzeko nazioarteko esperientziei buruzko jardunaldi bat antolatzea.	Handia: 2019ko ekainaren 6an egin zen jardunaldi hori Kursaal biltzarren jauregian.
Erradikalizazio biolentoaren prebentzioari buruzko gizarte- eta hezkuntza-programa bat bultzatzea.	Handia: 2019ko ekainaren 6an aurkeztu zen erradikalizazio biolentoa prebenitzeko gizarte- eta hezkuntza-programa, UZTARTU izeneko. Aurreikuspenen arabera, lehen esperientzia pilotua 2020ko otsaila eta ekaina bitartean egitekoa bazen ere, Covid-19ren osasun-krisiak programa eten du, hainbat saio udazkenean atzeratuz.
Terrorismoari aurre egiteko protokolo-proposamen bat eta hura babesteko adierazpena egitea.	Egiteke: ADOS aholku-batzordearen II. lan-agendaren esparruan ezartzea aurreikusi da.
Gizalegez akordioa erlijioen eremura hedatzea.	Egiteke: ADOS aholku-batzordearen II. lan-agendaren esparruan ezartzea aurreikusi da.
Erradikalizazio-prozesuen identifikazio goiztiarrerako foro bat sortzea.	Egiteke: ADOS aholku-batzordearen II. lan-agendaren esparruan ezartzea aurreikusi da.
Gazteen eta baterako balioen sarea sortzea.	Egiteke: ADOS aholku-batzordearen II. lan-agendaren esparruan ezartzea aurreikusi da.
Gurtza Aretoen Legea onartzea	Bitartekoa: Lege-proiektua 2019ko ekainean onartu zuen Gobernu Kontseiluak. Orain Legebiltzarrean izapidetzeko dago.
EAEko Erlijioen arteko Kontseilua sortzea.	Egiteke: lehenbizi Gurtza Aretoen Legea onartu behar da, eta legea Legebiltzarrean dago, zuzenketak aurkezteko fasean.
EAEko erlijio-erakundeen eta gurtza zentro eta tokien errolda bat sortzea.	Bitartekoa: Lana hasita dago. ADOS aholku-batzordearen II. lan-agendaren esparruan aurreikusi da aurkeztea proposamena.
EAEko erlijioen mapa soziologiko bat egitea.	Handia: Lana amaituta dago. ADOS aholku-batzordearen II. lan-agendaren esparruan aurreikusi da aurkeztea proposamena.

Hasiera batean aurreikusita ez zeuden beste proiektu eta jarduketa batzuk

ADOS aholku-batzordearen bileren eta eztabaiden ondorioz, hasiera batean aurreikusi ez ziren eta atal honetan azaltzen diren ekimenak sartu dira. Hiru hauek dira aipagarrienak:

-Informazio-topaketak komunitate islamikoekin. Hiru informazio-topaketa egin dira hiru lurralde historikoetako komunitate islamikoekin: 2018ko ekainaren 23an Araban, 2018ko urriaren 6an Bizkaian eta 2018ko abenduaren 15ean Gipuzkoan. Topaketa horien helburua izan zen ADOS aholku-batzordearen proiektua eta lan-plana aurkeztea.

-Komunitate islamikoen aldarrikapenak eta kezkak bideratzea. ADOS batzordeak bere gain hartu duen zereginetako bat EAEko komunitate islamikoen aldarrikapenak eta kezkak aztertzea izan da, kasu bakoitzean eragindako erakundeen aurrean kudeatzen eta bideratzen saiatzeko. Hezkuntzaren arloan, garatutako kudeaketari esker, komunitate islamiarrek planteatutako beharretara egokitutako menu berri bat eskaini da 2019-2020 ikasturtean. Osasun Sailarekin bi bilera egin ziren, eta honako dokumentu hau berrikusi zen: *“Gizonen zirkunzisia, erlijioaren edo kulturaren eraginezko eskaria”*. Euskadiko etika batzordeen Batzorde soziosanitarioak gogo onez onartu du komunitate islamikoetako zenbait ordezkari sartzea, dokumentu hori berrikusteko lana aberasgarriagoa izan dadin.

-Bakarrik dauden adingabeko atzerritarren arazoei erantzuten laguntzea. ADOS batzordeak azken bileretan tarte bat hartu du bakarrik dauden adingabeko atzerritarrei lotutako arazoei erantzuten laguntzeko aukerei buruz hausnarketa egiteko; izan ere, gai-zerrendetan sartu du gai hori. Zehazki, aukera hauek ari dira aztertzen: familia-harrera, lzeba proiektukoa bezalako *mentoring* figuren sustapena, edo meskiten eta imamen inplikazio handiagoa bilatzea gazte horien jarraipenean eta laguntzan.

Balantzearen ondorioak

Aurreko puntuan azaldutakoari lotuta, bi ideia nabarmentzeko aukera ematen duten lehen ondorio batzuk atera daitezke: lehenik eta behin, ADOS batzordea abian jartzeko, bultzatzeko eta sendotzeko lehen etapa bat bete da; eta, bigarrenik, lehen ibilbide honetan garatutakotik abiatuta, indartu beharreko zenbait ardatz nabarmendu behar dira.

Lehen finkapen-etapa

2018ko apiriletik 2019ko irailera bitartean ADOS batzordeak 7 bilera egin ditu; horrela, I. agendan ezarri ziren aurreikuspenak bete ditu. Beraz, egindako lanaren gainean balantze ona egin behar da. Hasierako etapan egin den lana baliagarria izan da ADOS batzordea etorkizunerako proiektu gisa eratzeke, abian jartzeko eta, batez ere, finkatzeko. Balorazio positibo hori nabarmenagoa da, kontuan hartzen bada batzorde hau jarduteko eredu aitzindaria dela, bai funtzionamendu-metodoari edo edukiei dagokienez, bai osakerari dagokionez.

Indartu behar diren ardatzak

Lanaren balorazio ona egin da; baina, orain, ADOS batzordearen eta *Eusko Jaurlaritzak EAEko komunitate islamikoarekin batera bizikidetza sustatzeko Jarduketa Programaren* helburuak betetzeko indartu behar diren ardatzak identifikatu behar dira. Alderdi horiek hiru puntutan labur daitezke, II. lan-agendaren oinarria ezartzeko lehentasunen diagnostikoa eginez. Honako hauek indartu behar dira:

- Interakzio positiboa EAEko gizartearen, erakundearen eta eragilearen eta EAEko komunitate islamikoaren artean: *lankidetza handiagoa*.
- Komunitate islamikoak eta haien meskitak, elkarteak eta eragileak EAEko gizarteari irekita egoitea: *gizarteratze handiagoa*.
- Bizikidetzari lotuta dauden jardunbide egokiak, proiektuak eta esperientziak helaraztea EAEko gizarteari, gizartearen aldekoak, eraikitzaileak eta elkarlanekoak direnak: *komunikazio handiagoa*.

1.2. Bigarren lan-plana

1.2.1. 2019-2020 aldirako lan-agenda

ADOS aholku-batzordearen helburu nagusia da Eusko Jaurlaritzak EAEko komunitate islamikoarekin batera bizikidetza sustatzeko abiarazi duen jarduketa programa garatzen laguntzea. Testuinguru horretan, II. lan-agendak lehentasunezko hiru helburu ditu. Bertan aurreikusitako jarduketaren deskribapena, beraz, 20 ekintzen aurreikuspena barne hartzen duten hurrengo hiru atalen bidez azaltzen da.

1. ardatza. Lankidetzaren handiagoa

Ekintzak:

- **1. ekintza.** Gizalegez akordioa erlijioen eremura hedatzea. Akordioaren edukia ADOS batzordean sartzea, eta bizikidetzarako hezkuntza eta kultura sustatzea.
- **2. ekintza.** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin batera prestatzea gazteen eta balio partekatuen sarearen proiektua. Askotariko kultura- eta erlijio-tradizioak dituzten gazteen arteko topaguneak eta balio partekatuak sustatzea.
- **3. ekintza.** Komunitate islamikoen eta EAEko erakundearen arteko Elkarriketa Agendaren eguneratzea prestatzea. EAEko herritar musulmanen kezka nagusiei erantzuten saiatzea, batez ere hezkuntzari eta integrazio handiagoa ekarriko duten baldintzei dagokienez.
- **4. ekintza.** EAEko sinesmen erlijiosoen ezarpenari buruzko mapa sozio-erlijiosoa egitea. EAEko erlijio aniztasuna ezagutu, normalizatu eta integratu dadin bultzatzea.
- **5. ekintza.** EAEko erlijio-erakundearen eta gurtza zentro eta tokien errolda bat egitea. EAEko erlijio aniztasuna ezagutu, normalizatu eta integratu dadin bultzatzea.
- **6. ekintza.** Erradikalizazio biolentoaren prebentzio goiztiarrerako foroa sortzeko proposamena aurkezte. Erradikalizazio biolentoaren prebentzioa sustatzea.
- **7. ekintza.** Gurtza Aretoen Legea behin betiko onartzea. Arauen bidez indartzea erlijio aniztasunarekiko errespetua eta gurtza lekuak egoteko eskubidea.
- **8. ekintza.** Erlijioen arteko Kontseilua eratzea. Erlijioen eta kulturen arteko lankidetzaren bultzatzea, bizikidetzaren integratu eta integratzailea lortzeko.

2. ardatza. Gizarteratze handiagoa

- **9. ekintza.** Imamekin lehen bilera bat antolatzea eta haiekin komunikazio-sare bat sortu dadin bultzatzea. Imamak EAEko gizartearekin eta erakundeekin komunikatzeko eta haiei irekitzeko bidea sustatzea.
- **10. ekintza.** Esperientzia pilotu bat garatzea hiru meskitatan, honako gai hauei buruz: hizkuntza ofizialaren erabilera, genero-berdintasuna, gardentasuna eta gazteen parte-hartzea. EAEko gainetarako gizarteari irekitzeko eta harekin harremanetan egoteko bideak bultzatzea bai meskitetan bai komunitate musulmanen ekitaldien bidez.
- **11. ekintza.** Zirkularren programa bat abiaraztea, hasiera batean hiru hilean behin. EAEko gizarteari irekitzeko eta bertan integratzeko balioak sustatzea EAEko komunitate islamikoan.
- **12. ekintza.** Parte-hartzeari buruzko lehen zirkularraren proiektua. EAEko auzo, ikastetxe, herri, hiri, entitate, elkarte edo erakundeetan garatzen diren ekitaldi, proiektu eta ekimenetan parte hartzea bultzatzea EAEko komunitate islamikoaren barruan.
- **13. ekintza.** Bakarrik dauden adingabeko atzerritar eta atzerritar gazteei integratzen laguntzeko proposamena prestatzea. Komunitate islamikoetako pertsonen eta erakundearen erantzunkidetasuna sustatzea, EAEko gizartearen kezkak duten arazoaren aurrean.
- **14. ekintza.** Esku hartzeko proposamen berriak aztertzea: gazteentzako kanpamentuak, Zakat Fundazioa, meskiten posta elektronikoen direktorioa sortzea. EAEko komunitate islamikoetako pertsonak eta erakundeak gehiago eta hobeto gizarteratzen lagunduko duten jarduerak babestea.

3. ardatza. Komunikazio handiagoa

- **15. ekintza.** ADOS aholku-batzordearen bizikidetzarako adierazpena prestatzea. Estereotiporik eta aurreiritzirik ez duten diskurtso instituzionalak, politikoak eta sozialak garatzea, eta islamofobia-, arrazakeria- edo indarkeria-adierazpenak salatzea.
- **16. ekintza.** ADOS batzordea aurkeztea komunitate islamikoei lotuta dauden taldeei eta kolektiboiei. ADOS batzordearen lanaren eta EAEko komunitate islamikoen elkarte sarearen arteko ezagutza eta lankidetzaren bultzatzea.
- **17. ekintza.** ADOS batzordearen web-orrialderako proiektu bat prestatzea. ADOS batzordearen eta EAEko gizartearen arteko komunikazioa erraztea, eta haren dokumentu eta lanetarako sarbidea erraztea.
- **18. ekintza.** Dokumental bat egitea, integrazioari eta bizikidetzari lotutako jardunbide egokien isla diren lekukotasunak jasotzen dituenak. EAEko musulmanen errealitatea hurbilago eta ezagunago egiten duten programak edo informazio-tarteak babestea komunikabideetan.
- **19. ekintza.** Lehen komunikazio-kanpaina bat prestatzea, nortasun-aniztasunaren errespetua sustatuz. Giza eskubideen errespetua eta erlijio- eta kultura-sentsibiltateen aniztasuna oinarritzat dituen bizikidetzaren sustatzea.
- **20. ekintza.** Informazio-buletin bat prestatzea. Komunitate musulmanen errealitateari, EAEko gizartearen duten integrazioari eta gizarte horri egiten dioten ekarpenari buruzko datuak ematea aldian behin.

1.2.2. ADOS aholku-batzordearen bigarren lan-planaren balantzea eta betetze-maila

Helburuak	Betetze-maila
ADOS aholku-batzordearen bizikidetzarako adierazpena aurkeztea.	Handia: Bizikidetzaren aldeko adierazpena 2019ko azken hiruhilekoan idatzi zuen ADOS aholku-batzordeak. 2020ko urtarrilaren 17an aurkeztu zen ofizialki, eta 2020ko otsailean EAEko mesquita guztiei banatu zaie, zabaltzeko.
Imamekin batu gara eta haiekin komunikazio-sare bat sortu dadin bultzatu da.	Handia: 2020ko urtarrilaren 17an topaketa instituzionala egin zen: Lehendakaria EAEko imamekin bildu zen. Topaketa horretatik sortu zen imamen arteko lantalde bat sortzeko eta haiekin komunikazio sare bat sustatzeko ideia.
Esperientzia pilotua egin da 3 meskitatan, EAEko gizartean errotuta dagoen Islama lortzeko asmoz.	Handia: 2019ko abenduan amaitu zen EAEko hiru meskitatan egindako lehen esperientzia pilotua, EAEko gizartean errotuta dagoen Islama lortzeko egin dena. Azkenean, 3 meskitek abian jarri dituzten neurriak nahi baino gutxiago izan dira, baina hirurek adierazi dute norabide horretan lan egiten jarraituko dutela, eta proiektua epe luzera garrantzitsua dela ulertu dute.
Meskitak bisitatu dira.	Martxan: meskitetarako bisitak hasi dira, komunitate islamikoen kezkak eta aldarrikapenak zuzenean entzuteko.
Erlijioen mapa soziologikoa.	Handia: amaitu da erlijioen mapa soziologikoa, arrakasta handiarekin gainera, eta herritarrek laster kontsultatu ahal izango dute Idazkaritzaren eta ADOs Batzordearen webguneetan.
EAEko erlijio-erakundeen eta gurtza lekuen direktorioa.	Martxan: lan hori egingo duen Idazkaritza Tekniko bat ari da bilatzen.
ADOS batzordea aurkeztea komunitate islamikoei lotuta dauden taldeei eta kolektiboiei.	Martxan: lan hori egingo duen Idazkaritza Tekniko bat ari da bilatzen, eta EAEko erlijio-erakundeen eta gurtza lekuen direktorioa sortzen ari da.
ADOS batzordearen webgunerako proiektua prestatzea.	Handia: Aurkezpena ekainera atzeratu zen, Covid-19ren osasun-krisia zela eta.
Bakarrik dauden adingabeko atzerritar eta atzerritar gazteei integratzen laguntzeko proposamena prestatzea.	Handia: Proposamena dokumentu batean jaso zen (<i>Euskarri</i>), eta 2020ko otsailean argitaratzea aurreikusi bazen ere, atzeratu egin zen apirilaren 5eko hauteskunde-deialdiagatik eta Covid-19aren pandemiagatik.

Eranskinak

1. eranskina

Honako azterlan honen gainean
egin denaren laburpena: komunitate
islamikoek EAEko gizartean bizi
duten errealitateari eta dituzten
bizikidetza-ikuspegiei buruz eta
EAEn bizi diren herritar musulmanen
kezkei eta aldarrikapenei buruz
egindako azterlana

1. Prozesuaren azalpena

2018ko apirilaren 10ean Eusko Jaurlaritzak EAEko komunitate islamikoarekin batera bizikidetza sustatzeko programa aurkeztu zuen, baita ADOS aholku-batzordea ere, programaren garapenari lotuta baitago.

Programaren aurreikuspenak betez, Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak, Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin lankidetzan, azterlan kualitatibo eta parte-hartzaile bat abiarazi zuen, EAEko komunitate islamikoek bizi duten errealitateari, haien bizikidetza-ikuspegiari eta dituzten kezka nagusiei buruz.

Lurraldea, biztanleria, generoa eta ikuspegi islamikoa hartu behar zituen kontuan lan horrek. Eta lortutako emaitzak ADOS aholku-batzordeak egingo zituen lanetarako oinarria izango ziren. Bi fasean antolatu zen lana. Lehen fasean, 4 tailer (*Focus-group*) egin ziren eta, parte-hartzaileak, bi motatakoak izan ziren: fede musulmana zuten EAEko herritarrak eta bestelako sinesmenak zituzten EAEko herritarrak. Bigarren fasean, lan-topaketa bat antolatu zen World-kafe (*World-Tea*) metodologia erabilita. Helburu bi lortu nahi ziren: lehenengo fasean lortu ziren emaitzak aurkeztea eta horien edukiarekin lan egitea.

Egindakoaren laburpen honetan daude jasota, labur, lan-prozesu horretatik atera ziren ondorio eta gomendio nagusiak. Gainera, egin den lan guztia jasotzen duen dokumentuaren aurkezpena ere bada. Izan ere, dokumentu horrek bi atal ditu: lehenengoan prozesuaren edukia azaltzen da, *Focus-group* metodologia erabilita, eta bigarrenean aurkezpenak eta elkarriketak ekarri dituen emaitzak azaltzen dira *World-Tea* formatuarekin.

2. Ondorio nagusiak

Azterlanaren bi faseak (*Focus-group* eta *World-Tea*) burutu ostean, honako ondorio nagusi hauek atera daitezke:

- Lehenengoa. Alde nabarmenak ikusi dira EAEra berriki edo helduaroan iritsitako musulmanen eta EAEn jaiotako edo oso gazte iritsitako musulmanen aldarrikapen eta asmoen artean:

- **Berdintasuna.** EAEra berriki edo helduaroan iritsi diren musulmanen kezka berdintasunari lotuta daude. Beste herritarrek dituzten eskubide eta aintzatespen sozial berberak eduki nahi dituzte.

- **Identitatea.** EAEn jaiotako edo oso gazte iritsitako musulmanen kezka nagusia, aldiz, beren nortasuna onartzea da; Euskadiko “gu” horren beste berezitasun bat dela onartzea nahi dute.

- Bigarrena. Berdintasuna eta identitatea aitortzeko asmo bikoitzak normalizaziorako, bizikidetzarako eta auzotasun onerako gogo sendoa erakusten du, musulmanek asmo bi horiek dituzte harrerako gizartearekin duten harremanean.

- Hirugarrena. Fede islamikoa ez duten pertsonen eskubideetan eta betebeharretan berdintasuna lortzearen aldeko apustua egiten dute, eta betebeharrak betetzeak elkarrekikotasunean integratutako bizikidetzarako duen garrantzia azpimarratzen dute.

3. Bizikidetza sendotzen jarraitzeko gomendioak

3.1. Printzipio gidaria: elkarrekikotasuna

“Harreman” hitzak bi zati ditu: “hartu” eta “eman”. Hitz hori izan da nagusi, hain zuzen ere, ikerketa soziologiko hau garatzean. Laburpen horrek ezin hobeto erakusten du etorkizuna bideratzeko funtsezkoa den edukia: elkarrekikotasuna. Kontzeptu hori printzipio gidaria da, komunitate islamikoen eta EAEko gizartearen arteko bizikidetza hobetzearekin lotuta egin nahi den etorkizuneko planteamendu orotan.

Alde bietatik etorri behar dira ahaleginak eta ekarpenak. Norbaiti galdetzen bazaio besteengandik zer espero duen: zer eskatzen, aldarrikatzen, erreklamatzeko... duen; horren atzetik beste galdera bat egin behar da, norberaren buruarengandik edo gugandik espero denari buruzkoa: zer eskaintzen dut, ematen dut, gehitzen dut...

Elkarrekikotasunaren printzipio gidariak honako hauen aurka egiten du: soilik erreibindikatzailerak den biktimismoaren aurka eta desberdinak diren pertsonen kontrako aurreiritzi eta estereotipoen autokontrolaren aurka.

3.2. Gomendioak

Gomendio horien orientazioak bi alderdi ditu: batetik, elkarrekikotasuna oinarritzat duen bizikidetzaren kultura sustatzea, eta, bestetik, jatorri desberdineko komunitateen arteko hurbilketa bultzatzea, elkarrekin bizitzetik bizikidetzara igarotzeko.

Aldez aurretik egin diren azterketa soziologikoetan jasotako informazioetik ondorioztatzen dira hemen aurkeztutako gomendio guztiak. Nabarmentzekoak dira, gainera, bai hautemandako kezak eta beharrezan, bai parte-hartzaileek etorkizunari begira planteatzen dituzten eskaerak eta asmoak. Gomendioek aintzat hartzen dituzte, halaber, ADOS aholku-batzordean bertan egindako ekarpen zehatzak, baina baita oinarritzko lehen azterlan hau egiteko antolatutako lan- eta partaidetza-topaketa zuzenetan egindakoak ere.

Horrenbestez, gomendio hauek iradokizunak baino ez dira, eta aurrerantzean ADOS batzordearen esku uzten dira hark azter ditzan eta haien jarraipena egin dezan. Hona hemen gomendio nagusiak:

I. Harreman EAEko komunitate islamikoen eta gainerako EAEko gizartearen arteko hurbilketa, ezagutza eta errespetua bultzatzea. Horri lotuta, beheko ekintzek balio estrategikoa izan dezakete:

- **Zabalkundea.** EAEko musulmanen errealitatea hurbilago eta ezagunago egiten duten dokumentalak, programak edo informazio-tarteak bultzatzea komunikabideetan. Integrazioari eta bizikidetzari lotutako jardunbide egokiak islatzen dituzten eta haien eredu diren lekukotasunak eta bizi-istorioak jasotzea.
- **Topaketa.** Erlijioen eta kulturen arteko ekitaldiak antola daitezen bultzatzea, esperientziak trukatzeko eta elkar ezagutzeko aukera emateko.
- **Hitzak.** Estereotiporik eta aurreiritzirik ez duten diskurtso instituzionalak, politikoak eta sozialak garatzea, eta islamofobia-, arrazakeria- edo indarkeria-adierazpenak salatzea.
- **Balioak.** Erlijio-tradizio desberdinetako gazteen arteko topaketak antolatzea, elkarrenganako errespetua, balioak, eskubideak, betebeharrak, kezak eta asmoak partekatzearen artean.

II. Hartu eta eman. Komunitate islamikoen eta EAEko erakundeen arteko akordioak sustatzea, musulmanen kezka nagusiei lotuta:

- **Informazioa.** Komunitate musulmanen errealitateari, EAEko gizartearen duten integrazioari eta gizarte horri egiten dioten ekarpenari buruzko datuak ematea aldi berean.
- **Hezkuntza.** Ikasle etorkinen kontzentrazioak saihestea, ikastetxeetako jantokietako behar espezifikoak erantzutea, irakasleei espazio inklusiboak sustatzeko prestakuntza-tresnak eskaintzea, Helduen Hezkuntza ematen duten ikastetxeak indartzea prestakuntza-, kualifikazio- eta integrazio-espazio gisa, eta arreta berezia emanez emakumeen hezkuntzari.
- **Ezagutzak.** Emakumezko musulman gazteekin kanpaina berezi bat egitea, *hijab* edo zapi islamikoarekiko errespetua bultzatzeko eta zapi horren erabilera normalizatzeko, beren nortasunaren ikurra dela erakutsiz, aurreiritziak alde batera utzita.
- **Errespetua.** Arauen bidez indartzea erlijio aniztasunarekiko errespetua eta gurtza lekuak egoteko eskubidea.

III. Eman eta hartu. Komunitate islamikoek EAEko gizartearen bizikidetzara integratua eta integratzailea lortzen lagunduko duten jarduerak sustatzea:

- **Irekiak.** EAEko gainerako gizarteari irekitzeko eta harekin harremanetan egoteko bideak bultzatzea bai meskitetan bai komunitate musulmanen ekitaldien bidez. Kasu honetan, EAEko hizkuntza ofizialen erabilerak balio berezia izan dezake.
- **Berdintasuna.** Genero-berdintasuna sustatzera bideratutako neurri zehatzak hartzea. Emakume musulmanak gizarte-errealitatearen hainbat arlotan parte hartzeko oztipoak kendu behar dira eta, adibidez, Helduen Hezkuntza ematen duten ikastetxeetan matrikula daitezen sustatu behar da.

• **Parte-hartzea.** EAEko auzo, ikastetxe, herri, hiri, entitate, elkarte edo erakundeetan garatzen diren ekitaldi, proiektu eta ekimenetan musulmanek ere parte hartzearen, hau da, haien ekarpena ere izatearen garrantzia bultzatzea EAEko komunitate islamikoaren barruan.

• **Konpromisoa.** Komunitate islamikoetako pertsonak EAEko gizartea kezkatzen duten arazoen aurrean erantzunkidetasuna izan dezaten sustatzea, honako gai hauetan adibidez: bakarrik dau- den adingabeko atzerritarren eta gazte atzerritarren errealitatea, erradikalizazioaren prebentzioa edo ekarpenen bat egin lezaketen beste edozein.

2. eranskina

Bizikidetzaren aldeko adierazpena

Adierazpenaren erakunde sustatzailea aurkeztea

EAEko erakunde publikoen eta EAEko komunitate islamikoetako pertsonen ordezkariak paritarioak osatzen du ADOS aholku-batzordea, eta haren helburua da honako programa honen gaineko aholkularitza eta lankidetzaren ematea: *Eusko Jaurlaritzak EAEko komunitate islamikoarekin batera bizikidetzaren sustatzeko abiarazi duen jarduketaren programa*.

Herritar guztiek dute beren kulturagatik, erlijioagatik edo sinesmenengatik diskriminazioa ez jasateko eskubidea, baita beren kontzientzia-askatasuna baliatzeko ere, muga bakarra gainerako pertsonen eskubideekin errespetua izanik (Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren 9. artikulua eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 2. eta 28. artikulua). Horixe da ADOS aholku-batzordearen abiapuntua. Batzordearen proiektu nagusia aniztasuna errespetatzen duen elkarbizitza baketsua defendatzea da.

Eta jarduera-esparru hori aintzat hartuta, ADOS aholku-batzordeak honako *Adierazpen* hau argitaratu du. Testu horrek elkarbizitzarako oinarriak eman nahi ditu, sintetikoak, errazak eta sakonak. Oinarri horiei, hain zuzen, ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaie, bai EAEko gizartearen, oro har, bai komunitate islamikoetan, bereziki.

Bizikidetzaren aldeko adierazpenaren testua

EAEko gizartearen gero eta identitate eta harreman-espazio gehiago daude kultura, erlijio eta sinesmen desberdinak dituzten pertsonen artean. Garatutako gizarte guztiak askotarikoak dira. Aniztasun hori askatasunaren sinonimoa da, baita aurrerapenarena ere. Beren aniztasuna harmonizatzearen gaitasun handiagoa erakutsi dutenak dira herrialde oparoenak.


Bizikidetzaren askotariko eta inklusiboak printzipio etiko unibertsalen sendotasuna eta balio demokratikoak behar ditu. Ez da erraza elkarbizitza integratua eta integratzailea sustatzea eta mantentzea, baina ezinbestekoa da guztion ongia sustatzeko. Erronka bat da, eta, era berean, aukera ugari ematen ditu.

Adierazpen hau sinatzen dugunok helburu komun bat dugu: bizikidetzaren kultura defendatzea eta bultzatzea; politika eta erlijioa alde batera utzi eta giza duintasunaren errespetua etikatzat hartzen duen kultura sustatzea, alegia. Helburu horrek oinarritzko bost konpromiso ditu:

- **Konpromisoa giza eskubideekin eta bakearen eta pertsonen errespetuaren kulturarekin.** Erabat gaitzesten eta kondenatzen dira erlijioa edo beste edozein gai (politikoa, soziala, nazionala edo kulturala) aitzakiatzat hartuta justifikatu nahi den terrorismo, indarkeria edo giza eskubideen urraketa oro; horien guztien aurka gaude.
- **Konpromisoa pluralismoarekin eta aniztasunarekin.** Erabat gaitzesten eta kondenatzen dira xenofobia-, arrazakeria-, islamofobia-adierazpenak, baita pertsona taldeen jatorriaren, arrazaren, kolorearen edo sinesmenen arabera etiketa deskalifikatzaileak ematen dituzten diskurtsoak ere; horien guztien aurka gaude.
- **Konpromisoa genero-berdintasunarekin.** Erabat gaitzesten eta kondenatzen dira genero arrazoiengatik diskriminazio guztiak eta, bereziki, emakumeen aurkako indarkeria, sexu-eraso edo sexu-abusu guztiak; horien guztien aurka gaude.
- **Konpromisoa elkartasunarekin.** Denok erabaki dugu desberdintasunei aurre egitea, eta laguntza irmoa ematea gizarte-prestazioen, hezkuntzaren edo osasunaren politika unibertsalak garatzeko. Politika horiek, izan ere, integratzaile, kohesioa eta justiziara bideratuko dira, aniztasuna aintzat duen gizarte inklusiboa eta eraginkorra lortzeko.
- **Konpromisoa bizikidetzaren sozialarekin.** Herritarren komunitate bereko kideen arteko defentsa bultzatuko da, haien arteko desberdintasunak errespetatuz eta pertsona horien arteko loturak lehenetsiz; horrez gain, adostasun-gune zabal eta sakonak bilatuko dira, familia- eta auzo-eremuetatik hasi eta EAEko gizarte osora hedatuta.

Eta ondorio bik ematen diete amaiera bizikidetzaren adierazpen honi. Lehenengo ondorioa: denok sentitu behar dugu komunitate bateko kide garela, "gu" garela adierazitako lau balio demokratikoen inguruan. Printzipio horiek partekatuta, talde bereko kide bilakatzen gara. Bigarren ondorioa: berebiziko garrantzia dauka hezkuntzak. Ezinbestean eman behar dira pedagogia, esperientzia eta bizipen pertsonalerako baliabide egokiak, aipatu berri ditugun konpromisoak sakon barneratzeko funtsezko tresna baitira.





4.

dokumentua



Anitzak
Kultura- eta erlijio-aniztasuneko
tokiko gidak, Euskadiko herrietan

Anitzak

Kultura- eta erlijio-aniztasuneko tokiko gidak, Euskadiko herrietan



Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetza
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación

Aurkibidea

- 0.** Sarrera
- 2.** Gidaren egitura
- 3.** Gidaren aurkezpena
- 5.** Beste herrialde batzuetako datuen berri.
- 6.** Elkarrizketak eta testigantzak
- 7.** Amaierako mezua
- 8.** Bibliografia eta erabilitako iturriak

0. Introducción

Zertarako herriz herriko aniztasuneko gidak?

Euskadi, munduko lurralde oro bezala, anitza izan da, askotarikoa. Aniztasun hori, berezkoa izanagatik, aldatu egin da denboraren joanean, eta areagotu egin da azken urteotan, gaur egun beste herrialde batzuetatik datozen eta ezaugarri kultural desberdinak dituzten biztanleak etorri ahala.

Denok jabetzen gara aniztasuna izan badela, eta etorkizunean ere gure gizartean migrazioak gure egunerokoaren parte izaten jarraituko duela. Baina, sarritan -Euskadin atzerriko immigrazioa berri samarra delako edo-, ez dugu jatorri desberdinetako pertsonen errealitatea eta bizi-prozesuak ulertzen lagunduko digun informaziorik.

Batzuetan, aniztasuna eta desberdintasunak hobeto ulertzeko tresnak falta zaizkigu, aniztasuna eguneroan era onean integratu ahal izateko.

Aniztasun hori argi eta garbi bizi dugu kaleetan, eta garrantzitsua da herritarrengandik hurbilen dauden erakunde publikoetatik, hau da, Udaletatik, mekanismoak sortzea auzotarrek elkar ezagutu eta onar dezaten. Helburua da aniztasunari so egiteko **begiratu demokratikoa eta positiboa izan dezagula**, horrek **gizarte kohesioaren eta udal bizikidetzaren alde egiten lagunduko** baitigu.

Nori zuzenduta daude gidak?

Gidok gure inguruan **migrazioak eragindako aniztasuna eta kultura-aniztasuna ikusarazi** nahi digute. Hartzaileak gure **herri eta hirietako herritar helduak** izango dira.

Argitalpen horiek, irakurketa atsegina eta dibulgatzailearen bidez, azkeneko urteetako immigrazioak gure inguruan sortu duen **aniztasun kultural eta erlijiosoaren alde gizatiarra** erakutsi nahi diete herritarrei.

Gure inguruan kultura desberdinek duten presentziari buruzko informazio orokorra emango dute, herri bereko biztanle izanda denok biltzen eta batzen gaituzten ezaugarriak arreta jarri eta udalerrian bizi diren pertsona guztien parte-hartze soziala begi onez ikusteko ahalegina eginez, baita beste herrialde batzuetan jaio zirenen parte-hartzea ere.

Zeinek bultzatu ditu gida hauek?

2017ko urriaren 10ean onartu zuen Gobernu Kontseiluak **2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana**. 7. ekimenak “aniztasunaren kudeaketa positiboa” du ardatz, eta aniztasunaren arloan sentibilizatzeko ekintzak biltzen ditu.

Herriz herriko Gida horiek Planaren helburu hauekin lotuta daude:

- Elkarrikeria, enpatia eta lankidetzaren bultzatzea aniztasuna positiboki kudeatzeko, eta ezberdinarekiko etiketa kolektiboko edozein diskriminazio mota prebenitzea.
- Tresna eta baliabide erabilgarriak sortzea enpatia kultura sustatzeko eta erlijio, kultura edo beste edozein motatako desberdintasunen aurrean beldurrak eta estereotipoak gainditzeko.

Nork prestatuko ditu gidak?

Proposamen honen fase pilotuan (2019. urtean), Giden Oinarritzako Eredua sortu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta 3 adibide landu zituen hainbat herritan, etorkizunean eredu baliagarri izango zirelakoan. Euskadiko gainerako udalerrietan erreplika egiteko moduan prestatutako proposamenak dira, hortaz.

Hurrengo faseetan, helburua izango da **udal edo eskualde bakoitzak** bere gida berezia prestatu dezala, inguru hartako informazioa bilduta. Interesgarria litzateke, halaber, udalerri bakoitzean aniztasunarekiko begirada positiboa lantzen edo sustatzen duten tokiko elkarteek parte hartzea gidak prestatzen, elkarleen sareak funtsezko informazioa eman baitezake gidak idazteko lanean.

1. Giden oinarritzko ezaugarriak

Honako hauek dira giden oinarritzko ezaugarriak:

- Helburua dute udalerrian dagoen aniztasuna ikusaraztea eta begirada positiboa sustatzea.
- Dibulgaziozkoak izan nahi lukete, herritar guztiei irekiak, migratzaileekiko lanarekin lotura zuzenik izan gabe ere.
- Udalerri bakoitzeko datu espezifikoetan zentratuko dira (immigrazio mota/jatorria, gizartearen nondik norakoak, elkarteak eta abar).
- Hedadura egokia izango dute, eta oso bisualak izango dira. Testu arin eta erakargarriak izango dituzte.
- Enpatia landuko dute eta gizatasunean zentratuko dira, herri batean bizi garenok zerk batzen gaituen aintzat hartuta (eta ez zerk bereizten gaituen).
- Horregatik, herri edo hiri bakoitzean pertsona eta/edo familia batzuei elkarriketak egingo zaizkie (3-5 elkarriketa), betiere hainbat jatorri, erlijio (egokia bada) eta genero desberdinetako jendearen esperientzia bilduko dela ziurtatzeko moduan.
- Pertsona horien begiradaren bidez, jatorritzko herrialde edo eskualdeari buruzko datuak zabalduko dira, eta haien kulturako gauza bereizgarriren baten berri emango da (errezetaren bat, abesti edo ipuinen bat ...). Beste aukera bat litzateke herri bakoitzari bere herrikideekiko loturik sentiarazten dion gauza kulturalen bat jasotzea.
- Elkarriketetan, migrazioa eragin duten kausak identifikatzen ahaleginduko gara, eta aztertuko dugu zer izan den gakoa pertsona hori bizi den lekukoa sentitzeko orain.
- Gida guztiek, alde batetik, udalerri bakoitzeko aniztasunaren errealitateari buruzko informazioa ematen duten datu objektiboak azalduko dituzte, elkarriketek ematen duten beste ikuspegi pertsonalago eta bizipenezko horrekin batera.
- Denek amaierako mezua izango dute bukaeran, hausnarketa eta ondorioak bilduko dituen, herriko jendearen kohesioarekin lotutakoa.
- Giden edukia, aniztasunaren kudeaketa positiboa bultzatze aldera, eskubideetan oinarritutako ikuspegitik landuko da beti, lotura enpatikoa bultzatzeko ez ezik, lagungarri izan dadin irakurleek migrazioa giza eskubidea dela ulertzeko.

2. Gidaren egitura

Oinarritzko eredu honetan, gidak honako atal hauetan banatzeko modukoa izatea planteatzen dugu (jarraian azalduko ditugu zehatz-mehatz atalak):

1. Gidaren aurkezpena.
2. Beste herrialde, kultura eta erlijio batzuetako jendeak gure herrian duten presentziari buruzko datuak.
3. Gure udalerrian bizi diren bizilagun guztien herrialde bakoitza hurbilagotik ezagutzea, herri hartako oinarritzko informazioa eta irudiak erakutsiz.
4. Herri edo hiriko 4-5 pertsonen egindako testigantza-elkarriketatik batzuk hautatu -jatorri edo ezau-garri kultural edo erlijioso desberdinak ondoen irudikatzen dituztenak- eta agerian jarri. Elkarriketateuek honakoa kontatuko digute:
 - bidaia pertsonala eta familiarterkoa.
 - bizitoki duten udalerriarekiko duten lotura.
 - beren jatorritzko lekuko kultura-elementuren bat (errezeta, ipuina edo antzekoa), beren bereizgarritzat jotzen dutena.
5. Amaierako mezu bat, bizikidetzarako hausnarketa eta ondorioak bilduko dituen.

Alda al dakioke egitura?

Gida-eredu honen helburua da edozein udalerrietan erreplikatzeko moduko orientazioa ematea. Baina ez du zurruna izan nahi: gidaren egiturak erabilgarria izan behar du udalerri bakoitzaren errealitateari egokitzea izango bada, eta, beraz, behar izanez gero aldaketak sartzen utzi behar luke.

Nolanahi ere, komeni da gida horien bereizgarri diren oinarriak beti jasotzea, hau da, eskubideetan oinarritutako ikuspegia ematea, jatorri-aniztasuna irudikatzea, emakume nahiz gizonak agertzea, eta bizikidetzak bultzatzeko tresnak inguratzea.

3. Gidaren aurkezpena

Kapitulu hau sarrera izango da, eta gida zergatik egin dugun adierazi beharko du, hau da, zer helburu dituen.

Gidan sartu beharreko ideia garrantzitsuak

Sarrerari, garrantzitsua da gida honi zabalkundea emateko arrazoak zein diren erakustea, honako ideia hauek bereziki aintzat hartuta:

- Gure herri eta hiriak dagoeneko anitzak dira.
- Aniztasun hori ez da berria, baina egia da azken urteotan, besteak beste, atzerriko jatorriko immigrazioa dela-eta, are gehiago dibertsifikatu dela.
- Beste herrialde batean jaioetako migratzaileak, gure udalerrian bizitzea erabaki dutenez, parte hartu eta ekarpenak egiten dituzten herritarrak ditugu orain.
- Garrantzitsua da adieraztea aniztasuna ez dela berez arazo bat.
- Ezjakintasunaren, aurreiritzien eta estereotipoen ondorioz datozkigu arazoak.
- Era berean, komeni da azpimarratzea aniztasunak diskriminazioak sortzen dituela batzuetan, eta saihestu eta gainditu egin behar ditugula.

Testuen adibideak

Lehen aipatutako ideiez gain, gure baieztapenak justifikatzen lagunduko diguten erreferentziazko testuak ere sar ditzakegu. Adibidez::

Nazio Batuak

Nazio Batuak dira migratzaileen eskubideak babesten erreferentziazko erakundeetako bat. Erakunde honetako testuak erabil ditzakegu, jatorrizko iturria aipatuz, migrazioaren fenomenoaren testuinguruan kokatzen laguntzen digutelako. Askotan pentsatzen dugu oso berria dela, edo boladaka gertatzen dela, baina datuek oso bestelako errealitatea erakusten digute.

Hona hemen aurkezpen honetan sartzeko moduko testu-proposamen bat:

Nazio Batuen Erakundeak gogorarazi digunez, “Antzinetatik, gizakia etengabe joan-etorrian ibili da. Pertsona batzuk lan bila edo aukera ekonomiko berrien bila doaz beste norabait, edo senideekin biltzeko, edo ikasteko.


Beste batzuk gatazketatik, jazarpenetatik, terrorismotik edo giza eskubideen urraketa edo gehiegikerietatik ihesi joaten dira. Batzuk klima-aldaketaren, hondamendi naturalen edo beste ingurumen-faktore batzuen ondorio kaltegarriengatik doaz beste norabait.

(...) 2017an, migratzaileen kopurua 258 milioira iritsi zen.

(...) (...) Migratzaile guzti horietatik % 48 emakumeak ziren. “.

Iturria: <https://www.un.org/es/sections/issues-depth/migration/>

Nazio Batuen Erakundearen iturri horietan diagrama interesgarriak ere agertzen dira maiz. Esteka horretan bertan, adibidez, honakoa ikusiko dugu:



Hona testu baten beste adibide bat, **Nazio Batuen** beste argitalpen batean oinarrituta:

[Gure udalerriaren izena]-n, beste herrialde batzuetan jaioetako pertsonak bizi dira. Alegia, migratzaileak dira eta gure herrian bizitzea erabaki dute. Nazio Batuen Erakundearen arabera, "Nazioarteko migrazioa da norbait mugak pasatu beste norabait joatea, beren jaioeterrira edo herritartasuneko lekua ez duten beste herrialde batean bizitzeko, dela betiko dela aldi baterako".

Migrazioa ez da bakarrik [gure udalerriaren izena]-ko kontua:

"Migrazioa mundu mailako fenomeno da. Munduko eskualde bakar bat ere ez dago migrazioetik aparte, eta oso herrialde gutxi dira fenomeno hori ez dutenak". Gainera, "migrazioa lagungarri izan da aspalditik garapen ekonomikorako eta gizarte ongizaterako, bai helmugako herrialdeetan, bai jatorrizko herrialdeetan".

[Fuente: https://www.ohchr.org/Documents/Publications/MigrationHR_and_Governance_HR_PUB_15_3_SP.pdf]

Kontuan hartu beharreko beste kontu interesgarri bat izango litzateke gogoraraztea pertsona orok (migratzaileak izan ala ez izan) giza eskubide oinarrikoak eta besterenezinak dituela.

Gogora ekar dezakegu, adibidez:

1948an nazioarteko komunitatean Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala onartu zenetik, pertsona guztien eskubideak aitortzen dira espresuki, migratzen dutenenak barne, jakina. Giza eskubideen nazioarteko sistemak zera gogorarazten digu: "Gizaki guztiak aske eta berdin jaiotzen dira duintasun eta eskubideetan. Gizaki guztiek, edonon daudela ere, eskubidea dute nortasun juridikoa aitor dakien. Gogoan izan behar ditugu gure betebeharrak ere, nazioarteko zuzenbidearen eraginez dagozkigunak, eta horien arabera galarazita daukagu inor baztertzea haren arraza, kolore, sexu, hizkuntza edo erlijioagatik, iritzi politikoagatik edo bestelako iritziagatik, jatorri nazional edo sozialagatik, posizio ekonomikoagatik, jaiotzagatik edo beste edozein baldintza sozialengatik. Hala ere, munduko leku askotan ikusten dugu, eta kezka handia ematen digu, errefuxiatuen eta migratzaileen aurrean gero eta erantzun xenofobo eta arrazistagoak pizten direla".

Iturria: New Yorkeko adierazpena, errefuxiatu eta migratzaileei buruzkoa: <https://undocs.org/es/A/71/L.1>

Eusko Jaurlaritza eta beste erakunde batzuk

Bai Eusko Jaurlaritzak bai beste erakunde batzuek migrazioaren eta haren kudeaketa demokratikoaren inguruko dokumentuak eta planak bultzatu dituzte. Horietatik ere badaukagu zer hartu gidetan erabiltzeko.

"Migrazioa ez da ustekabeko fenomeno: egiturazkoa eta mundu-mailakoa da. Munduan, Europan eta Euskadin gertatzen da. Errealitate horren aurrean erantzun egokia ematea betebeharra dugu herrialde bakoitzeko zein Europako zuzenbidean, baita nazioarteko zuzenbidean ere.

Arau-dimentsioa du. Halaber, dimentsio humanitarioa ere badauka, etika demokratikoa, eta horren arabera definitzen du jendartearen elkartasun- eta zibilizazio-gaitasuna. (...) Pertsona horiek guztiek dituzte eskubideak nahiz betebeharrak, eta bideratu egin behar zaizkie. Eta ez soilik agindu arauemaile eta etikoa delako, baizik migrazioaren erronkari erantzuteak aurrerapena ekarriko duelako. Munduko herrialde oparoenak ondo asmatu dute migrazio-fluxuak eta haien kultura-aniztasuna integratzen.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. 2019ko Kontingentzia Plana, beste norabait doazela Euskadira iritsi diren migratzaileei arreta humanitarioa emateko]

Hara, labur-labur, zer den gidaren aurkezpena. Nolanahi ere, kontuan hartu gida aurkezteko lehen atal honek ez duela hainbat testuren bilduma izan behar, argitalpena irekiko duenak zer aurkituko duen jakiteko argibidea baizik.

4. Hiri eta herrietako datuak

Aurkezpen orokorraren ondoren, "Beste herrialde, kultura eta erlijio batzuetako pertsonen herrian duten presentziari buruzko datuak" txostena dator. Txostenak hiri edo herri bakoitzean jartzen du arreta, leku bakoitzeko migrazioaren errealitatea zein den ulertzen laguntzeko datuak emanez irakurleari.

Nondik eskuratu behar dira datuak?

Oro har, errolda oso iturri ohikoa da datu eguneratuak eta objektiboak lortzeko, biztanleen kopurua jakinarazten duelako, bakoitzaren jatorriaren, adinaren eta abarren arabera. Errolda hainbat azterlanetan erabiltzen dugu, bai erakunde publikoek bai akademikoek, gure inguruan pertsona migratzaileek zer-nolako presentzia duten aztertzen dugunean.

Datu horiez gain (oro har, Euskadiko udalerrri guztietan egoten dira), udal askok azterketak eta analisiak ere egiten dituzte, adibidez, Ikuspegi erakundearekin batera (www.ikuspegi.eus).

Immigrazioaren Euskal Behatokia da Ikuspegi, eta hainbat azterlan egiten ditu, bere webgunean eskuragarri daudenak, gure inguruan bizi diren beste jatorri batzuetako pertsonen buruz, eta datu estatistikoak ere ematen ditu.

Ikuspegiaren webgunean gai honekiko esanguratsu diren azterlan espezifikoak ere aurkituko ditugu, baita biztanleek migrazioaren errealitateari buruz duten pertzepzioen analisia ere. Azterlan horiek aldian-aldian eguneratzen dira, eta, beraz, gure gidetan sartzeko datu fidagarriak eta informazioa lor ditzakegu hortik.

Batzuetan, udalerriak ikerketa akademikoren batek edo elkarte zibilen batek burututako ikerketak eginak izango ditu lehendik ere, eta horietatik ere har genitzake datuak. Edonola ere, kontua ez da orain arte idatzitako dokumentu guztietako datuak xurgatzea, baizik eta bizi garen herrian migrazioaren inguruan zer errealitate dugun hurbilagotik ezagutzeko aukera emango diguten datuak identifikatu eta baliatzea.

Kasuren batean herriaren datu espezifikoak lortzea ezinezkoa dela ikusten badugu eta eskualdeko analisirik ere ez badago, probintziako datuak erabiltzeko aukera izango dugu orduan, Ikuspegik bere webgunean ematen dituen datuak hartuta, eta hortik abiatu, gero elkarriketen bidez herriko errealitatea eransteko.

Zertan zentratuko naiz?

Datu objektiboez gain, garrantzitsua da beti herri horretako errealitatearen ezaugarri diren ezaugarri batzuk argi edukitzea, eta horiek atal honetan sartzea. Oro har, udaletako teknikariek eta politikariek herritarrei helarazi nahi dizkieten informazioak eta ikuspegiak dituzte: zuzenean ezagutzen dituzte migrazioaren jatorriaren eta aldaketen inguruan izan diren joerak, gure inguruan bizi direnen egoera, komunitate espezifikoaren errealitatea, etab. Interesgarria litzateke ideia giltzarri horiek identifikatu eta tokiko datuen deskribapenean islatzea.

Adibidez, udalerrri batean jatorri jakin bateko komunitate oso aktiboa baldin badago, herrian urteak daramatzana, gerta liteke lanerako eskaini nahi izatea beren burua, bere historia eta errealitatea hobeto ezagutzarazteko.

Beste adibide bat: fokua aldi baterako harrera-etxe batean, bakarrik dauden adingabeen zentroan edo herri horretan dauden errefuxiatuen etxeetan jarrita egitea azterketa.

Udaleko langileek gai jakinen bat interesgarri jotzen badute, errealitate espezifiko horri buruzko datuak ere jaso litezke.

Gerta daiteke, halaber, azken urteotan jatorri jakin batzuetako immigrazio handiagoa gertatu izana, eta alderdi horretan sakondu nahi izatea. Batzuetan, zurrumurru eta aurreiritzi gehien eragiten duten kontuetan jarri nahi izango du norbaitek arreta, eta estigmatizatuago egon ohi den jendearen bizitza ezagutarazi.

Beste batzuetan, aldiz, duela hamarkada batzuk migratu zuten pertsonen errealitatea ikusarazi nahiko dugu, eta, bereziki, bizi dituzten esperientzietatik “bigarren belaunaldiak” esaten zaien errealitatea, alegia, beste herrialde batetik zetozen gurasoak izan baina hemen jaiotakoak direnenak.

Bertako informazio garrantzitsu gehiago

Erroldatik edo ikerketetatik datozen datu objektiboagoz gain, garrantzitsua da atal honetan aniztasunaren kudeaketa positiboaren alde lanean ari diren mota guztietako ekimenak edo prozesuak nabarmentzea.

Atal honetan sar ditzakegu, adibidez, migratzaileak kide dituzten edo pertsona migratzaileekin lan egiten laguntzen duten elkarte sozial eta kulturalen buruzko informazioak.

Elkarte horiei elkarriketa egin dakieke gure gidarako, eta interesgarria izan daiteke beste jatorri batzuetako pertsonen eta bertako pertsonen ekimen espezifikoak sustatzeko elkarrekin lan eginez bultzatzen dituzten esperientzien berri ematea.

Kasu batzuetan, boluntario-jendearengana jotzea ere komeni da, edo jardueren buruzko informazio interesgarria zabaltzea.

Beste interes-eremu bat haxe izan daiteke: migratzaileen eta bertakoen arteko hurbiltasuna bideratzeko tokiko erakundeek egiten dituzten udal-ekimenak. Askotan udalek dagoeneko badituzte programa batzuk abian, hala nola aniztasunean oinarritutako programak, euskararen ikaskuntza eta erabilera sustatzeko eki-

menak, aniztasunaren ezagutza bultzatzeko urteko jarduerak eta jaialdiak eta abar. Nahiz askotan gogotik ahalegindu berri ematen eta publizitatea egiten, herritarrek ez dute beti ekimen hauen berri izaten, horregatik komeni da gure gidan nabarmentzea.

5. Beste herrialde batzuetako datuen berri

Udaleko oinarritzko datuak identifikatuta ditugula, orokorrean eremu geografiko jakin batzuetan zentratu nahi izango dugu arreta ondoren. Elkarriketatuko ditugun pertsona batzuen jatorrizko herrialdeei ere erreparatu diezaiekegu, eta leku espezifiko horietako datuak eman.

Ez da beti erraza datu fidagarriak lortzea: Interneti esker iturri ugari izan genitzake komunikabideen, web-guneen edo sare sozialen bidez, baina ezin dugu beti ziurtatu informazio horiek kontrastatuak direnik eta errealitatearen isla direnik.

Ziur egoteko moduko datu-base batzuk Nazio Batuen Erakundekoak dira. PNUdak (Nazio Batuen Garapenerako Programak) herrialdeka eguneratutako datu estatistikoak ditu (<http://hdr.undp.org/en/countries>), leku horretako giza garapenaren egoerari buruzko begirada orokorra ematen dutenak, besteak beste, osasun-datuak (bizi-itxaropena, besteak beste), hezkuntzakoak (eskolatze-urteak) edo diru-sarrerak zehaztuta.

Herrialdeen arteko konparazioak egiten dituzten eta gure intereseko zenbait lekuri buruzko informazioa ematen duten txostenak ere baditu PNUd-ek (ikus adibidez: http://hdr.undp.org/sites/default/files/2018_human_development_statistical_update.pdf).

Giza eskubideen egoerari buruzko datuak ere ematen ditu Nazio Batuen Erakundeak, herrialdeka. Giza Eskubideen Goi Komisarioaren webgunean kontsulta daitezke datuok (www.ohchr.org); herrialdeka eguneratuta daude, eta era askotako gaiei buruzkoak dira, baina giza eskubideei loturikoak denak ere.

Nazio Batuen beste agentzia batzuek ere informazio garrantzitsua izan dezakete: UNICEF, ACNUR eta abarrek.

Nazioarte mailan, Amnesty International eta Human Rights Watch erakundeek informazioak ere iturri interesgarri izango ditugu. Webgune honetan (<https://www.amnesty.org/es/countries/>) edo bere Urteko Txostenean, Amnesty Internationalek giza eskubideen urraketei buruzko datuak damatza; kasuren batean, gainera, elkarriketatutako pertsonen bizitzaren historiaren baten zergatia azaltzen lagun diezagukete datuok.

Human Rights Watchek, berriz, www.hrw.org, herrialde batzuetan giza eskubideen arloan gaur egun dauden joerak azaltzen ditu, eta txosten zehatzak egin.

Gainera, gure inguruko erakunde askok ere interesgarriak izan daitezkeen txostenak dituzte, herrialde eta eskualdeka atalduta.

Euskadiko GGKEen Koordinakundeak badu halako erakundeek zerrenda bat: (www.ongdeuskadi.org).

Jatorrizko herrialdeei buruzko datuak bilatzearen helburua beti izango da migrazioaren testuingurua harikatu eta zehaztea, hobeto uler dezagun zergatik batzuek migratu beste aukerarik ez duten, edo elkarriketatutakoak zer-nolako bidaia izan duten jakin dezagun.

6. Elkarriketak eta testigantzak

Aurreko kapituluetan emandako informazioari “aurpegia jarri” nahi dio atal honek. Lehen planteatu dugunaren harira, asmoa da gidak enpatia sor dezala, beste jatorri batzuetatik etorrira beren udalerrian bizi diren pertsonetikiko hurbilago senti gaitezen.

Horretarako, udalerri bakoitzeko 4-5 pertsona identifikatuko ditugu, irizpide hauek kontuan hartuta:

- Elkarriketatuek udalerrian dagoen aniztasuna islatu behar dute: garrantzitsua da kontuan hartzea zer herrialde eta/edo kultura-tradizio dituzten herrian edo hirian, komeni da-eta elkarriketatutako pertsonak profil desberdinekoak izatea.
- Garrantzitsua da generoen artean berdintasuna izatea, eta emakumeen ahotsak ikusaraztea.

-
- Aukerakoa izan daiteke, halaber, arrazoi desberdinengatik migratu duten pertsonak elkarrizketatzea, arrazoi ekonomikoagatik, familia-kontuegatik, aldatzeko gogoatik edo beste zerbaitengatik migratu direnak ikusaraztea.
 - Pertsona horiek kultura- edo erlijio-talde bateko ordezkari aski ezagunak eta aintzatetsiak izan daitezke (adibidez, beste jatorri batzuetako pertsonen kultura-elkarte batekoak), baina baita profil anonimoagoak ere, oro har, parte hartu ezinik daudenak eta ezin dutenak migrazioari eta udalerriko gaur egungo bizitzari buruz duten ikuspegia eman.
 - Migratzaileak eta bizileku duten herria zerk lotzen dituen ulertzen lagundu behar dute elkarrizketek, eta enpatiaren alde egin.

Orientatzeko ereduren bat

Existen numerosos ejemplos de textos que comparten experiencias de personas migrantes. Un modelo que podemos utilizar es esta plataforma de Naciones Unidas que se llama “**Soy migrante**”: <https://iamamigrant.org/es> El objetivo de esta plataforma es cuestionar los estereotipos contra los migrantes y las expresiones de odio en la política y la sociedad y nos puede servir para tomar ideas para nuestros testimonios.

Zer galdetu behar diot?

Elkarrizketa horiek udalerrri bakoitzaren eta parte hartzen duen pertsona bakoitzaren errealitatera egokitu beharko dira. Horregatik, ezin dugu gidoi bakar bat eduki, baina bai oinarrizko orientabide batzuk eman.

Elkarrizketa horietan bakoitzak bere bidaia pertsonala gurekin banatzea nahi genuke. Horrek esan nahi du nahitaez elkarrizketatuaren datu pertsonal batzuk adierazi beharko ditugula, baina gai orokorrak izango dira. Adibidez, bere jatorriaz eta migrazio-bideaz galde diezaiekegu, senideren batekin bidaiatu ote zuten, zer dela-eta migratu zuten eta zer zailtasunei egin behar izan dioten aurre. Interesgarria izango litzateke, halaber, oraingo eta etorkizuneko itxaropen pertsonalei buruz galdetzea.

Baina beti-beti kontu handiz jokatu behar dugu, elkarrizketatua deseroso jarriko duen edo haren intimitatea urra dezaketen galdera konprometiturik ez egiteko.

Gainera, komeni da parte-hartzaileekin kontrastatzea amaierako testua nolakoa izango den, behin betiko argitalpenaren aurretik ontzat emateko aukera izan dezan.

Zerrenda honek, zehatza izan gabe ere, gure elkarrizketan formulatu ditzakegun zenbait gai eta galdera ikusarazi nahi ditu:

- Izen-abizenak eta adina
- Bizilekua
- Jatorria
- Migrazio-bidaia: zerk arrazoik bultzatu zuten migratu behar izatera, nola izan zen bidaia, beste norbaitekin batera migratu ote zuen.
- Jatorrian gaur egun zer egoera duten (egonkortasuna, segurtasuna, pobrezia eta abar).
- Gaur egun lanez nola den (ez informazio zehatza eta pertsonala, baizik eta gaur egungo okupazioaren ideia orokorra, eta bere jatorrian zer lanbide eta/edo ikasketa izan dituen).
- Familiako kontuak (ez gai pertsonalak jakiteko, baizik eta testuinguruaren berri edukitzeko, sarritan testuinguru hori argi eta garbi migrazioak markatuta egoten baita: familia urrun ote daukan, migrazioa familiako kontuengatik izan den, etab.)
- Aisialdiaren eta kulturaren errealitatea: herriko kultura-ekintzetan edo ekintza sozialetan parte hartzen ote duen.
- Zer interes eta lehentasun dituen (bere errealitatea zertan den gehiago jakiteko).
- Etorkizunerako zer asmo dituen (interesgarria izan daiteke etorkizunerako zer nahi eta uste dituzten jakitea, bai egungo bizilekuari dagokionez, bai jatorrizko lekuari dagokionez).

- Herriko zerrekin identifikatzen duen bere burua: herriko kultur adierazpen ezberdinekiko identitate sentimendurik baduen, lagunak eta loturak...
- Zeren falta duen bere herritik eta jatorrizko komunitatetik.

Nolanahi, galdera-sorta hori ez da itxia; aitzitik, elkarrizketatutako pertsona bakoitzari egokitu beharko zaio, eta galderek egokiak izan behar dute elkarrizketa bakoitzean, kasu bakoitzean puntu garrantzitsuenak zein diren identifikatzeko. Gainera, pertsona guztiek ez dituzte gai berberak jorratu nahi izango; batez ere, ziurtatu behar dugu elkarrizketatua, proiektu honetan borondatez parte hartzen duenez, eroso eta seguru sentituko dela prozesu osoan.

Jar al dezakegu argazkirik?

Komenigarria litzateke elkarrizketatuari argazkiak ateratzea. Irudiek, oro har, testigantza bati “aurpegia jar-tzen” laguntzen dute, eta enpatia handiagoa sortzen dute. Baina, lehenik eta behin, elkarrizketatuaren bera-riazko baimena beharko dugu, bai hitzak argitaratzeko bai irudiak argitaratzeko.

7. Amaierako mezua

Amaierako mezuak gida prestatzeko egindako hautuen ondorio izan behar du: datuen eta elkarrizketetako hitzen puntu nabarmenenak biltzeko izan behar du, oro har, eta aniztasuna eta/edo udal-bizikidetzaz begi onez ikusteko giroa bultzatuko duten mezuetan zentratuko gara.

Kasu batzuetan, herrian izandako esperientzia positiboetan jarriko dugu arreta, eta esperientzia horien ideia indartu, inplikatzeko nahia duten pertsona gehiago erakartzeko. Beste kasu batzuetan, pertsona migratzaile-reen giza eskubideei buruzko ideia orokorragoetan jarri behar dugu arreta eta haiek ikusarazi.

Horretarako, erakundeek -adibidez, Eusko Jaurlaritzak- ontzat emandakoetatik, gidetan jaso ditugun ideiak berresten dituzten dokumentuak erabil ditzakegu.

“Edozein pertsonaren giza duintasuna haren etiketa baino garrantzitsuagoa da; horregatik, berdintasunean eta justizian oinarritutako tratua merezi du, oinarritzko eskubideen errespetuan ma-miturik. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala premisa horren isla da, 30 artikulutan adierazi-ta. Munduko nazioen eta herrien arteko historiako akordiorik garrantzitsuena da. Pertsonak beren buruaren garapena beren gisan lantzeko oinarritzko baldintzak definitzen ditu. Justizia, bakea, askatasuna eta bizikidetzaz, bai globalki, bai tokian-tokian, gobernuen eta partikularren konpromi-soaren, errespetuaren, defentsaren eta sustapenaren mende daude neurri handi batean. “Giza duintasuna - giza eskubideak” binomioak funtsezko edukia jasotzen du, errefuxiatuekiko elkarta-sunaren hautua nondik oinarritu daitekeen ulertzeko. “

(Eusko Jaurlaritzaz. Eusko Jaurlaritzaren esparru-dokumentua, errefuxiatuek Europako mugetan pairatzen duten krisi humanitarioari eman beharreko erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailen artekoa denon artean bideratzeko. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/personas_refugiadas/es_def/adjuntos/Documento-marco-cas.pdf)

“Gizarte moderno eta garatu guztiak gizarte anitzak eta pluralak dira.

Aniztasuna askatasunaren ondorio naturala da. Askea ez den herrialdea homogeneous eta unifor-me izango da. Aniztasun kulturala, erlijiosoa, linguistikoa, etnikoa edo beste edozein motatakoa askatasunaren eta gizalegearen indarraren sinonimoa da. Baita oparotasunaren sinonimo ere.

Mendebaldeko gizarte oparoenak anitzak eta berritzaileak dira, baita kulturari eta erlijioari dago-kienez ere. Euskadi gizarte anitza eta konplexua izan da beti, eta nortasun eta dibertsitate gero eta gehiago biltzen dira gurean, eta, horri esker, aberastasun, aukera, lehiakortasun eta berrikun-tza ere bai. “

(Eusko Jaurlaritzaz. Eusko Jaurlaritzaren jarduera-programa, euskal komunitate islamikoarekiko elkarbizitza sustatzeko. [https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/es_def/adjun-tos/7-Programa-terrorismo-internacional.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/es_def/adjuntos/7-Programa-terrorismo-internacional.pdf))

8. Bibliografia eta erabilitako iturriak

(testuan agertu diren hurrenkeran)

- Eusko Jaurlaritza. 2017-2020rako Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Plana https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10314/Plan_de_Convivencia_y_DDHH_2017_2020.pdf?1507640858
- Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritzaren esparru-dokumentua, errefuxiatuek Europako mugetan pairatzen duten krisi humanitarioari eman beharreko erantzun soziala, politikoa, erakundeartekoa eta sailen artekoa denen artean bideratzeko.
- https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/personas_refugiadas/es_def/adjuntos/Documento-marco-cas.pdf
- Eusko Jaurlaritza. 2019ko Kontingentzia Plana, norabait doazela Euskadira iristen diren migratzaileei arreta humanitaria emateko]
- https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/es_def/adjuntos/plan%20contingencia%20cas.pdf
- Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritzaren jarduera-programa, euskal komunitate islamikoarekiko elkarbizitza sustatzeko.
- https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/es_def/adjuntos/7-Programa-terrorismo-internacional.pdf
- Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritzaren estrategia moldatzea, migrazio-erronka berriei erantzun integrala emateko.
- https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/es_def/adjuntos/RESPUESTA-INTEGRAL-RETOS-MIGRATORIOS.pdf
- Nazio Batuak – Migrazioak <https://www.un.org/es/sections/issues-depth/migration/>
- Nazio Batuak - Migrazioa, giza eskubideak eta gobernantza: https://www.ohchr.org/Documents/Publications/MigrationHR_and_Governance_HR_PUB_15_3_SP.pdf
- New Yorkeko adierazpena, errefuxiatu eta migratzaileei buruzkoa: <https://undocs.org/es/A/71/L.1>
- Ikuspegi – www.ikuspegi.eus
- PNUD - <http://hdr.undp.org/en/countries>
- PNUD - http://hdr.undp.org/sites/default/files/2018_human_development_statistical_update.pdf
- Nazio Batzuek- Giza Eskubideen Goi-komisionatua- www.ohchr.org
- “Migratzailea naiz” kanpaina: <https://iamamigrant.org/es>
- Amnesty International - <https://www.amnesty.org/es/countries/>
- Human Rights Watch - www.hrw.org
- Euskadiko GGKEen koordinatzailea - www.ongdeuskadi.org
- Gipuzkoako Foru Aldundia. Aniztasuneko Bizikidetzarako Plana, bazterkeriarik ez egoteko ekintzak https://www.gipuzkoa.eus/documents/2456908/2457339/Aniztasuneko_bizikidetzarako_foru_plana.pdf





Ermuko kultura- eta erlijio-aniztasunari
buruzko tokiko gida

ANITZAK / **ERMUA**

ANITZAK

Euskadiko
udalerrietako kultura-
eta erlijio-aniztasunari
buruzko tokiko gidak

ERMUA



Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

124,8 milioi
Emakumezkoak


1 Aurkezpena

Euskadi, munduko gainerako lurraldeak bezala, anitza da; eta bertako aniztasuna etengabe aritu da aldatzen, denboraren joanean. Azken urteotan, adibidez, areagotu egin da, beste herrialde batzuetako pertsonak Euskadira bizitzera etorri direlako.

Gaur egun bezala, etorkizunean ere gure errealitatearen zati izango dira migrazio-prozesuak eta haiekin batera doan aniztasuna. Errealitate askotariko hori bizi-bizi dugu gure kaleetan, eta Ermuko kaleak, noski, ez dira salbuespen. Migratzaileek, beste herrialde batean jaio arren, gure udalerrian bizitzea erabaki dute. Auzokideak dira, eta beren ekarpena egiten dute, herriko kontuetan parte hartzeaz gain.

Dena den, oraindik ere gertaera berri samarra da migrazio-fluxuak Euskadira etortzea; hortaz, baliteke batzuetan eskuragarri ez izatea migratzaileen egoerak eta bizi-prozesuak ulertzeko behar dugun informazio osoa. Beste batzuetan, gainera, faltan izaten ditugu migrazio-prozesuak hobeto ulertzeko tresnak.

Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzak —2017-2020 Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Planaren bidez— eta Ermuko Udalak gida hau argitaratu dute, migrazio-prozesuei lotutako aniztasunaren berri emateko eta migratzaileen bizipenak eta egoerak gertutik ezagutzeko.



Zergatik migratu?

Nazio Batuen Erakundeak hauxe gogorarazten digu: «Giza-kion migrazioak etengabeak izan dira antzinatik. Lekualdatzeko arrazoiak askotarikoak dira: batzuk lan bila eta egoera ekonomikoa hobetzeko asmoz lekualdatzen dira; eta beste batzuk, familiakoekin elkartzeko edo ikasteko asmoz. Beste batzuk, berriz, ihesean datoz, gatazketatik, jazarpenetatik, terrorismotik, bortxaketetatik edo giza eskubideen zapalketatik aldentzeko. Eta badira, halaber, klima-aldaketaren ondorio kaltegarriengatik, natura-hondamendiengatik edo beste ingurumen-faktore batzuenatik ihes egitera behartuta daudenak ere.»

[Iturria: <https://www.un.org/es/sections/issues-depth/migration/>]

Migratzaileak zenbakitan

Beren aukerak edo familiarenak hobetzeko asmoz migratzen duten pertsona gehienak ez dira beste herrialde batera joaten; bizitokia aldatzen dute herrialdearen barruan. Haietako batzuek baino ez dute muga zeharkatzen, eta zeharkatzen dutenak nazioarteko migratzaileak dira.

Nazio Batuen Erakundeak kalkulatu du 2017an **258 milioi** pertsonak migratu zutela munduan. Nazioarteko migratzaileen % 48 emakumeak ziren.

[Iturria: <https://www.un.org/es/sections/issues-depth/migration/>]



2

Beste jaioterri batzuetako ermuarrak

Ermuan aspalditik izan ditugu migrazio-prozesuak. XX. mende osoan migrazioak gertatu ziren: Ermuko biztanle batzuk beste leku batzuetara joan ziren hobeto bizitzeko aukera bila; eta, halaber, Espainiako estatutik eta beste herrialde batzuetatik Ermura etorri ziren beste lagun batzuk.

XX. mendeko azken urteetan aniztasun hori nabarmen handiagotu zen, eta XXI. mendeko lehen hamarkadetan ere gora egin du. Hala, aldatzen ari da Ermuko biztanleen osaera.

Bertako biztanleak



Atzerritarrak Ermuan

Ermuko biztanleak 2019. urtea

(Iturria: Udal errolda)

Beste jaioterri bateko zenbat lagun bizi dira Ermuan?


Geure buruari galdetzen badiogu ea Espainiako estatutik kanpoko zenbat lagun jaio diren Ermuan, ziur asko, benetako zifra baino zenbaki askoz ere handiagoa bururatuko zaigu.

Oro har, atzerritarren kopurua benetakoa baino askoz ere handiagoa dela irudikatzeko joera dugu bertako biztanleok. Baina joera hori EAE osoan gertatzen da, ez Ermuan soilik.

2012. urtean, Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokiak eta Ermuko Udalak biztanleei galdetu zieten zenbat atzerritar bizi ziren udalerrian, eta erantzun zuten herriko biztanleen % 18 zirela atzerritarrak.

Egiazko ehunekoa, ordea, % 5,84 zen. Bestela esanda, Ermuan 16.200 lagun bizi ziren 2012an, eta haietako 951 lagunek baino ez zeukaten atzerriko nazionalitatea. Beste herrialde batean jaio arren, Espainiako estatuko nazionalitatea zeukaten lagunek ere zenbatzen baditugu, Ermuko biztanleen % 7,09 osatzen zuten; beraz, hori ere urrun zegoen bertako lagunek 2012an aipatutako % 18tik.


2019ko erroldako azken datuen arabera, 15.886 pertsona bizi dira Ermuan, eta haietako 1.110 lagunek daukate atzerriko nazionalitatea; hots, **ermuarren % 6,99 osatzen dute.**



Jaioterriei erreparatzen badiegu, migratzaile ia erdiak Afrikakoak dira, eta, segidan, Latinoamerikakoak daude.

Atzerriko herritartasuna duten migratzaile gehienek jaioterria Maroko da; zehatzago esanda, Ermuan bizi diren atzerritarren herena da Marokokoa. Bigarren jaioterria Nikaragua da. Azken urteotan, gora egin du Nikaraguatik etorritako migratzaileen kopuruak, Nikaraguaren egoera dela eta. Ondoren datoz beste jaioterri batzuk, hala nola Senegal, Portugal eta Kolonbia, baina zerrendan askoz ere gehiago daude.

Gaingiroki, 16.000 biztanle inguruko herrian 35 nazionalitate ditugu, bertakoa barne.

**Adin-talde nagusiak**

(Iturria: A. Enzunza, Ermuko Udala 2012)

Generorik al du migrazioak? Eta adinik?

Datu globalen arabera, migratzaileak emakumeak eta gizonak dira. Nazioarteko migratzaileen kopuru osoaren % 48 dira emakumeak munduan.

Erroldako datuen arabera, atzerriko herritartasuna duten 602 gizon eta 508 emakume bizi ziren Ermuan, 2019an.

Nazionalitatea zein den, handiagoa da gizonen eta emakumeen arteko aldea: esaterako, Latinoamerikako herrialdeetatik (Nikaraguatik, Kolonbiatik, Brasiletik) emakume gehiagok migratzen dute. Afrikatik edo Pakistanetik etorritako migratzaileen artean, ordea, handiagoa da gizonen kopurua.

Ermuko atzerritar gehienak 25 eta 44 urte bitartekoak dira, beraz, adinaren arabera, langile aktiboak izan daitezke, eta familiak eta loturak sor ditzakete udalerrian.

Ermuko elkarbizitza

Ermuko biztanle guztiok ez ditugu gertutik ezagutzen beste jaioterri batzuetako pertsonak; denok ez dugu lagun-taldean edo familian atzerritar lagunik. Ikuspegik 2012an egin zuen azterlanaren arabera, atzerritarrekin harremanetan askotan egon diren pertsonak eta gazteak dira immigrazioari buruzko iritzi onena dutenak.



3

Jaioterrien egoera

Ermuko biztanleak (2019): 15.886 lagun

Atzerriko lagunek udalerriko biztanleen % 6,99 osatzen dute, nazionalitate nagusiak honako hauek izanik (Ermuko atzerritarren % 100ekiko portzentajea):

Maroko: % 37	Kolonbia: % 5,3
Nikaragua: % 8,3	Pakistan: % 4,2
Senegal: % 7	Errumania: % 4,1
Portugal: % 6,7	

Maroko

35,7 milioi biztanle

Nazio Batuen Erakundearen datuen arabera, Maroko giza garapenaren tarteko zerrendan dago (aztertu diren 189 herrialdeen artean 123 posizioan dago).

Azken hogeita hamar urteetan, bizi-itxaropena 11 urte handitu da bertan, eta, gaur egun, 76 urtetik gorakoa da batez beste. Horrekin batera, eskola-indizeak ere hobetu dira azken hamarkadetan. Gizonen % 35ek eta emakumeen % 28k bigarren mailako ikasketak egin dituzte.

Emakumeen laneratzeari dagokionez, emakume helduen % 25ek baino ez dute lanpostu ordainduetan lan egiten (gizonen % 74rekin erkatuta). Politikan oraindik ere emakume gutxi parte hartzen dute: Parlamentuan, adibidez, % 18 baino ez dira emakumeak.

Nikaragua

6,2 milioi biztanle

Azken urteotan gora egin du Erdialdeko Amerikako herrialde horretako emigrazio-tasak. Hango politika- eta ekonomia-arazoen ondorioz, gizarte-gatazka larriak sortu dira, eta borroka handiak daude komunitateen eta Estatuko indarren artean.

Nazio Batuen Erakundearen Giza Garapenaren Indizearen arabera, herrialde-zerrendaren erdialdean dago Nikaragua; zehazki, 124 posizioan, Marokoren atzetik. Bizi-itxaropena 75 urtetik gorakoa da, eta Parlamentuko kideen % 45 emakumeak dira. Emakumeen eta gizonen % 47k bigarren mailako ikasketak bukatzen dituzte, eta emakumeen ehunekoa handiagoa da.

Senegal

15,9 milioi biztanle

Herrialde hori Afrikaren mendebaldean dago. Nazio Batuen Erakundearen datuen arabera, behealdeko postuan dago Senegal, giza garapenaren indizearen zerrendan.

Politikaren ikuspegitik, Senegal bere ondoko herrialdeak baino egonkorragotzat hartu ohi da, baina, hala ere, giza eskubideen zapalketa larriak gertatzen dira, besteak beste, era baketsuan biltzeko askatasunik ez izatea edo adierazpen-askatasunik ez izatea. Aipatzekoak dira, adibidez, adinez txikikoen giza eskubideen zapalketak (kalean diru eske ibiltzera behartzen dituzte); LGTBI+ pertsonen aurkako indarkeria; parekotasunik eza eta pobrezia.

Senegalgo Parlamentuko kideen % 42 emakumeak dira. Herrialdeko emakumeen % 11k bigarren mailako ikasketak dituzte (gizonen % 20arekin erkatuta). Bizi-itxaropena 67 urtekoa da. Senegalen aspalditik gertatu dira migrazioak.

Senegal helmugako herrialdea ere izan ohi zen mendebaldeko Afrikan, hara heldu baitziren ondoko herrialdeetako milaka eta milaka pertsona. Gaur egun, ordea, Senegalgo biztanleek ere beren jaioterritik emigratzen dute beste herrialde batzuetara joateko (adibidez, Frantziara, Portugalera edo Espainiako estatura). Horrez gain, iragate-migrazioa ere jasotzen du, handik igarotzen baitira beste leku batzuetara joan nahi duten pertsonak.

A photograph of a woman crouching in a field, looking towards the camera with a slight smile. The image has a strong yellow tint. In the background, there are trees and a fence.

4

Ermuko biztanleen migrazio-prozesuak

Atzerritarrek Ermuan duten presentziari buruzko datuek lagundu egiten digute migrazio-errealitatea dimentsionatzen, baina, askotan, oraindik ez dakigu zergatik erabaki zuten pertsona horiek Ermuan bizitzea edo nolakoak izan diren haien ibilbide pertsonalak.

Yvette

Senegalgo hiriburutik, Dakarretik, etorri da Yvette. Administrazio eta Enpresako ikasketak egin zituen han, eta posta-zerbitzuan lan egiten zuen. Hiru urte darama Euskadin; ermuarra du bikotekidea, eta ez-konducta dago.

Yvettek familiaren eta lagun batzuen bidez ezagutzen zuen nazioarteko migrazioa. Haren familia aukera bila etorri zen EAera, eta bi neba EAeko beste udalerri batzuetan bizi dira. Yvette turista gisa etorri zen gurera, eta, familia bisitatzen zegoela, bere bikotekidea ezagutu zuen, lagun batzuen bitartez.

Senegalgo pertsona askok bezala, hainbat hizkuntza dakizki Yvettek: familiartekoekin diolaz hitz egiten du, eta frantsesez ere badaki. Horrez gain, duela gutxi gaztelania ere gehitu du hizkuntza-zerrendan, nahiz eta, berak esanda, oraindik erabat menderatu ez. Euskara ere ari da ikasten.

Ez zen erabaki erraza izan Dakarretik irtetea eta migratzea. Prozesu zaila izan zen, izapideak eta agiriak konplexuak zirelako. Hala ere, pentsatzen du Ermuan hainbat gai errazagoak direla, Senegalekin erkatuta; bestalde, Senegalgoei esaten die hemengo bizimodua ere ez dela erraza. Azken batez, lana

eta egunean eguneko borroka dira han zein hemen bizitzaren ardatza.

Izapide burokratikoaren zailtasuna dela eta, oraindik ez du lortu ikasketak titulatuak baliozkotzea; hortaz, gaur egun, garbiketa-sektorean lan egiten du.

Ermuko gauzarik gogokoena edo zeri dagoen lotuta galdetuta, irribarre egiten du eta paisaiak aipatzen ditu, hasieran harrituta egin zutelako. Biziki maite ditu mendiak, eta aisialdian mendira joaten da bikotekidearekin eta lagunekin. Errepideek ere harrituta utzi zuten, halako errebueltak ikusita. Laino trinkoa ere arraro egin zitzaion: hasieran ez zekien nondik zetorren etengabeko “ke” hori. Bestalde, lehendabizikoz ezagutu du euria gurean.

Ermuko lagunei buruz maitasunez hitz egiten du, eta, beraren ustez, jendeak jarrera irekia dauka. Yvetten iritziz, bikotekidea ermuarra izatea lagungarria gertatu zaio Ermuaren egoera hobeto ulertzeko.

Herrian egiten dituen ekarpen guztien artean, ADEMA-Afrikan emakumeen elkartekoa nabarmentzen du. Hango partaidea da, eta emakumeekin biltzen da, elkarri laguntzeko eta beren egoeraren berri emateko.



Mohamed

Mohamedek argi dauka bera ermuarra sentitzen dela eta hemen daudela bere oraina eta geroa. “Jaioterria” aipatzen diogunean, irribarre egiten du. Badaki garrantzitsua dela jakitea nongoak garen, baina, hala ere, uste du norberak bizitokitza hartu duen herrian parte hartu eta bizitza eraiki behar duela.

14 urte zituela etorri zen Mohamed Ermura, familia-rekin batera, Rif eskualdetik (Marokoren iparraldetik). Aitak hemen lan egiten zuen, eta geroago ama eta neba-arrebak ere etorri ziren hona. Ondoren, familia handitu zen, eta arreba txikiak Ermuan jaio ziren. Gaur egun, arrebekin euskaraz hitz egiten du; anaia-rekin, gaztelaniaz, eta gurasoeekin, berbereraz.

Hark esaten duen moduan, migratzea ez zen izan beraren erabakia, familiarena baizik. Migratzeak «zero-tik» hastea ekarri zion.

Argi gogoratzen du lehenengo urteak zailak izan zirela. Magrebeko errealitatea eta Ermukoa oso ezberdinak zirelako, eta “kulturen arteko talka” sentitu zuelako. Gainera, Mohamedek aitortzen du administrazioak eta gizarteak oztupoak jartzen dituztela beste kultura-eremu batekoa izateagatik, eta oztupo horiek eguneroko bizitza zailtzen dutela. Gogoratzen du hasieratik saiatu zela “gizarteratzen eta beste bat” izaten, nahiz eta hasiera hartan ikasketak euskaraz edo gaztelaniaz egitea zaila iruditu.

Mohamedi entzunda, haren ikasketa-prozesua bizi duzu. Helmugako gizartearen ezaugarriak ikusten eta ikasten joan da: ez bakarrik hizkuntzak, komunikatzeko gainerako erak ere barneratzen joan da (keinuak, adibidez). Jendearekiko harremanak sortzen ikastea ere prozesu bat izan da Mohamedentzat: esaterako, maitasuna adierazteko moduak bestelakoak dira, kultura-eremua zein den. Labur esanda, “zure bizimodua aldatu behar duzu”.

Mohameden hitzetan: “hizkuntza —hau da, komunikatzeko oinarritzko tresna— menderatu eta hemengo ohiturak ulertu ondoren (besteak beste, lagun-taldea lortu ondoren), jaioterriko oroitzapenak lausotzen hasten dira, automatikoki. Gero eta urrunago sentitzen duzu egunetik egunera”.

Ezarritako helburuak pixkanaka lortu zituen Mohamedek. Haren ustez, azkenean, moldatzen zara, eta “beste euskaldun bat izatera ere heltzen zara”. Dena den, gaur egun, oraindik ere baztertuta sentitzen da batzuetan Mohamed. Bazterketa ez dator pertsona zehatz batzuen eskutik, baizik eta izena eta jaioterria bestelakoak dituelako.

Pertsona batzuei oraindik azaldu behar die “etorkinak bizimodua ateratzera, bizitzera eta euskaldunak izatera etortzen direla hona”. Berak pentsatzen du migratzaileek lotura handiagoa daukatela helmugako lurraekin, lur horrek aukerak eman dizkielako. Halaber, argi adierazten du bere jaioterriko egoera

politikoa zaila zela. Hortaz, gure lurraldea biziki maitatu du, askatasuna, hezkuntza eta beste baliabide batzuk eman dizkiolako. Horrek argi sentiarazi zion “beste herritar bat” izan behar zuela.

Mohamedek harremanetan jarraitzen du jaioterriarekin eta familiarekin. Hala, batzuetan sentitzen du ez dela inongoa: ez hemengoa, ezta hangoa ere. Bere hitzak entzunda, argi ulertzen da “bigarren belaunaldien” fenomenoak: helmugako herrikoak dira, duda barik, baina bertakoek oraindik ere jaioterriarekin edo migratzaileekin lotzen dituzte.

Bere bizi-ibilbidea erabakigarria izan zen lanbidea aukeratzeko. Euskadira etorri zenean, irakasle batzuek laguntza eman zioten; beraz, haien laguntza gogoan izanik, Gizarteratzearen arloko ikasketak egitea erabaki zuen. Gaur egun, bizitzan ikasi duen guztiari esker, gizarte- eta kultura-bitartekaria da, eta argi ikusten da erabat bokaziozkoa izan dela bera aukera. Mohamedek nabarmen sentitzen du “horretarako balio duela”. Gainera, Ermuko elkarte batzuen gizarte- eta kultura-ekintzetan ere parte hartzen du aktiboki.

Guztiz zirrargarria da Mohamedi entzutea: energia eta ilusioa transmititzen ditu; inguruko errealitatea argi aztertzen du, eta agerikoa da gaitasun handia duela berak bizi izan zituen antzeko prozesuak bizitzen ari diren pertsonei laguntzeko.



14

Johanna eta Iñaki

Johanna eta Iñaki migratzaileak dira biak. Iñaki Ermuan jaio zen, eta Limara (Perura) migratu zuen. Johanna, berriz, Liman jaio zen, eta Ermura migratu du. Biek dakite migratzaileen bizitza ez dela erraza. Biek bizi dute nazioarteko migrazio-prozesua, eta bi- zipen horrek laguntzen die elkar ulertzen eta bizipe- nak partekatzen. Izan ere, biek ezagutzen dute nola- ko eragina izaten duen bizitzan jaioterritik irten eta beste leku batera bizitzera joateko aldaketak.

Iñakik uste du Euskal Herria emigratzaileen herria dela, eta horren lekuko da bera. 17 urtean bizi izan zen Perun; han ezagutu zuen Johannak, Iñaki hara heldu eta urte askotara.

Perun bikote-harremana izan zuten hainbat urtetan, eta duela urtebete Ermura etortzea eta hemen bizi- tzea erabaki zuten. Dena den, erabakia ez zen erraza izan: Johannak baloratu behar izan zuen ilusioz be- teriko ibilbide profesional, familiar eta pertsonaletik aldendu eta Iñakirekin Ermuan bizitzeko apustu- aren alde egin nahi zuen ala ez. Bestalde, ikasketen eta lanaren zioz itzulia zen Iñaki Ermura, baina 11 urte zituenetik bizi izan zen Ermutik kanpo; beraz, batak eta besteak bizitza berreraiki behar izango zuten.

Johannak eta Iñakik sakon aztertu zuten erabakia: Limatik Ermura etortzea, ala Ermura ez itzultzea eta Liman jarraitzea. Hainbat ikuspegi kontuan hartu zi- tuzten, baita kolorezko ohartxo itsasgarrietan idatzi ere. Azkenean, izurrite bat izango balitz bezala, ohar- txoz bete ziren etxeko horma guztiak. Irudi horrek erakusten digu zer zaila den horrelako erabaki bat hartzea. Batetik, bizi-osagaiek eragina izaten dute, hala nola etxebizitzak edo egoera ekonomikoak. Bestetik, osagai sinbolikoak ere garrantzitsuak dira: eguneroko ohiturak aldatuko dira; ingurunea eze- zaguna izango da, eta izugarri mingarria da maite dituzun pertsonengandik urrun egotea. Horregatik, erabakia ez zen lineala izan, zalantza-balantzaka ari- tu ziren.

Johannak dio «bizitzak ironikoki jokatu» duela bera- rekin. Peruko milaka pertsonak bezala, familia-ba- rrrutik ezagutu du migrazioa. Amona, ama eta izebak aspalditik bizi dira Espainian, arrazoi ekonomikoak direla eta. Familiakoak tematu arren, Johannak, or- dea, ez zuen inoiz pentsatu emigratuko zuenik. Bera pozik zegoen Liman, eta zoriontsu bizi zen han. Hor- taz, “bizitzaren ironia” iruditzen zaio Iñaki ezagutu

izana eta bikote-harremanaren ondorioz migratzeko aukera agertu izana. Gaur egun, Ermuan urtebete eman duen arren, ezin du erabat ziur esan migratzea ideia ona izan den ala ez.

Johannak arrazoi sentimentalengatik migratu zuen, batik bat; ez zen etorri garapen ekonomiko edo pertsonal handiagoren bila. Zoriontsu sentitzen da aukeratutako ibilbidean, baina, hala ere, batzuetan Limako bizitzaren hutsunea sentitzen du. Haren esanetan, eguneroko bizitza “erabat normala” zen Liman. Unibertsitate-ikasketak bukatuta, Limako Unibertsitatean ziharduen lanean, Peruko Unibertsitate Katolikoko Pontifizioko Arte Eszenikoen Fakultateko Sorkuntza eta Produkzio Eszenikoaren espezialitateko laguntzaile akademiko gisa.

Ez zen erraza izan halako erabakia hartzea. Johannak gogoratzen duenez, aldaketa egiteko bultzada eta zirrara sentitu zituen hasieran. Alabaina, bidaia-eguna hurbildu ahala, krisialdi pertsonala izan zuen; izan ere, laster errealitate bilakatuko zen ordura arte nola-baiteko fantasia izan zen hura. Azpimarratu nahi du erabakia berak hartu bazuen ere ez dela erraza aldatetara moldatzea; eta aldaketa hori erabatekoa eta muturrekoa izan dela.

Johannak uste du pertsona askok pentsatzen dutela jaioterria besterik gabe utz dezakezula, ezer sentitu gabe. Egiazko egoeran, ordea, helmugako herrian maitasun ezin handiagoa topatu arren, zaila izaten da zure ohiko bizitzaren hutsunea betetzea. Limatik irten aurretik, Johannak sentitu zuen hainbat kontu “itxi” behar zituela, bertan behera utziko zituelako; bestela esanda, bere bizitzaren kapitulu hori “itxi” behar zuela. Gainera, burokrazia-izapideek bidaia geroratu zuten: esaterako, unibertsita-

te-tituluak legeztatu behar izan zituen, EAEn keztu ahal izateko.

Biek erabaki zuten lehenik Iñaki Limara joango eta elkarrekin etorriko zirela gurera. Lehen hilabete hori igaro eta gero, egoera ez zen erraza. Ez zituen hemengo ohiturak edo ingurunea ezagutzen, eta, gainera, Iñakik osasun-arazo larriak zituen hilabete batzuetan. Hortaz, handiagoa zen ziurgabetasuna. Egoera horretan, gurean batzuk soilik zeramatzala, Johannak bere gain hartu zituen ardura guztiak, ingurunea ezagutu ez arr

Aurten lana aurkitu du, lan egiteko eskubiren alde zortzi hilabetea borrokatu ondoren. (Ez)egungo lanpostua ez da beraren unibertsitateketen alorrekoa, ezta beraren lanbide-gaitasun araberakoa ere; baina, beraren ustez, lanpostu baskatasuna ematen du nork bere burua garatzeko. Izugarri gustatuko litzaioke Arte Eszenikoen ikaslea berreskuratzea, baina ez daki lortuko duen.

Bikotekidearekin dago, eta lagunak egin ditu, baina Johanna oraindik ere hunkitu egiten da migrazio-prozesuari lotutako bizipenak kontatzen dituen Azaldu digu “haurtzaroan bezala” sentitu dela berriro: batzuetan frustrazioa da nagusi egun osoan, eta ez da gauza ingurune oinarritzko nondik norakoak ere ulertzeko. Oraindik ere nekatuta sentitzen da denbora osoan; migratzeak dakarren estresak eraginda, hark dioenez.

Iñakik dio “atea beti egongo dela irekita Perun, baina gero eta urrunago ikusten duela”. Edonola ere, bai Johannak bai Iñakik uste dute Ermua “bidaiaren beste aldi bat” dela eta litekeena dela berriro ere migratzea eta beste errealitate batzuk ezagutzea.



Ajien uztak

Peruko baratzea

Besteak beste Peruko janariak eragiten die herriminik handiena; baina Johannak eta Iñakik jada irtenbidea aurkitu dute produktu horien hutsunea betetzeko: haiek **landatzen dituzte “aji horiak” eta “zapallo”ak**.

Ajiari “txile” edo “pipermina” ere esaten zaio. Gipuzkoa-ko Aiako landare berezien azokan *aji* haziak aurkitu zituzten. Harrezkero, Ermuko etxeko balkoian landatzen dituzte, eta arrakasta izan dute! *Ajia* erabiltzen dute “*krema huancainarra*” egiteko. Hona hemen osagaiak: *ajia*, gazta freskoa, galleta gaziak eta gatza, eta, «*Papa huancainar erara*» egiteko ere erabiltzen dute.

Internet bidez, *zapallo* haziak ekarri zituzten Alemaniatik. Kuiaren familiako barazkia da. Lagun batek baratze bat dauka Miranda Ebro herrian, eta han landatu dituzte. Dagoeneko bildu dute lehen uzta. *Zapalloak* erabilia “*locro*” deitutako jaki bat prestatzen dute: ilarrekin (ilarrari “*arveja*” esaten diote), esnearekin eta gazta freskoarekin. Horrez gain, azenarioa ere gehitu dakioke koloredunagoa izan dadin. Peruko eskualde batzuetan *papa horia* zatitua ere gehitzen diote (patata mota hori egostean desegiten da). Euskadin ez dute aurkitu patata mota hori; hortaz, Johannak osagai hori gabe prestatzen du *locroa*.

5

Elkartasun-esperientziak Ermutik

Ermuko Udalak eta udalerriko beste elkarte batzuek eskarmentu handia metatu dute herrira etorri ziren pertsonen premiei erantzuten. Eta Udaleko eta elkarte horietako arduradunek azpimarratzen dutenez, **migratzaileen eta bertako herritarren premiak berdinak dira, norberaren bizi-unea zein den**. Bestela esanda, guztiok ase behar ditugu premia batzuk, **komunitateko kide sentitu eta udalerrian integratu ahal izateko**. Beraz, gurera etortzen diren herritarrek ez ezik gizarte osoko herritarrek ere dute beharrian hori.

Ermuko erakundeek zenbait programa sustatzen dituzte, elkartzea eta borondatezko lana bultzatzeko. Besteak beste, ermuar guztiek boluntario gisa parte har dezakete hizkuntza lantzen laguntzeko (programa «Hitz egidazu/Habla conmigo» deitzen da). Programa horretan Ermuan jaio diren pertsonen eta beste jaioterri batzuetako pertsonen arteko harremanak sustatzen dira, gaztelania eta euskara ikasten laguntzeko. Horrez gain, jolas- eta kultura-topaketak ere antolatzen dira, eta kultura bakoitzari buruzko bizipenak partekatzen dira, tokiko kulturari buruzkoak barne.

Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Astea antolatzen da urtero, eta bertan aukera dago parte hartzeko eta beste jaioterri batzuetako pertsonak ezagutzeko. Horrez gain, Aniztasunaren Eskola programa antolatzen da: 2012an hasi zen Ermuan, eta herritar guztiei prestakuntza jasotzeko aukera ematen die.

Horrekin batera, hainbat elkarte elkarbizitza eta elkar ezagutzeko zein berrezagutzeko guneak sustatzeko lana eta proiektuak egiten dituzte Ermuan. Besteak beste, aipatzekoa da ADEMA (Afrikan emakumeen garapena bultzatzeko elkarte). 2018an sortu zen, eta Afrikatik etorri diren emakumeek zuzentzen dute. Besteak beste, elkarri laguntzeko jarduerak eta beren kultura eta egoera ezagutarazteko ekintzak antolatzen dituzte.



ANITZAK/ERMUA



6

Aniztasunean elkarrekin bizitzea

Ermuan ezaguna da migrazioa: ermuarrak beste herrialde batzuetara joan izan dira, eta beste herrialde batzuetako lagunak Ermura etorri dira bizitzera.

Fenomeno hori planetako herri edo komunitate gehienetan gertatzen da. Gizarte moderno guztietako egiturazko fenomeno da migrazioa. Denbora igaro ahala, prozesua bilakatuz joaten da: **migrazioa etengabea da, baina jaioterriak eta herritar motak aldatzen dira.**

Migrazioa gizartearen bilakaera plural eta aberasgarriari lotuta dago, eta bizitza sozialaren maila guztietara hedatzen da. Migratzaileen eta jaioterrien aniztasuna aberasgarria da gure gizartearentzat, ekonomiaren zein kulturaren ikuspegitik.

EAEko erkidego islamikoarekin batera bizikidetza sustatzeko jarduketa-programan adierazi bezala: herritarren askatasunaren eta osasunaren seinalea da kultura-, erlijio-, hizkuntza- edota etnia-aniztasuna —eta beste edozein aniztasun mota ere bai.

Migrazioa lan-fenomenoa baino askoz ere gehiago da. Bizi-aldaketa handiak ekartzen ditu, eta kontuan hartu behar ditugu. Migratzaileei ikuspegi sinplista batetik erreparatzen badiegu, begirada hori oztopoa izango da gure herrietan elkarbizitza bidezkoa eta harmonikoa garatzeko.

Pertsona guztiak berdinak gara, merezi dugun duintasunari eta balia ditzakegun eskubideei dagokienez, non jaio garen kontuan hartu gabe.

Guztiontzako lekua duen gizartea eraikitze konpromisoa, beraz, norabide biko prozesua da: bertako herritarrena eta etorkinena, guztiok sortu eta moldatu behar baitugu gure gizartea. **Bestelako bizipenak izan dituzten pertsonekin hitz egitea eta haien errealitatea ezagutzea lagungarria da gure herriko gizarte-aldaketak hobeto ulertzeko.** Elkartasuna, beraz, guztion erantzukizun soziala da.



7 Migraziorako Euskal Itun Soziala

Ikusten genuen bezala, bai herri mailan, bai beste maila batzuetan, hainbat elkarte eta erakundek migrazioari lotutako fenomenoak ulertzen laguntzeko ekintzak sustatzen dituzte. Besteak beste, Eusko Jaurlaritzak ekimenak antolatzen ditu nazioarteko migrazioa eta haren errealitatea gure agenda partekatuan sartzeko. EAEko Migraziorako Itun Sozialak gogorarazten digunez, anitza da gure gizartea, eta guztiok gara migrazio-prozesuen erantzule. Hortaz, **gaitasun solidarioak** indartu behar ditugu. “Gaur egungo migrazio-erronkek gure etikaren printzipioak praktikan jartzeko eskatzen digute, besteak beste, elkartasuna, diskriminaziorik eza eta bertako zein atzerriko herritarren eskubideen eta bete-beharren parekotasuna benetan gauzatzeko”. Gakoa da biztanle guztion elkartasuna indartzea, gaur egungo eta etorkizuneko gizartea konpromiso partekatu baten bidez garatuko badugu.

Jaso nahiko genukeena eskaintzea

Migrazioa ez da egoeraren araberako fenomeno, baizik eta munduan, Europan eta Euskadin gertatzen den egiturazko egoera bat. Erantzun egokia eskaintzea obligazioa da barne- zuzenbidean eta Europako zuzenbidean, eta nazioarteko zuzenbide humanitarioan zein giza eskubideen zuzenbidean. Dimentsio arauemailea dauka. Etorkinek, asilo-eskatzailak, Bidaidetik Gabeko Adingabe eta Gazte Atzeritarrak (BGAA/BGGA), iragaitzazko migratzaileak edo zaurgarritasun-egoeran daudenek eskubideak eta betebeharrak dituzte, eta eskubide eta betebeharrak horiek bermatu egin behar dira.

Etika demokratikoko dimentsioa ere badu; izan ere, de nitu egiten du gizarteak elkartasunerako eta zibilizatorako daukan gaitasuna. Babesgabetasun-egoeran dauden pertsonekiko erreakzio indibidual eta kolektiboak jartzen dira jokoan. Edo bakoitzak ahal duena egiten du, edo ondare komuna partekatzeak aukera sustatzen da. Etika unibertsalaren funtsezko premisetako bat da *besteei ez egitea besteek geuri egiterik nahi ez duguna*. Migrazioari dagokionez, *jaso beharko genukeena eskaintzea* da printzipio etiko nagusia, baldin eta gu ere antzeko egoera batean suertatuko bagina.

Dimentsio arauemaileaz eta etikoaz gain, migrazioen erronkari eman beharreko erantzunak aurrerabidearen alderdia ere jasotzen du, herrialderik aberatsenak migrazio fluxuak eta kultura aniztasuna modu egokian integratzen jakin izan dutenak dira, horrek lasaitasun demogra ko erlatiboa ematen du.

Hala ere, migratzaileak mehatxu gisa aurkezten dituzten diskurtso indartsuak mundu osoan ari dira ugaritzen. Faltsutasunez, arrazismoz eta populismoz zamatutako aurreiritziek errendimendu alderdikoia lortu nahi dute, beldurraren bitartez. Horren ondorioetako bat da Europako eredu eta balioak zaltzan jartzen direla, ustekabea. Sintoma kezka-garriak agertzen dira: kanpoko zein barruko mugak modu faktikoan berrezartzen dira; errefuxiatuen eta etorkinen giza eskubideen aitortpenak atzera egiten du; gorroto diskurtsoak; adierazpen politiko-instituzional argiko xenofobia agertzen da; eta ezin da migrazio-politika erkiderik eraiki.

Orain arte, Euskadik modu bateratu eta solidarioan erantzun izan die migrazioaren erronkak di-tuen agerpenei. Alabaina, populismo xenofoboaren mehatxua hortxe dago, eta bere burua egituratzeko eta demagogiaren bitartez barreiatzeko asmoa dauka. Migrazioarako Euskal Itun Sozialerako proposamen hau oztopoen eta aukeren testuinguru horretan dago kokatuta.

Bere helburuek proiektzio etiko, prebentibo eta proaktiboa dute. Itun honen helburu etikoa erantzun solidario eta erantzulea sendotzea da, migratzaileen beharrezkoak dagokienez. Helburu prebentiboa, berriz, zeharkako batasun sozial eta politikoa eratzea da, xenofobiaren aitzakiapean sortutako populismoen asmoak ezerezean uzteko. Eta helburu pragmatikoa da migrazioaren erronkari gure gizartearen hazkundera eta aurrerabide-prozesuaren parte gisa heltzea.

Abiapuntuak

Migraziorako Euskal Itun Sozial hau sinatzen dugun pertsona, entitate eta erakundeek ondorengo abiapuntu hauek partekatzen ditugu:

A. Premisa politikoa: pluraltasuna. Dibertsitatea gure historiaren eta nortasun kolektiboaren funtsezko zatia da. Beste kultura eta jatorri anitzetako pertsonen osatutako euskal gizartea defendatzen dugu, kulturarteko pluraltasunaren balioekin konprometitutakoa eta herritartasun inklusiboa eraikitzen lagunduko duena.

B. Premisa etikoa: elkartasuna. Migrazioaren erronka berriak interpelazio etikoak dira, eta horrek elkartasuna, diskriminazio eza eta etorkinen zein bertokoen eskubide eta obligazioak parekatu beharra eskatzen du, eta halaxe onartzen dugu, konpromiso partekatu gisa.

C. Premisa pragmatikoa: beharritasuna. Euskal gizarteak, familien babeserako politikez gain, immigrazioa behar du, lanaren eta demografoaren inguruko beharritasunei erantzun ahal izateko. Euskadiren ondorengo hamarkadetakoa hazkundeari dagokionez, immigrazioa onerako izango da, eta guk aukera gisa helduko diogu gai horri.

Zeharkako aukerak

Itun hau sinatzen dugunok geure egiten ditugu, gure gaitasun eta eskumenen neurrian, zeharkako aukera hauek:

I. Bizikidetzak. Harrera eta integrazioa babesten ditugu, bai eta elkartasunaren, aniztasunaren eta bizikidetzaren diskurtsoa ere. Arbuia egiten ditugu beste kultura edo jatorrietako pertsonen aurkako aurreiritzietan eta estereotipoetan oinarritutako diskurtso estigmatizatzaileak.

II. Giza Eskubideak. Oinarritzko eskubideen titulartasuna ahalik eta gehien zabaltzea sustatzen dugu, nazionalitatea edozein dela ere, tratu eta aukera berdint

tasunaren printzipioan oinarrituta, eta diskriminazio mota ororren aurrean

III. Zehakakotasuna. Euskal administrazioen sektore-politiketan (enplegua, kultura, etxebizitza, gizarte zerbitzuak, segurtasuna,...) migrazioak dakarren kultura-aniztasunaren begirada txertatzea

IV. Kohesioa. Irnatasunez babesten dugu hezkuntzaren, osasunaren edota oinarritzko prestazio sozialen unibertsaltasuna, bai eta enplegurako eta etxebizitzarako trebakuntza eta integrazioa jasotzeko ildoak mantentzea ere, eskubideen eta betebeharren berdintasun- esparruan.

V. Hezkuntza. Heziketa-espazio inklusiboen eraketa sustatzen dugu, integrazioarako eta bizikidetzarako balio estrategiko gisa. Errealitate desberdinak partekatzea, ezagutzea eta estimatzea pedagogia erabakigarria da gure ikasleen gizarteratze-prozesuan.

VI. Tokiko esparrua. Tokiko esparruaren garrantzia nabarmentzen dugu, eguneroko integrazio efektiborako agertoki estrategiko gisa. Bizikidetzak hobetzeko eta kohesio soziala areagotzeko lanean, udal ekintzak lehentasunezko balioa dauka, eta jardun hori babestu eta sustatu beharra dago.

VII. Berdintasuna. Genero-berdintasunarekiko konpromisoa partekatzen dugu, gure bizikidetzak eraikitzeke oinarritzko eta funtsezko printzipioa den aldetik; era berean, maila unibertsalean hedatzeko duen botkazioa ere partekatzen dugu, kultura eta erlijio guztiak kontuan hartuta. Konpromiso hori migrazio-politiketan eta gizarte babeseko politiketan genero ikuspegia modu eraginkorrean sartzean gauzatzen da.

VIII. Hizkuntzak. Gizarte hartzaileko hizkuntzak ikastearen alde egiten dugu, migratzaileen integrazioarako eta egokitzapenerako funtsezko faktore gisa. Beharrezkotzat jotzen dugu elkarte-ehunaren zeregina indartzea, elkarriketa eta lankidetzak iraunkorreko

mekanismoak ezarriz, migratzaileen erakundeek harreraren eta integrazioan duten zeregina sustatuz. Beraz, horretarako behar diren bitartekoak ahalbidetu behar dira.

IX. Lankidetzak. Maila instituzional eta sozialen arteko lankidetzaren lehentasuna sustatzen dugu. Beharrezkotzat jotzen dugu elkarte-ehunaren zeregina indartzea, elkarrizketa eta lankidetzak iraunkorreko mekanismoak ezarriz, migratzaileen erakundeek harreraren eta integrazioan duten zeregina sustatuz. Arlo honetan, beste ezein arlotan baino beharrezkoagoa da lankidetzak. Elkartzen gaituena bateratzea, bereizten gaituenari aurre eginez.

Konpromiso zehatzak

Aurreko guztiaz gain, erabateko babesa ematen diogu konpromiso zehatz hauen garapenari, dagozkien eskumen-esparruetan:

1. Erantzunkidetasuna. Beste eragile batzuekin lankidetzan aritzea, EB osoan erantzunkidetasunaren printzipioa sustatzeko. Horretarako, lankidetzak leialean aritu behar da estatuko eta Europako erakundeekin, eta eskatzen eta eskaintzen den konpromisoa islatzen duten proposamenak garatu behar dira.

2. Irmotasuna. Batasun sozial eta politikoari eustea; modu horretan, mezu xenofoboak erabiliz abantaila politiko edo elektorala lortu nahi den guztietan, gehiengo demokratikoaren pisua nabarmenduko da.

3. Immigrazio erregularizatua. Immigrazio erregularizatuaren aukerak areagotuko dituzten ildoak sustatzea, kontuan hartuta jatorrizko herrialdeetako errealitateak, migratzaileen migrazio-proiektuak, eta erronka demografoak European planteatzen dituen beharrianak.

4. Asilo-eskatzaileak eta errefuxiatuak. Nazioarteko babes-eskatzaileen eta errefuxiatuen harrera eta integrazioa modu kuantitatiboan zein kualitatiboan

hobetzeko ekintzak garatzea, European, estatuan eta Euskadin.

5. Zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak eskaintzea zaurgarritasun-egoeran dauden migratzaileei erantzun humanitario egokia emateko, arreta berezia jarritz emakumeengan, adingabeengan eta giza eskubideen urraketan biktimengan.

6. Erregularizatu gabeko egoeran dauden migratzaileak. Behar diren baliabideak artikulatzea, iristen diren iragaitzazko migratzaileei edo erregularizatutako dokumentaziorik gabekoei erantzun solidario eta humanitarioa eskaintzeko, modu horretan autonomia-prozesuen alde egiteko.

7. Bidaiderik Gabeko Adingabe Atzerritarrak (BGAA) eta Bidaiderik Gabeko Gazte Atzerritarrak (BGGA). Behar diren baliabideak edukitzea, legezko betebeharreri, adingabearen interes gorenaren printzipioaren betearazpenari eta gazteak gizarteratzeko eta lane-ratzeko proiektuari erantzun partekatu, bidezko eta egokia eskaintzeko.

8. Esku-hartze humanitarioa. Gure gaitasun instituzionalen neurrian, dei humanitarioei erantzutea, bai erakundeek egindakoei, bai bertatik bertara (Mediterraneo itsasoan, jatorrizko herrialdeetan edo iragaitzan) aritzen diren nazioarteko zein tokiko GKE-ek egindakoei.

9. Prebentziozko esku-hartzea. Lankidetzak-proiektuak babestea edo garatzea, migratzaileen jatorrizko herrialdeetako pobrezia, bidegabekeriaren eta desberdintasunen zergatiak eraldatzeko, eta herrialde horietako giza kapitala eta indarguneak sendotzeko.

10. Bizikidetzaren kultura. Bizikidetzaren kultura partekatzea, elkartasunean, erantzun- kidetasunean eta pluraltasunaren, giza eskubideen eta berdintasunaren defentsan oinarrituta, eta edozein arrazismo edota bazterketa arbuiatuta.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Giza Eskubide, Bizikidetzeta
eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusia

PRESIDENCIA
Secretaría General de Derechos Humanos,
Convivencia y Cooperación